

LEKUONA'TAR MANUEL

# IDAZ-LAN GUZTIAK

## 3.

*ARTE-IZTI*



KARDABERAZ BILDUMA - 24

*Autor: Lekuona'tar Manuel*  
*Edita: Librería Técnica de Difusión - Tolosa*  
*Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria*  
*Depósito Legal VI 241 - 7978 Vol. 3*  
*I. S. B. N. 84-85416-03-1*



KARDABERAZ BILDUMA - 24

LEKONA'XAB MANUBL  
IDAZ-LAN GUZTIAK

**3.**

AHTE - IZTI



# Arte-izti: Estetika

EZAGUEKAK (Ezagutu bearreko itzak)

Gaurko Jakintzak, Teknika-Jakintzak dira batez ere.  
(Fisika, Kimika, Mekanika, Elektronika...).

Antziñako Jakintza, Filosofi-Jakintza zan batez ere.

Iru Jakintza ziran, Filosofi-Jakintza oiek:

- 1) *Filosofia* jatorra, *egia* ikasteko :  
("Mundua zer da? nundik gatoz? nora goaz?").
- 2) *Etika* (Morál, Jus, Derecho) *ona* ikasteko :  
("Elkarri begirune zor diogu...").
- 3) *Estetika* (Arteak), *ederra* ikasteko.

Egiak garrantzi handia du; onak ere garrantzi handia; ederrak ere

Mundua, gauza ederrez betea dago :

- 1) *Berezko ederrak*: Jaunak egindakoak:  
(Mendiak, Itxasoak; lore bat; aurtxo bat)...
- 2) *Gizonak egindakoak*, arte-lanak, arte-eder-lanak:  
Atenas'ko "Partenon", Eliz ederra zan.  
Homero'ren "Iliada", Poema ederra da.  
Vergilio'ren "Aeneida", Poema ederra da.  
Erroma'ko "San Pedro", EHza ederra da.  
Migel Angel'en "Moisés", talla ederra da.  
Velazquez'em "Las Meninas", pintura ederra da.  
Kolonía'ko Katedrala, Eliza ederra da.  
Donostia'ko "Artzai Onaren Eliza", Eliza ederra da.  
Ernani'ko Elizaren sarrera, Artezko-lan ederra da.

(Sakon ditzagun, berezi ditzagun gauzak).

## GIZA-ARIERAK

Gizonak egiten duan dana, zerbaitetarako egiten du (gizonaren ariera guztiak ba dute *elburu*, ba dute "zertarako").

Zeftarako oiek, iru dira batez ere:

- 1) Probetxua (irabazia, lana);
- 2) Jostatzea (jolasa, entretenimentua);
- 3) Atsegiña.

Adibidez: Gizonaren ibiltzeak izan ditzazke iru elburu, iru "zertarako":

1) Gizona goizean ateratzen da bere etxetik, eta lanera dioa; joate ori, ibiltze ori, lanerako da, irabazirako, *probetxurako*.

2) Gizonak, korrikalari-apustu batean korrika-egiten du; ibiltze ori, gizonak jostatzeko du, jolasteko, *entretamenturako*.

3) Gizonak dantza egiten du; ibiltze ori, *atsegiñerako* du.

Orra or iru mundu: lana; deporte; artea.

—Zer da lana? — Gizonak probetxurako egiten duana.

—Zer da deporte? — Gizonak entretenigarri egiten duana.

—Zer da artea? — Gizonak atsegin-artzeko egiten duana.

Orain: Atsegin-artzeko zerbait egiten duanari, "artista" esaten zaio.

## ARTISTA

Picasso, *artista* zan; Usandizaga ere *arfista* zan.

Picasso, pintorea, *margolaria* zan; Usandizaga, *musikoa*.

*Musika*, artea da; *pintura* ere artea da.

Musikoak, bere musika-lana (bere arte-lana) ibillian egiten du, eta lan ori, egin-alean galdu egiten da; lan orrek ez du irauten.

Pintoreak egindako lanak, iraun egiten du; ez da egin-ala galtzen.

Neurri oietan, bi artekera aundi ditugu munduan :

1) *Arte dinamikoak*: ibillian egiten diranak, aien arte-lanak egin-alean galtzen diranak; irauten ez dutenak. Dantza...

2) *Arte plastikoak*; aien arte-lanak, eginda gero ere irauten dutenak. Eskultura...

Arte dinamikoak: *Musika, Dantza, Olerkia, Teatroa* (Zinea).

Arte plastikoak: *Arkitektura, Eskultura, Pintura*.

#### ATSEGIÑA

"Arte-lana" zer dan esan degunean, "gizonak atsegiñ-artzeko egiten duana" dala esan degu.

Atsekin-klase asko dira:

1) Nekatu-ondoren artzen dana; *nekeai'en* kontrakoa.

2) Jan-edanean artzen dana; *gose-egarriaren* kontrakoa.

3) Lagunartean artzen dana; *ahurrvementuaren* kontrakoa.

4) Gauza eder baten aurrean artzen deguna; *artearen atsegiña*, atsegin estetikoa.

Lenengo iru atsegin oiek, animaliak ere ba ditu; laugarrena, gizonak bestek ez. Animaliak ez du artzen olako atsegiñik; animalia ez da poztzen —ez da emozionatzen— gauza eder baten aurrean.

Azkeneko au da, Artearen atsegiña: ederrak, edertasunak ematen duan atsegiña, atsegin estetikoa.

#### EDERRA

Zer da "ederra"?

—Leengo Filosofo zarrak esaten zutenez, "ederra, ikusi utsez atsegin ematen duana" da, atsegin estetikoa.

Sakon dezagun gauza au pixka bat.

Zazpi arte-lan aipatu dizugu: lau *dinamiko* eta iru *plastiko* edo *estatiko*; dinamikoak, musika, dantza, olerkia eta teatroa; eta plastikoak, arkitektura, eskultura eta pintura.

Zazpi arte-lan oiek, beren baitan, ez dira oso elkarren antzekoak; bañan, ala ere, zazpirak "arte-lan" esan oi dira, izen ori ematen zāie. Danok ba dute eikarren antzeko zerbait. —Zer da "elkarren antzeko" ori?

—*Edertasuna*. Arte guztiak beren lana "ederki" egiten dute, edertasunez apaindua.

Dantza, adibidez, "ibilli bat" da; eta, bidez-bide gabiltzanean, ibilii ibiltzen gera; bañan ez, dantzaria dantzan dabillenean bezain ederki, pausuak bat bestearen ondotik neurri ederrean emanaz.

Dantza, ibiltze eder bat da. Ederra.

Arkitekto batek etxe bat giterakoan, egin dezake "etxe funcional" bat, bizi izateko oso egokia dana. Bañan egin dezake, baita, zenbait edertasunez apaindua —ateak arkuan, leioak biribillak—; etxe ederra, atxe apaña. Orla egitean arkitektoak "arte-lan" bat egiten du.

Arkitektura, etxe eder apañak egiten erakusten duan artea da.

Itz bitan : Dantza eta Arkitektura-artea, bi gauza, berez ain elkarren. gandik bestelakoak diran arren, edertasunak egiten ditu alkarren senide, Arte Eder.

#### EDERTASUNA

—Zer da, ordea, edertasuna? Zer da, gauza eder bat ikustean, ikusi utsez atisegin ematen digun "zerbait" ura?

—Ez da errex, esaten.

—Zergatik ematen digu atsegin dantza batean, dantzariaren oñen ibilkerak? Zergatik ematen digu atsegin, lerro zuzen eta lerro biribillez apaindutako etxe-aurre batek?

—Dantzariaren ibilliak, eta etxe-aurrearen lerroak, *egoki* egiñak daudelako. Egokitasuna da, beraz, edertasunaren izatea; arte-lanaren zatiak, egoki tajutuak egotea.

\* 0 \*

Noiz esaten degu, ordea, gauzak *egoki tajutuak* daudela?

—Antziñako Filosofoak ziotenez, bi gauza, bi egoera dira *egokhasun* orren oñarriak: 1) *ugaritasuna*, eta 2) *batasuna* (alkartasuna, armonia).

Ikus dezagun: kantu batek bi edo iru nota besterik ez baditu, eta beti berdin kantatzen bada, aspertu egiten gaitu: *monotono* dala esaten degu. Lauki-kuadro batean, berriz, margo asko ikusten ditugunean, geiago gustatzen zaigu; laukia margo bakarrekoa danean, *monokromo* dala esaten degu.



Nota ugariak edertzen dute kantua; margo ugariak edertzen dute lauki-kuadroa.

Itz bitan : ugaritasuna edertasunaren oñarri bat da.

\* \* \*

Kantu batean, notak nolana banatuak daudenean, etzaigu gustatzen kantu ura; *inarmoniko* dala esaten degu. Lauki batean, margoak, koloreak nolana ipiñiak daudenean, etzaigu gustatzen lauki ura.

Gustatuko bazaigu, margo bakoitzak eta nota bakoitzak bere aldamenekoarekin ondo etorri bear du.

*Armonia*, alkartasuna, batasuna, berdintasuna, esaten zaio gustozko egoera orri.

Armonia ere, edertasunaren oñarri bat da : bigarren oñarria.

Bi oñarri oiek —ugaritasuna ta armonia, alegia— Arte bakoitzean, bakoitza bere erara arkitzen dira: Musikan notak izango dira ugari ta armonikoak; Dantzan, pausoak, urratsak; Arkitekturan, etxe-fatxadako ate ta ieioen lerroak. Eta ola beste gañerako Arteetan.

\* \* \*

Orain, antziñako Filosofoak eskatzen zuten Armoniaren osagarri, ba degu guk, euskeraz askotan aijpatzen degun esaera bat: "Gauzak argi ta garbi".

"Argi", ez illun, alegia; "garbi", ez naasi. Gauza illuna danean edo illun dagonean, ezin esan bait diteke ederra danik edo ederki dagonik. Berdin baita, gauza naasia danean edo naasi dagonean ere, ezin esan diteke ederra danik edo ederki dagonik.

Argitasuna eta garbitasuna, Edertasunaren baldintza-kondizio dira. Bear-bearreko baldintzak, Eta bi oiekin batean, neurria, neurritasuna.

Eder-lanetan, gauzak argi ageri bear dute, ez illun; eta garbi —berezi— elkarrekin naasi gabe, bakoitza bere lekuan berezi; eta ala berean, neurrian —ez aundi izugarri, ez txiki farragarri; kantak dion bezela:

Ez da ttiki, ez da aundi;  
bai bien arteko.

Ugaritasuna ta batasunaz gaiñera argitasuna, eta garbitasuna, eta neurritasuna —berriz esanda ere— lan ederraren baldintza-kondizio dira.

Atenas'ko "Partenon", iru baldintza oien eredu.

## ARKITEKTURA - ETXEGINTZA

GREZIA'N ELIZA

Greziá, munduan ezagutu dan Erririk arte-zaleena.

Ar dezagun grekoen Arkitekturaren eredutzat, Atenas'ko "Partenon" Eliza. Aztertu dezagun.

Dana, lerro zuzen da. Ez du uztai-lerrorik, ez du arkurik.

Daná, lerro zuzen: lerro *zut* (ormak eta pillareak); lerro *etzan* (frontizako atalburua); lerro *ixuri* (tellatuak).

Lerro oiek naastuaz, *'laukiak* eta *irukiak* sortzen ditu (*laukia*, sarre-rako atea; *irukia*, etxe-frontizako motxoloa).

\* \* \*

Aurea eta atzea eta alderdi biak, danak pillarez ditu (arrizko zutabe) pillare eder, gore ta lodian ondo neurtuak: ez luze-luze, ez lodidodi.

Sarrerako atea, erlaizpean, atalburu etzanean, arkitrabe.

Barruan, goia dana, berdin; ez bobeda-sapai, ez kupula, kosko-erdi; dana berdin, zabal; troxuka; azpil-antza...

Ikustez egiten duan sentimena, sendotasun ta grazi sentimena da; lerro zuzenez, sendotasuna; pillarez, grazia... Dana neurri-neurri, begientzat atsegingarri.

(Tellatu-aldeko motxoloak, gure baserrien antza eimaten dio).

Pillare edo zutabe bakoitzak, iru zati ditu: gerria, goiburua (burutea) eta oiñarria (oiñarria, ez beti).

Pillare-gerria, zugatz-gerria iduri, zunbilla, biribilla izan oi da (bi-

ribilla ez baño ertzduna danean, "pilastra" deritza). Aldiz-aldiz, goitik beera, marradana izan oi da ; geienezan, ordea, azal-leun.

Pillarearen *burute goiburuak*, iru eratakoak izan oi dira: *dorikoa*, *jonikoa*, eta *korintioa*.

Pillareak, gerriaren bukaeran, moldura bat izan oi du : *lepoa*. Eta lepogañean dioa pillarearen goiburu edo burutea.

Pillare dorikoaren burutea, disko-antzekoa izan oi da, disko leun soilla.

Goiburu jonikoak, burute kiribillatua izan oi du.

Eta goiburu korintioak, akanto-orritz eta kimu kiribillatuzko burute aipaña, lore-saskia iduri.

Pillare-ordez iñoiz ikusi oi dira, *kariatide* deritzaten irudiak ere, emakume-irudiak, alegia, zutik, buru-gañean kornizari eusten diotela. Emakumeak ez baño, gizasemeak diranean, *ailanteak* esaten bait zaie.

Eliz-aurreak, pillare-gañean korniza izan oi du (lerro *etzana*). Eta kornizak eta tellatuaren bi ixuriak, *iruki* bat egiten dute; eta irukiaren erdian rinpanoan errielebeak ipintzen dira, zenbait gertakari ta ipui itxu. ratuaz.

Eta guzti orren osagarri ta altxagarri, Elizaren inguru guztian eski-leradi luze ta zabalak izan oi dira.

## ARKITEKTURA

### ERROMATARREN ARTEAN

Erromatarrak, grekoen. lerro zuzenezko Arkitekturari, beste gai bat erantsi zioten: arkoa, uztai-erdia, etxe-aurretan; eta arkoarekin batean, EUz-barru goietan bobeda-sapa^a eta kupula biribilla.

Grekoen lerro zuzenezko Elizak, bizi-bizirik arkitzen ditugu gaur oraindik Erroma'ko Forum'go ondakin-arteon (pillare gore egokiak, eta korniza zuzen ondo neurtuak...); eta eunka ta eunka arku apain "Kolo-seum" anfiteatroan; eta bobeda ta kupula-erdi bikaiñak Palatino'ko Ba-

silikaetan; bañan, batez ere kupula biribil arrigarria (42 metro diametro) "Panteon" deritzan Elizan.

Gai berri oiekin —uztai-erdi eta bobeda ta kupulakin— edertasun aundia erantsi zioten erromatarrak grakoen Arkitekturari.


Arkuak, aipaingarriz gañera, zubiak egiten erabilli zuten batez ere erromatarrak, eta urak errietara ekartzeko urarkak egiten. Erromatarrak egindakoak ditugu emen oietan, besteak beste, Alkantarako zubia eta Segobia'ko urarkadi ederra.

### BIZANTZIOTARRA

Bizantzio-Konstantinopla'ko Arkitekturaren tasunik nabanmenena, Elizaren planta da: Gurutze-greko-planta. Gurutze latinoa, gurutze luzea da; ba du buru, ba du gorputz, ba du oñalde, ba ditu bi beso. Gurutze grekoa ez da luzea; lau aldetara berdiña da; dana beso: lau beso berdin. Eredua, Komstantinopla'ko —gaurko Estantbul'ko— Santa Sofia. Laukia da, eta daukiaren gañean izugarrizko kupula, 31 metro diametro dituana (Erroma'ko Panteon'goak, 42 ditu).

EHz-planta gurutze-beso-berdiñekoa, Italia'ra eta Espaiña'ra ere irixi zan. Espaiña'n EHz-planta oni *bisigotikoa* esaten zaio; Italia'n (Ravenan-ta) *bizantino* deritza.

Bizantzio'ko Artearen kupulak gero ta gero ere iraun du lurralde aietan; eta gaur Errusi-aldean arte ori ainbeste ta ainbeste tipula-antzeko kupuletan agertzen da.



### ARABEEN ARTEAN

Arabeen Arkitektura, begiratu batera, geiena nabarmentzen duana, ate eta leioetako zaldi-perra itxurazko arku-uztai-erdia da.

Arabiarrek, zaldi-perrazko arkuak etzuten berak sortu; leendik erabiltzen zuten bisigotiko-garaiko arkitektoak; bañan arabeak asko ta asko zabaldu eta edertu zuten beren Mezquita-Elizetan.

Arte ontako eredua, Kordoba'ko Mezquita da, gaur Katedral biurtua. Mezkitaren pillaretegi perra-arkoduna, gaur Katedralaren Elizpea da. Granada'ko Alhambra deritzan Errege-Jauregia ere, arabe-arkitekturaren eredu bikaña da.

## BISIGOTIKO-PRERROMANIKO

Euskalerriko lenengo Elizak, Koba-Elizak izan ziran. *Koba* edo *ar~tzulo*, edo *arpe* edo *aspe* (erderaz *cueva* edo *caba*).

Araba-aldean *gobeak* esan oi diete.

Ba dira koba jatorrak, eta ba dira "artezkoak", eskuz egiñak.

Araba-lurrean —Trebiño'n eta Valdegobia'n— artezko kobeak ausarki ikusten dira; eta aietan batzuek, garbi-garbi, Eliza izandakoak, bisigotiko garaian, VIII gizaldia baño leenago; (San Benito, V gizaldian, Nursia'n, "monje" izan baño leen "ermitaño" izandako Ermitaen antz-antzekoak).

Arteztoko koba oietaz gañera, Euskalerrri guztian Santu-izeneko koba jatorrak ere ausarki ba ditugu, Artezko Koba-Elizak bezelaxe, berak ere, garai artan, Elizak izandakoak: Santimamiñe, adibidez, Bizkai'an, eta San Adrian eta Sandailli Gipuzkoa'n, eta San Roman eta San Killiz Araba'n...

Nolanai dala, guri dagokigunez, guk emen "Artezko Kobak" aipatuko ditugu.

\* \* \*

Irurogeita amarretan gora dira Trebiño'n eta Valdegobia'n olako koba, eskuz egiñak; eta oietan amar-amabik Eliz-egitura jatorra dute; arkaitzean egiñak dira, barruan Egutera-aldean, arkaitzean, Aldare-nitxo jatorra dutelarik, eta lurrean, ill-obiak, eta alde batean, "fader" ermitañoa bizi izandako gelatxo... Eta zenbait lekutan Bataio-Pontea etab. gañera... Ermitak, Elizatxo jator-jatorrak.

Koba, arkaitzean errex egiña; arkaitza bera ondar-arria bait da, atxur-antzeko zerbaitekin errex zulatzekoa...

Ikusi dituzten Arkeologoak, zalantzarik gabe, Eliza bisigotikotzat, pre-romanikotzat jo dituzte.

Gaur leengo Eliz-izatea galdurik daukate geienak; batzuek ba dute oraindik Santu-izen (Santorkaria, San Julian); eta ba da bat, Faido'n, Andra Mari'ren Ermita bilakatzen dana, benetan ikusgarria...

## MOZARABE ETA ERROMANIKOA

Erromanikoa, bisigotikoaren ondorengo Arkitektura da.

Bion bitertean izan zan, baita, *Mozarabe* deritzan estiloa ere, berak ere zaldi-perra-arkoa erabili zuana.

Eta Gipuzkoa'n ba degu, estilo ontako eredu bat, Astigarribia'n; dala mozarabe, dala bisigotiko, nolanai dala, Erromaniko jatorra baño zaaragoa. Astigarribia'ko Elizak leio bat du zaldi-perrazkoa bere abside-absidean: zaldi-perra estu-estuzkoa.

Antziña, Euskalerra izandako Errioxa'n, Kogolla'ko "San Millan" Monastegiko Eliza ere, olako zaldi-jperradun Eliza da: antziña-antziña-ko koba-Ermita estaltzen duan Eliza bisigotikoa. Garai berekoak dira bai. ta —zaldi-perrazko arkurik gabekoak ezik— leen aipatu dituzun Araba-Trebiño'n, antziñako Ermitañoen bizileku izandako koba eskuz egiñak, bai Laño'n, bai Faido'n, bai Pinedo'n, bai Korro'n.

\* \* \*

Bisigotiko ta Mozarabearen ondorengo Eliza Erromaniko jatorrak ugari dauzkagu Araba'n; baita aundi ederrak Nafarroa'n ere. Estilo onen eredutzat guk artu dezakegu, naiz Estibaliz'ko Elizatxoa, naiz Armentia'koa.

Estiloaren tasunik ezagunenak oetxek dira :

Elizaren planta, Gurutze latinoak;

buruan, abside biribilla;

goian bobeda-sapaia, asieran gurutzetu gabea, gero gurutzetua;

ormak, lodi;

leioak, estu, txiki, arku jatordun; askotan arku bat bestearen barruan;

atea, arkibolta askoz inbutu-antzera eratu, (Ernani'n ba degu olako bat, Monja Agustinaen Elizaren sarreran);

Elizak, kanpo-alde'tik errex ezagutze'koak dira; danbolin-antzeko absideak Elizari buru-alde'tik erantsiak izan oi dituzte...

Arkitektura "txukuna" benetan, Erromaniko-Arkitektura: Arkitek\* tura "bitxi"...

## GOTIKOA

Erromanikoaren ondorena da Gotikoa. (Erromanikoa, gure artean, XII, XIII gizaldikoa; Gotikoa, XIV, XV, XVI gizaldikoa).

Erromanikoa, Arkitektura "txukun, goxo"; Gotikoa, "aundi, arrigarrri" da.

Elizaren planta, Gotikoak, berez, Erromanikoaren antzekoa du: gurutze latinoa. (Gure artean Elizarik geienak gurutzetu gabeak ditugu).

Arkitektura gotikoaren ezaugarriak nabarmenena, ate ta leioetako uztai-erdi, arkuak da: Erromanikoan arkuak arku jatorra da, erabat bizkar-biribilla; Gotikoan arkuak, arku muturduna da, bizkar txorrotx.

Beste ezagugarria: Erromanikoak leioak, leio txikiak ditu; Gotikoak leio aundiak. (Gure artean, ez ain aundiak; bañan, berez, ileio luze goreak: saietseko ormaetan beetik gorañoak). Ormak berak, orma zabal ez baño, pilastra zutak, arkuz —arku zorrotzez— alkartuak. (Ikus, adigarri bezela, Donoistia'ko "Artzai Onaren" Eliza; berri samarra da, dana gotiko jatorraren neurrian orain irurogei urte egiña).

Torreak ere, zorrotzak.

Absidea ere, ez danbolin-antzeko biribilla, zortzi aldeduna baizik, dana ertz bizi.

Barruan, goiak, bobeda-sapai; arkutik arkura, zain gurutzetuak, tar tea tupa-arri ariñez berdindua. (Gure artean gero ta gero ere —XVI-XVII gizaldian ere— gotiko-erako bobedak egiten dira. Ikus Ernani'ko Elizan. Zañak, zain gurutzetuak, ugariak).

Arkitektura Gotikoak ira aldi izan zituan, gero ta apañagoak; irugarrena, batez ere "Gotiko loratua" deritzana. Irugarren onek leertzerano alegeñak egin zituan, Gotikoaren berezko laztasuna gozaten, arku gotikoaren bizkar zorrotza amustuaz, eta konope-arkua sortuaz. (Gure artean gotiko jatorrekoa da San Bizente Donostia'ko Eliza; eta irugarren garaikoa San Telmo'rena. Sapaletako zañetan azaltzen da, batez ere, irugarren aldiko apaindu-gogo aundia).

## ERRENAZIMENTUA

Irugarren aldiko Gotikoaren ondoren, Itaslia'tik Errenazimentua etorri zitzaigun.

Errenazimentuko Arkitektura, Erroma'ko Arkitektura zaarrera berriro itzultzea izan zan: Arkitektura zaarraren "bir-jaiotzea", *renacimiento*.

Erromaniko eta Gotiko-garaian, Erroma'ko Arkitektura zaarra baztarturik egon zan, XV gizaldira arte. XV gizaldiaren erdi-aldean etorri zan, artistaen artean, Erroma'ko eta Grezia'ko edertasunak berritu-naia.

Errenazimentuko Arkitekturak Erroma'ko Arkitekturatik iru gauza artzen ditu batez ere: *arku jatorra*, etxe-aurretarako; eta *bobeda* ta *kupula jatorrak*, *artesonatuarekhi* batean, sajpaietarako. Eta, iru gai oiek, grezitarren lerro zuzenarekin neurri ederrean naasirik, arrigarrizko Eliz eta Jauregiak egin zituan Errenazimentuak mundu guztian zear.

Errenazimentua gure artean, "plateresko" deritzan estiloan, Oñati'n azaldu zitzaigun ederkitxo: Unibertsidadeko etxe-aurre apain-apañean. Eta Errenazimentu jator bezela, Unibertsidadeko Klaustroan, eta berdin, baita, Donostia'ko San Telmo'ko Klaustroan.

Arkitektura plateresko bera azaltzen zaigu, baita, Elizetako Aldareen Arkitekturaren ere: pillare apain, nitxo, nitxo-buru txirladun, atalburu etzan etab. etabarretan. Ikusgarriak dira, benetan, Oñati'ko Unibertsidadeko Aldarea, eta Oñati bereko Eliza Nagusian dagon "Unibertsidadekoa" deritzan aldare bikain, apaña; eta berdin baita Bergara'ko San Pedro Elizako Aldare Nagusia etab. etab.

#### ERKOMANISMOA

Platereskoaren ondoren, Euskalerrian, "Erromanismoa" etorri zan: Errenazimenduaren egoera berri bat. Leenagoko Platereskoaren apain-egarririk gabea alde batetik, eta geroko Barrokoaren apain-zorabiorik gabea bestetik.

Erromanismoak, Eskulturaren Antxieta bat izan zuan Maisu aundi. Arkitekturaren asko ta asko, ez txiki. Eta oiek, gure Elizetako Erretauloetan utzi zizkiguten beren Arkitekturazko ezaugarri-ereduak.

Erretaulook, Jauregi apain baten etxe-aurreak bait dirudite: dana ate ta leio, leio ta ate; eta ate bakoitzean Santu-iduri bat zutik; eta leio bakoitzean Santu-Historia bat. Donostia'ko San Bizente'ren Aldare Nagusi ederraren Erretauloa, adibidez. Apainduri geiegi gabe; bañan benetan gauza aberats. Arku ta pillare, jpillare ta arku. Arkuak, arku jator;



pillareak, neurri-neurriko : estriatxo bat, beste apaingarririk gabe. Atal-buruak, frontoe-antzerak: zein iruki-triangulo, zein arku beeratu...

## BARROICOA

Efrénazimentuko Arte txukuna ederragotu ta aberastu bearrez, Barrokoaren ausartasun geiegiak etorri ziran, XVII-XVIII gizaldian.

Ordukoak ditugu, gure artean egindako Arkitektura-lanik geienak.

Barrokoaren geiegikeriak zenbait gauzetan agertzen zaizkigu batez ere : leen arku osoa zegon lekuan, orain arku puskatua, bi erdi egiña; leen iruki-triangulo osoa zegon lekuan, orain iruki puskatua, goi-aldeko muturra bi erdi egiña; leen pillare zuzena zan lekuan, orain pillare biurritua, "salocnonikoa" esaten zaiona; leen pillare edo pilastrak kapitela, burute bat zuan lekuan, orain bi edo iru kapitela elkarren gañean; etab. etab. Pillareak gañera lorez edo landarez apainduak; pillare biurrituak maats-ayenez apainduak; loreak berak buruz gora egon bearrean, buruz behera; etab.

Arkitektura-ausart ta geiegi oiek, gure artean, Elizetako Aldare-ol-tzaetako Arkitekturan azaltzen dira.

## NEO-KLASIKO, GREKO-ROMANO

Barrokoaren "geiegien" kontra, XVIII gizaldi-azken-aldera, beste arte-era bat sortu zan: arte neurri-neurtua, arte serio-serioa : Neo-klasikoa edo Greko-romanoa esan zaiona.

Pillare aundi garbi-garbiak; grekoen antzeko lerro zuzenezko atalburu sendoak; erromatarren antzeko arku jatór garbiak. Dana garbi; lefrba besterik ez; apairigarririk bat ere gabe. (Gufe artean, Azpeitia'ko Eliz-atadia. Zarauz'ko Erriko-etxe Kontzejoa, Motriku'ko EHza, Beasain'go San Martin'en Basilika...).

## GAURKO ERA

Gaurko erari, "era eklektikoa" esaten zaio: estilo guztiak erabiltzen ditu; "guzitatik" egiten du. EHza txikiatarako, Erromanikoa erabili oi du; EHza aundiatarako, Gotikoa. ("Artzai Onaren" Eliza Donostia'n, Go.

tiko-antzera egiña da; Errera'ko San Luis'en Eliza txikia —orain botea— Romaniko-antzera egiña zan).

Azken-aldi ontan eredu berriak ere sortzen ari dira: "funcional"-kutsukoak.

#### EUSKO-BASERRIA

Bi baserri-era ditugu: bata, bi uretakoa, "motxoloan" esaten zaiona; eta bestea, dau uretakoa "agilloitan" deritzana.

Baserriak beti ere etxe-aurrea eguterara izaten du, eguzkiaren "atera-alder?".

Bee-aldeko ormak, arrizkoak izan oi dira, aurre ta atze ta saiets.

Bigarren bizitza, etxe aurrea, "koianda", "entramatu" arrillo ta egur, geienean egurra agerian, eta arrilloa, naiz agerian, gorri-gorri, naiz zarpeatua. Ezker-eskui bi leeio aundi, atea erdian, sala aretokoak. Goiko ganbaran, bururen-buruko balkoi, sapailloa; atea erdian. Gorago, utsunea, aize bide, barruko artoak-eta, aizetan el ditezen.

Sukaldea, leen, askotan, eskaratzean, sotoan, alde batean, leioa etxelurrera zuala. Beste aldean, ganadu-jatenak pillatzeko otaska edo lur garbia.

Atze-aldean, ganadu-ikulluak.

Gaur sukaldea goian. Goian baita, gelak eta sala, areto-gizategia.

Gorago, ganbara, eta batzutan baindia, gurdiak ere ganbarara sartzeko eran.

\* \* \*

Tellatuaren ixuriak, Eu'skalerririk gienean, ixuri patxarakoak izan oi dira. Pirene-aldean, ordea, ixuri bizkorragoak, eta tellak berak arlo-sazkoak, ©lur-garaian elurra azkar irrixta dedin.

Artzai-baserriak, beti ere zabalagoak izan oi dira, neguan ardiak etxean gohernatzeko; nekazari-baserriak, berriz, jasoagoak, arto eta b barrun eta gariak goiko ganbaran eukitzeko.

ARTE EDER  
 ARTE EDER ESTATIKO  
 ESKULTURA - PINTURA

## I IKASGAIA

## ONARRI-ITZAK

Eskulturak, pertsonaen antz-irudiak egiten ditu, batez ere.

Pinturak ere, berdin.

Pertsonaen eta "gauzaen" antz-irudiak.

Biok, Arte ederrak dira. Arte Eder "Estatikoak" "Plastikoak". (Bai bait dira Arte Eder "Dinamikoak" ere; gauza ederrak "ibillian" egiten dúuztenak: Dantza, Musika, Bertsolaritza...). Estatikoak, gauza ederrak "egonean" egiten dituzte: Arkitektura, Eskultura, Pintura.

Arkitektura, leendik aipatua degu.

■ \* \*

Gizona bere izatez egi-zale dan bezela, neurri berean "eder-zale" da —areago ez bada—. Eta ari berean, baita "Arteeder-zale" ere. Eskultura-zale eta Pintura-zale.

Gizona, aspaldi-aspaldidanik —*asieratik*, esango genduke— Pintura-zale azaltzen zaigu. Orain zortzi-amar milla urteko Santimamiñeko kobako marrazkiak, testigu. Eta berdin, baita, Altxerri'koak ere, eta Ekain' goak; eta, areago bear bada, gure auzoko Altamira'koak. Bide beretik ikusten degu gertatzen dala umetxoekin ere: burua pixka bat argitzen asten zaien bezain ilaister, asten dirala umeak "marrazkiak" egiten, txiki-txikitandik, biziaren *asierañk*.

Gauza bera gertatzen bait da Eskulturarekin ere: Ixturitz'ko kobae-tako gizona, Eskultore azaltzen zaigu, Pintorez gañera; eta umeak berak ere edozer itxurako gauzetan bereala asten dira giza-iduriak-eta ikusten, eta buztiñez-ta giza-irudiak egiten.

Oso berezkoa du, bai, gizonak, Arte Ederretan "artista" izatea.

Bañan gauza au, beste pixka bat sakontzeko, ikus dezagun, zertarako egiten dituan gizonak bere pintura ta eskultura-lanak.

Nolanai dala, bere barruko eder-egarriari ase-aldi bat emateko.

Bañan, ortaz gañera, beste "zertarako" batzuek ere azaltzen bait dira gai ontan. Eta oietan bat, Etnologoak kobaetako marrazkietaz esaten dutena. Eizan arraipatu nai duan piztia marrazkitzen du gizon neolitikok, eta fletxaz zauritua marrazldtu ere. Etnologoek iritziz, Majiazko rito bat egiten du gizon neolitikoak —orain amar-amabi milla urteko gizonak— marrazki oiek kobako ormaetan egitean: eizatu nai duan animali piztia marrazkitu oi du, eta azkon-fletxaz zauritua marrazkitu ere; zertarako? eizara dijoanean, animalia ura berak bere fletxaz zauritu dezan. Elburu protxugarriá.

Majia-kutsurik gabe, antziña-antziñako Ejiptoar eta Grekoen Eliza ederretako eskultura-lanak, berriz, eder-egarria ase bearrez gañera, beste elburu bat ere izan oi zuten —bai ango antz-irudi-imajiñak, bai erre-liebe-historiak—: Ejipto'n Faraon-jendearen betiko oroigarri izatea, eta Grezia'n Erriaren Jainko eta Gizaguren-beroen Misterio ta egite arrigarrak gogoraztea. Estetika-elburuá.

#### TEKNIKA-APUR

Gañerakoan esan dezagun, Pintura-lana margoz eta marraz egiten dala —margoz, kolorez, eta marraz, ariz-lineaz— Exkultura-lana, berriz, plastikoz, dala buzúñez, dala arriz, dala egurrez...

Plastikoen bidez, gauzaren beraren izaera osoa "berritzen" degu, bere luze-zabal-sakonean, bere iru alderdietan.

Marraren eta margoaren bidez, berriz, gauzaren ertzak antz-iruditzen ditugu; eta, ertzak marratuaz gañera, gauzaren gorputza margoztu, koloretu; bañan, batez ere illun-argiaren eta txuri-beltzaren bidez, gorputzafen itzalak antz-irudituaz, gauzaren lodia —iru alderdiak— antz-iruditu. Itz bitan, Pintura, Eskulturaren antzekotu.

Bañan ortaz gañera, Pinturan eta Eskulturaren —Errelibean— ba da beste problema bat ere, garrantzi aundikoa: "perspektiba" deritzana al-

de-urrutiaren problenna. Pinturak gauzak, urrutiago-ta txiki ta axalago egiñaz, askatzen bait du problema ori. Eta berdintsu Eskulturak ere Erreliebetan.

## II IKASGAIA

### ARTEAREN PROBLEMATIKA

Eskulturak eta Pinturak, gauzaen antz-irudiak egin oi dituzte.

Antz-irudiak egiteko bidean, ordea, malla asko dira: antz aundiago, antz gutxiago : malla asko.

Antz- aundiagoko arte-lanai, "errealista" esaten zaie; antz gutxiagokoai, berriz, "abstrakto", lan abstraktoak.

Arte-zale batzuek naiago bait dute, antz aundikoa baño —detalle askokoa baño— detalle gutxikoa, gañerakoan arte-indar aundiagoa izanezkeru.

Ortatik isortu da Artearen soro-alorrean proMematika garratz bat: gaur dan egunean, asko ta asko artista, oso abstrakzio-zaleak azaltzen zaizkigula. Leengo artistak, bear bada, errealistago izanak ditugu, egi-azkoago, antz-aundi-zaleagoak; oraingo asko ta asko, extpresio-zaleago, arte-indar-aundi-zaleagoak.

Gure artean, gaur oso ezagunak dira mundu guzian, gai ontan, Oteitza bat, eta Txillida bat, eta Basterretxea bat, Eskulturaren alorrean. Zuloaga bat, berriz, orain berrogeitamar urte, Pinturaren alorrean oso errea. lista bortitz eta sendoa izan genduan, ezaguna bera ere mundu guztian.

\*, \* \*

Problema au ez da orain oraingoa. Prehistorian ere ba zan.

Gure Santimamiñeko artistak, eta berdin, baita, Altzerri'ko ta Ekain'goak ere, oso errealistak izan genituan; eta aiekin batean, gure auzO' diran Altamira'ko artista arrigarriak ere: gauzak —basauntz eta basai-diak— antzarik aundienekoak egitea atsegin aundi zutenak. Magdalenien-se deritzan garaikoak ziran artista aiek. Bañan izan zan gero beste aldi bat, eta aldi artan, Espaiña'ko Sortalde-inguruetan —Almeria-aldean— bizi izan ziran artistak, beren irudiak askoz ere abstraktuago egin oi zituzten; abstraktuago, edo-ta, leen esaten zanez, "estilizatuago". Gizona-

ren irudia, adibidez, aiek gurutze bat egin oi zuten, gurutze "latino", bi lerro gurutzetu xume-xume; zuta, zearra baño luzeago; emakume bat, bear bada, bi lerro gurutzetu eta, oin-aldean, kurpil-lerro bat oiñarri...

Gusti ontan gertatzen dana, beste gauza bat da: gizona, artearen soroan, beti ere "ibilli dabilela", ez dagola bein ere "egonean". Eta, leen errealista bazan, gero estilizatu-zale egiten dala; eta, alderantzira, leen estilizatu-zale baldin bazan, gero errealista; leen abstrakzio-zale bazan, gero "figuratibo"...

## DIGRESIO

OLERKI "ABSTRAKTOA"

Eta, arritzeko gauza, Eskulturan eta Pinturan gertatzen dan gauza bera, gertatzen dala Olerkaritzan ere, Poesian ere. Gaur Poesiak ere, abstrakzioaren bidetik ibilli nai luke. Bañan ori ere ez bait da, gaur arte iñun entsaiatu gabeko bidea. Gure antzin-antziñako Kopladian ba ditugu guk olako olerki abstraktozko eredu, jakingarri askoak. Oso gauza interesgarriak.

\* \* \*

Leendik esanik daukat mik nere "Literatura Oral Euskerica" liburuan, nola ditugun olako abstrakziozko Poematxoak gure Aozko Literaturan —"*Poesiia decorativa*" esaten bait diet an: "Olerki Apaingarria", ailegia—: "Ttunku-rrunku, ttunku-ttunku" seaska-kantarena, adibidez; eta "Tti-ttibili-ttibili-tti" Irun'go San Martxiel'ena; eta "Xirríxti-mirríxti" bazkari xurrarena, etab. etab. (Azkenengo ontatik artu bait du, ain xuxen, gaurko gure Teatrozale-Bazkun batek. "Ikimilikiliklik" izen polita beretzat).

Ikus dezagun oietaúk bat edo beste, bere metrika jatorraren barruan.

TTUNKU-RRUNKU

Ttunku-/-rrunku/ ttunku-/-ttunku  
 ttunku-/-rrunku / ttuna;  
 runku-/-ttunku / ttunku-/-ttunku  
 runku-/-ttunku / ttuna.

Edo-ta, alderantzira:

Ttiki-/rriki / ttiki-/ttiki  
 ttiki-/rriki-/ttona;  
 riki-/ttiki / ttiki-/ttiki  
 riki-/ttiki-/ttona.

TTITTIBILI-TTI

Tti-/ttibili / ttibili-/tti  
 tti-/ttibili / ttibili-/tti  
 tti-/ttibili-/ ttibili-/tti  
 tti-/ttibili / ttibili-/tti  
 Gure Saanartxiel! Txanponeko domina! (bis).

**XIRRIXTI-MIRRIXTI**

Xirrixti-/mirrixti / gerrena / plat,  
 olio-/zopa / kikili-/salda  
 urrup e-/dan edo / klik:  
 ikimi-/li kili-/klik.

Olako geiago ta geiago ikus bait litezke nolana.

## ESKULTURA ETA PINTURA

### III IKASGAIA

#### ERROMANIKO-GOTIKOAREN PROBLEMATIKA

Uki dezagun gaur, Eskulturaren eta Pinturaren beste problematika bat.

Artea ez dago iñoz ere "egonean"; beti ibillian dabil, edota "joanean dijoa". Grekotik eta Erromatarretik Bizantinora igaro zan (gure artean Bisigoúkora); eta Bisigotikotik Erromanikora; eta gero Erromanikotik Gotikora.

Ikusi dezagun nolako pausu ta urratsez egin ziran "ibilli" oiek; Erromanikotik Gotikora batez ere. (Bis^gotikotik eta greko' ta erromatarretik, gure artean gutxi bait degu; bañan gotiko ta erromanikotik zerbait geiago).

Nolako pansuz egin zan erromanikotik gptikorako aldaketa ori? zer señale pausu oienik utzi digu gure arteko Arteak? nola ezagutuko ditugu ibilli oien jpausuak gure Arkeologian, gure Elizetako arte-lanetan, batez ere? nola-ezagutuko?

Orra, gaur ikutu nai degun problematika.

Hs ^s sH

Asi gaitezen gure arteko Amabirjiñaen irudietatik. Eta esan dezagun lenengo, naiz errómaniko iiaiz gOtiko, gure Amabirjiñaen irudiak irudi "eseriak" diraila eta egoeraz eseriak (gotikoaren azken-aldera, zutikoak ezik).

Bañan beti ere, Erromanikotik Gotikora, bide au ikusten degu egiten duala Arteak Ama Birjiñaren irudietan: Erromanikoan Amaren gorputza, garbi-garbi, gorputz gerriera, gorputz zuta da, goitik beera zuzena; Gotikoan, alderantzira, gofputzak, ezker-eskui ibilli zerbait egin du.

Norbaitek esan bait zuan, eta ondo esan ere, Erromanikoan Amabirjiña, "ama" baño areago Seme Erregearen "errege-aulkia", tronoa, dala. Orregatik Erromaniko jatorrean Aurra Amaren altzoan^ erdi-erdian ageri oi da. Sinbolo bat bait dago guzti ortan: Jesus'en Erregetzaren sinboloa.

[Egia da, zenbait erronianiko-iduritan Aurra ezkerreko belaun-gañean ere azaltzen dala^ikus Najera'koa); bañan ori bereizkuntzaz bezela gertatu oi da, irudirik ederrenetan eta artez aurreratuagoetan (gero ikusiko bait degu zergatik eta nola). Erromanikoan arruntean, Aurra erdian azaltzen da; Jesus, Errege da; ata Amabirjiña, Erregeren Aulkia, Tronoa].

Gotikoan, ordea, Amabirjiña "ama" biurtzen zaigu; eta Jesus, "seme"; iñoiz amarekin jostaketan : nolanai dala, Aurra ezkerreko belaun-gañean.

Azken-aldera, Ama, bere Aurra besoan daramala zutik azaltzen bait zaigu.



## SIMETRIA

Bide orri jarraituaz, beste detalle bat arkituko degu; gorputza zut euki bearraren euki-bearrez, gorputzaren zati guztiak "simetrikoko" dardela; ezker-eskuiak, biok berdin: bai gorputz-zatiak, bai soñeko jantziak ere: dala tunika-atorra, dala soin-gañekoa, dana simetrikoko; bi belaunak bezela, baita bi besoak ere, elkarren pare-parean; eta oñetako zapatatxoak ere berdin; eta soñeko jantzien toles-ertzak ere bai toles-jokurik politenak zapata-gañean egiñaz (ikus Najera'koa).

Eta, ari berari jarraituaz, simetri-bideari jarraituaz, alegia, beste gauza bat ere arkitzen degu, Pintura Erromanikoan batez ere, irudiaren toles-errenkada guztiak, elkarrekin iparaleloak dirala: milla ta milla linea errenkada, eta danak paraleloak elkarrekin.

Eta beste detalle bat geiago: jantzia, oso gorputzari lotua, erantsia, batez ere gerriuk belaun, iztar eta berne-alldera; alderdi oiek oso nabarmen markatuak, erropa bustia balego bezela, gorputzari erantsia... (ikus Najera, eta San Migel Aralarkoa).

## SINBOLOAK ETA EZ-NEUUKITASUNA

Beste gauza, oso aipagarria; Arte Erromanikoa, oso sinbolo-zale, oso Sinboloari atxikia agertzen zaigula.

Amabirjiñak Aurra magal-erdi-erdian eukitzea —Erregea tronoan iduri— Jesus Erregeren "sinboloa" dala esan degu.

Beste sinbolo geiago ere ikusten da Erroimanikoan. Askotan ikusten bait degu, Erromanikoaren iduriak neurritasun gutxikoak dirala, proportzio gutxikoak: burua batez ere, eta aldiaren bein baita eskua ere, oso aundiak dituztela, gañerako guztiaren aldean biziro aundiak. Neurritasunik-eza, desproporzioa esaten bait zaio izaera orri. Neurritasunik-ez ori, ordea, ez bait da, konturatzeke —konturatu gabez edo ez-jakiñez— gertatzen dan gauza Erromanikoan; estiloz egindako gauza baizik, estiloaren ala-bearrez: itz bitan: sinboloz. Buru aundia, erromanikoarentzat, nortasun aundiaren sinboloa da: nortasun aundia esan nai du; eta, ala bereañ, eskui-esku luzeak, aalmen aundia: Jaunaren nortasun eta aalmen aundia: aunditasunaren sinboloak.

ifi \$?> %

[Neurritzasuna —proporzioa— elkarrekiko neurritzasuna, Grezia'ko eta Erroma'ko artistaentzat, beren Artearen lege berezi-berezia zan. "Olako zabaleroari, olako gorea; onenbesteko gorputzari, onenbesteko burua; berdin, onenbesteko buruari, onenbesteko gorputza: gorputzaren luzea, bederatzi buru". Ori zan orduan edertasunaren kanona, neurria. Eta neurri ortara irixten etzana, "motza" zan (ots! itsusia); eta neurri ortatik gora igotzen zana, "luzea", "kankailla", "giralla", salbo-ta Altzo'-ko aundia bezela. Bion bitarteko gizon "egokia", bederatzi buru neurtzen dituan gorputza duana da. Ez motz, ez luze ; gorputz egokia.

Erroma'ko eta Grezia'ko arte-zaleak ondo zaitu ta bete zuten neurri ori.

Erromaniko arte-zaleen artean, ordea, neurri ori ez da zaitu, ez da gorde; eta, esan degu, ez oartzeke, ez konturatu gabez; ez, ez-jakinez; sinbolo-bide bezela, baizik].

#### IRRIFAKRAKEN PROBLEMA

Beste gauza bat, Amabirjin erromanikoetan ikusten dana, Amabirjiñaren beraren "seriostasuna" da. Amabirjiña erromanikoak, gotikoen aldean, oso "seriosak" dira; gotikoak, alderantzira, farramurritz gozoa dariote ezpain-artetik; batzuek modu batera, besteak bestera; bañan danak irrifar. Ikusi besterik ez dago, Orriaga'ko Amabirjiña gotikoaren aurpegi irritsu ta ari\*aia; eta aren ondoan, Tudela'ko arrizko Amabirjin erromanikoaren seriostasuna.

Farramurritza, Gotikoko eskultore-jendearentzat problema urduri-urduria zan: nola, batez ere Andre Mariaren irudiak, farramurritzdun irrifardun egingo. Bañan, arritzeko gauza: Irun'go Santa Maria, eta Itziar'ko Andre Maria, biok erromanikoak izan arren, Irun'goa oso seriosa dala, bañan Iziar'koa farramurritzduna.

Bañan leentxuago esan degu, zer gertatzen dan, zenbait izen aundiko irudikin; izen aundiaren izen aundiz, artez aurreragotuak izan oi di-iala; ots! Erromaniko-garaian bertan, gotiko-kutsua artzen dutela askotan. Ori gertatzen bait da Najera'ko Andre Maria'rekin: gorputzaren egitura guztian erromaniko agertzen dalarik, Aurra magal-erdian euki

bearrean, ezkerreko belaun-gañean daukala, egoera progresista "aurrera-tuan", egoera gotikoan...

Itziar'koarekin ere gauza bera gertatzen bait da; gorputza, dana, erromaniko-erromaniko duala, eta Aurra erdian, bañan ala ere ezpañetatik irrifar, farramurriz gotiko-gotikoa dariola...

TOLES-JOKU KONBENTZIONAL  
TOLES-JOKU JATOK

Bukatzeko, aipa dezagun, Erromanikotik Gotikora igarotzean iger-tzen dan beste alde aundia, jantziaren toles-jokuan.

Erromanikoan, jantziaren toles-jokua, sobera "konbentzionala" da; arrigarri aberatsa, abstrakzio-bidean arrigarri aberatsa; bañan konbentzional-konbentzionala, jatortasunik gabea...

Arte Erromanikoak "jantziaren tolesak ola *egin oi* dira, eta ola *egin bear* dira" esango du. Gotikoak, kontrara, ikusiaren gañean, "jantziaren tolesak *ola cUrt*^ dio. Eta, bide ortatik jarraituaz, toles-joku oparo, lasai, askatuak eman dizkigu.

Ikus, Orriaga'ko Andre Maria gotiko arrigarria; eta, alderantzira, ikus Aralar'ko esmaltezko erretaulan agertzen zaigun Andre Maria "sorta" —sorta eder, arrigarri, bañan sorta bil-bil egin—.

ITZ BITAN

Erromanikotik-Gotikorako problematika, Ama Birjiñari buruz, itz bitan eta besteak beste, ontan dago :

- 1) Erregintasunetik Amatasunerako problema;
- 2) Sinbolotik jatortasunera;
- 3) Ez-neurritzasunetik, neurritzasunera;
- 4) Seriotasunetik irrifarrera; eta
- 5) Jantzi estu-estutik, toles oparo askatura...

## DIGRESIO

## KOPLA GOTIKOAK

Gure arteko gotiko-garaiko giroa apur bat geiago osotzeko, gogora dezagun, gure kopladi zaarrean ba ditugula gotiko-usaia darioten koplak batzuek.

Gabonzarretan eta Santa Agedatan, etxerik-etxe errondan dabiltzan gazteak kanta oi dituzte olako koplak.

Gotiko-garaiko Arkeologian gauza jakiña da, Elizako ta Ermitetako irudi Santuak, Amabirjiña bazan, buruko illea urreztatua izan oi zuala; eta Jauna edo Apostoluak baziran, illea ta bizarra urreztatua. Gure kopladian ba da koplak ezagun-ezagun bat, oitura orren neurri-neurrikoa.

Orroko or goien izarra ;  
errekaldean lizarra.  
Etxe ontako Nagusi Jaunak  
urre-gorritzko bizarra.

Aldareetako Santuak bezain ona dala, alegia, Aldareko Santuen pareko.

Gauza jakiña da, baita, Gotiko-garaiko zaldunak nolako armaduraz armatuta joan oi ziran gudara. Armadura ori aipatzen du beste koplak óñek:

Urre-gorritzko bizarra eta  
zillar zurizko sorbalda.  
Errial bikoz egiña dauka  
Elizarako galtzada.

Zillar zurizko "sorbalda" orrek, gudarako armadura gotiko apaña esan nai bait du.

Beste koplak batek, berriz, Etxekoandreaken sei gonak aipatzen ditu —Pazku-goizean soñean jantziko dituan sei gonak, Gotiko-garaiko Etxekoandre "zabalak" ain gogozko izan oi zituzten sedazko sei gonak...



paralelo-izaera: marratxo bakoitzak beste marratxo berdiña ageri duala aldamenean: paralelismoa.

Paralelismo bera azaltzen bait da gorputzaren saiets-kostilla-ezurretan ere, bi aldeetako simetria nabarjmenuaz. Ikus Labastida'ko eredu bikaiña Araba'n.

\* \* #

Dana-dala, Gurutze Santuaren gerruntzeko jantzi-ondarrak, Erromanikoan, bi eratará azaltzen dira.

Gurutze Santu batzuek gorputza, gerriera, zut dute; eta besteak, gorputza alde batera makotua, arkuari.

Gorputza zut dutenak, jantziak gorputzari erantsi-erantsiak ageri dituzte; ola batez ere Estella'ko Obi Santuko Elizakoak, eta Zizur'koak, erantsi eta simetrikoak. (Ikus Zizur'koa).

Gorputza arkuari dutenak, jantziak zintzillik, askatuagoak, eta luze ere, luzeagoak.

\* \* \*

Bukatzeko, Gurutze Santu Erromanikoak, beti ere "mayestatikoak" izan mai dute; oiñazerik gabekoak; gizon baño Jainko areago, alegia, Jainko Salbatzalle : beste sinboloa.

#### GURUTZE SANTU GOTIKOAK

Gurutze Santu Gotikoak, Erromanikoaren bideari jarraitzen diote zenbait gauzetan: batzuek gorputza zut, eta besteak arkuari dute.

Gorputza arkuari dutenak, gerruntzeko zapiak zintzillu, lasai-antza dituzte; oiñak gurutzetuak (Ikus Estella'koa-ta).

Gorputza zut dutenak, gerruntzeko zapiak urri, todes mee. Oiñak iñoiz, lau iltzekin, alkarren parean-par. Bañan askok, iru iltzekin, oin gurutzetuaren sinboloari jarrai. (Ikus Gasteiz'ko San Indefonso Elizatxokoa).

Zenbait aldiz, gorputza oso estilizatuá: ezur ta azal. (Ikus Aibar'koa eta Olite'ko Andre Maria Elizakoa).

\* \* \*

Gipuzkoa'n Gurutze Santu zutekoetan eredu, Lezo'ko izen aundikoa degu. Berezitasun arrigarri bat ere bai bait du: aurpegi bizarrík gabea, afeitatua izatea. Dana oso estilizatu. Saiets-ezurrak eta bular-aldea ia-ia erromaniko, simetríko nabarmen. Lezo'ko onen antzekoa, afeitatua, naiz-ta ez ain zaarra, Eibar'en Azitain'go Elizakoa degu Gipuzkoa'n.

Ganerakoan, EHza ta Ermita asko ta asko ditugu, olatsoko Gurutze Santu gotikoak dituztenak. Andoain'en Zumea'koa; Urnieta'n Azkorte'koa; Ernani'n Erríko Elizakoa; Ondarribia'n Kalbariokoa; Aduna'n Erríko Elizakoa; Alegria'n Erriko Elizakoa; Oyartzun'en *Salhatore* Ermitakoa etb. etb.

Gorputz-arkudun Gurutze Santuak ugari dira Araba'n eta Nafarroa'n; Gipuzkoa'n bat degu batez ere: Segura'ko Monja Frantziskotarren Elizako eder bikaña. Burua makur. Saietseko zauria odoletan. Begiak itxiak... Gizon "on ipuska", "on uts".

Erromanikoaren aldean ageri duan "jatortasuna" arren, Gotikoa beti ere gogor-antza, zurrun-antza egiten zaigu guri —bai jantzian, bai aurpegian— batez ere ondorengo Errenazimenduko Arte gozoaren aldean.

#### GOTIKOTIK "PLATERESKO" RA

Gero gauza au sakontxuago ikusiko degun arren, ikutu dezagun orain, iraisean bederenik, Arte Platereskoaren problematika: nola datorren alegia, Gotikoaren ondoren —irugarren Gotikoaren ondoren—.

Gauza jakiña da, Gotikoa, bere irugarren aldian, pso apain-zale aberats azaltzen zaigula: naiz Arkitekturan, naiz Eskulturan. (Ikus Valladolid'eko San Gregororen Eliza).

Irugarren aldi arren ondoren, Artearen munduan iraultza erreboluzio aundi bat gertatu zan : Errenazimentuaren etorrera.

Grezia'ko Artearen berri iritxi zan urte aietan, Sortaldetik Sartaldera; eta berriarekin batean zorabio bat: Arte eder ura eredu artunaia. Literaturan ere bai, bañan, guretzako, Eskulturan batez ere. Et'a "Grezia klasikoan" Arte-lanak oso txukun ta garbiak ziran arren, Errenazimenduko lenengo garaian gure arte-zaleak ezin aaztu izan zuten Iruugarren Gotikoaren aberastasuna; eta ola sortu zan gure inguru ontan alako Arte sintetiku, naastu-antxa: alde batetik txukun ta gartxu (Gre-

ko), eta bestetik aberats naasi-antxa (Irugarren Gotiko); "Plateresko" esan oi zaion sintesis maitagarri bat.

("Plateresko" izen onek, "zillargiñen antzeko" esan nai bait du; zillargiñak beren zillarrezko ta urrezko pitxiak egin oi zituzten antzera, lantzen bait zituzten plateresko-arte-zaleak beren Arkitekturako ta Eskulturako lan fiñak).

\* \* \*

Plateresko-garaiko Arkitekturak, lenengo egin zuan gauza, Gotikoaren puntadun arku zorrotza baztartzea izan zan; eta arku zorrotzaren orde, arku jatorra —uztai-erdi jatorra— artu zuan: "arco de *medio punto*" esaten ziona. Gauza bera egin bait zuten Plateresko-garaiko eskultoreak ere beren apain-gauzetan: dana uztai-erdi jator, arku jator, edo-ta kurpil oso; eta ola, Gotikoan dana zorrotz eta ilatz-antzeko ikusten deguea, gero-Platereskoan, dana leun ta goxo ikusten degu.

Jantzi-tako tolesakin ere berdin gertatzen da: Gotikoak jantziaren tolesak, Erromanikoak baño jatorrago, bañan oraindik ere "gogor" antzeko egiten dituan bezela, Platereskoak jantzi-tolesak, bigun eta leun —sedazkoen antzeko— egiten ditu: toles ugari, toles mee, fiñ.

Ala berean, baita, jantzi fiñak gorputzari erantsi-erantsiak, gorputz-zatiak marka-markatuaz. Ortan azaltzen bait da, batez ere, leen aipatu degun Platereskoaren aberats-naia: jantzietan toles-pliego ugari eta meemeiak. (Ikus Eibar'ko Andres Araotz'en Aldare Nagusia, beerean).

Platereskoaren gauza nabarmena, bere expresio-nai aundia da. Batez ere Gurutze Santuetan. Expresio ori lortzeko platereskotarrak errex jotzen dute gorputzaren ez-neuriztasunera, desproporziora: gorputz mee ta buru-aurpegi aundi-antzera: aurpegi aundian oiñaze-expresioa obeto adierazteko, eta gorputz argalean, Jesus'en eriotzeko indarrik-ez eta aulezia azaltzeko.

Gañerakoan, besteak beste, gerruntzeko zapiak oso tolesmeedunak egin oi dituzte, alderik-alde, ezkerrean askotan korapillo aundi bat dutela.

Gure Plateresko-maisuetan maisuena, Alontso de Berrugete izan zan. Eta aren Ikasle bikaiña, Andres de Araotz, oiñatiarra (?). Araotz onenak ditugu Gipuzkoan, Itziar'ko Aldare Nagusia, eta Oikiña'ko Aldare zaarra,



eta Eibar'ko Aldare Nagusiaren laurdena, eta berdin Zarauz-koarena. Lan benetan aberatsak.

Nafarroan ere, eta Araba'n ba ditu lan ederrak, gero aiipatuko ditugunak.

Berrugete abizena, euskerazko "Beruhete" bat da, edo-ta Berrueta, edo Berroeta.

Alontso'ren aitona, bizkaitar "enkartatua" zan, Ixkribaua, Bizkai'tik Valladolid'eko Chancilleriara-edo lege-gizon joana, eta Paredes de Nava'n ezkondua, Pedro de Berrugete Pintore sonatuaren aita, eta Alontso'Eskultorearen aitona.

Alontso'k bere lanik geienak Gaztelerrian egin zituan: Valladolid'en eta Toledo'n etab.

Arekin batetsuan izan zam beste bizkaitar "enkartatu" izena zuan Valmaseda Eskultore sonatu bat ere, Palentzia'ko Eliza Katedraleko Aldare Nagusi plateresko galanta oso eder egin zuana.

## V IKASGAIA

### GOTIKOTIK ERRENAZIMENTURA

Betiko bideari jarraituaz, ikus dezagun orain, nola dijoan Artea bere bidean: nolako urratsez, noren egitez... Beti bezela, Euskalerriko Artearen Historiaren barruan.

Eta ikusten deguna —leen ere esan degu-ta^— auxe da: Artea beti ere errealismotik estilizaziora eta estilizaziotik errealismora dabillela.

Gotikoa, Erromanikoa baño errealistagoa da; eta Gotikoa bere bigarren garaian, lenengoan baño errealistagoa, eta irugarrenean, bigarrenean baño errealistagoa.

Denbora berean, gero ta aberatsagoa. Irugarren garaiko Gotikoa, batez ere, ez errealistagoa bakarrik, baita askotaz aberatsagoa ere azaltzen zaigu.

Ar dezagun Gotikoaren eredu, Gasteiz'ko Eliza Katedrala, eta Katedral artan, Eskultura-gauzetarakó, Elizaren ateetako Eskulturategi gotikoa : lan egiazki ederra, eredutzat artu ditekena.

Katedral gasteiztarra Arkitektufaz beti ere, arku mokozorroztuna arkitzen degu; eta arku-barruan ikusten degun eskulturaki dana, gotiko-gotikoa, gotiko garbia. Santu-iduriak, rieurritzasun ederrekoak: gorputz lirañak, aurpegi goxoak —irripar-jario zerbait ere bai—. Jantzi-tolesak, jator, Erromanikoaren konbentzionalismorik gabeak; ixuri elegante, apain...

Ala ere, historio-misterioen joskeran ^erreliebeen joskeran— beti ere zerbait gogortasun, batez ere, gero datorren "Platereskoaren errelie-be, gozokiro biribilduen aldean. Historioko lagunak, zutik, makurtasunik gabe, edo-ta makurtzean, makurtuak baño areago "kakotuak", kurpil baño areago, dana ánguloz... (Ikus, Amabirjiñaren bizitzako ta eriotzako historiok).

Guzti ofren osogarfi ikus dezakegu, Zumaya'ko Eliza Nagusian, San Anton'en aldare gotikoa. Ifugarren garaikoa dan arren —eta naiko abe-ratsa (ikus nitxoetako dosel gotiko mee-meiak)— Santuaren bizitzako historio-misterioak naiko gogor agertzen zaizkigu: lagunak, zut edo-ta kako.

Oso zutak ikusiko ditugu, baita, Loyola'n, Santuaren Jaiot-etxeko kapillatxuan Piedadeko lagun guztiak ere; lagunak zut; Jesus illa, ordea, ez ain gogor, makur-antza baizik, Errenazimentuareni etorrerako Arteari dagokion bezela. (Ikus Jesus illaren obiratzea). (Gotiko III garaikoa).

#### PLATERESKOA

Alderantzira ikusiko degu dana Errenazimenduaren sarrera-sarrera-tik, "Plateresko" deritzan artezko Aldareetan.

Asi giñezke ortarako Bergara'ko San Pedro Elizatik, eta jarraitu Oñati'ko Unibertsidadeko aldareetan barrena. Bitartean or izango bait ditugu Itziar'koa ta Eibar'koa, biok oso platereskoak eta biok euskaldun eskultore izen aundiko Araoz'ko Andres'enak.

Aldare oietan lenerigo-lenerigo ikusten deguna, zera da: gotikoaren dosel apaingarri punta-txorrotx guztiak zearo baztartzan dirala, eta aien lekuan arku jator —kurpil-erdizkoak— apaingarri artzen dirala. Ikus adigarri bezela Oñati'ko "Piedadeko Aldarea" Eliza Nagusian. Erretaulako nitxo guztiak ola bait dira kurpil-erdi jatorrezkoak; éta beste gau-

za bat ere oso berezia, nitxo bakoitzaren buru-aldean barrutik, bobeda-txo bezela, txirla-antzeko aipaingarri polita.

Beste apain-detallea, pillareetakoa da; pillare ez baño, zillargiñen ba-laustre torneatuak areago bait dira, Itziar'ko Aldare apain-apaiñean ikusten ditugunak. Berdin baita Bergara'koan ere.

Arte aberatsa dala esan degu platereskoa. Eta aberastasun ori jantziaren toles-jokuan agertzen dala Gurutze Santuaren gerruntzeko toles-jokuan, adibidez; toles ugari eta mee-fiñak dirala, alegia. Gauza bera ikusten da, baita beste edozein gairetan ere. Ikustekoak dira, adibidez, Eibar'ko Aldare Nagusian Araotz'ek egindako Ebanjelarien toles-illara ugari fiñak; ala berean, baita, Araotz'ek berak Oikiña'ko San Bartolome'ren Aldare zaarrean utzi zizkigunak.

Jantziaren tolesak bezela, gorputzaren zimurrak ere oso ikusgarriak dira Gurutze Santuetan; eta ala berean baita gorputz guziko anatomia ezurtsua; zenbait Gurutze Santuk ezur-ta-azal-uts bait dirudite..'. Ikusgure Balmaseda'k Palentzia'ko Katedralerako egini zuan eredia: ezur eta azail, bañan —arritzekoa— ez buru-aundi, naiz-ta sentikor benetan...

• filii 8r

Apaingarriai gagozkiela, ofi; bañan irudien egiturari bagagozkio, Platéreskoaren egiturak, ez Gotikoarenak bezain gogorak, bigunagoak baizik, nai bezela makurtuak, eta lagunak alkarrekin egoki trabatuak. Ikus Bergara'ko Aldare Nagusiko lau Ebanjelariak, beren idaz-lanean bigun asko eseriak; or ez bait da, adibidez, Loyola'ko Jaiot-etxeko Piedadeko lagun zutitasunik.

Bañan beste gauzá nabarmena, Platereskoan, aurpegietako sentimena da; sentimen ori lortzeagatik, plateresko-arte-zaleak neurritasunari berari ez bait dio jaramonik egiten. Gurutze Santuak berak buru-aundiak egiten ditu noiz-nai. Ikus Donostia'ko Santa Maria'ko Klaustroan "Paz y paciencia"koa esaten zaion Gurutze Santu arrigarria; eta berdin baita Oyartzun'go Korupeko ederra. Biok buruaundi, eta gorputza arkuan...

\* \* \*

Sentianenaren aundia •—artezaleak "gran pathos" esaten diotena— Platereskoak gai berezi batean agertu zuan —gure artean naiko ugari

ageri dan gai batean— "Piedadea" esan oi zaion Jesus'en Nekaldiko pausu garratzean: Jose ta Nikodemus'ek Seme illaren gorputza Gurutzetik eratxita Amaren magalean ipiñi zuteneko pausoan. Olako bi eredu, bikain askoak, Ernani'n ikusten bait ditugu: bata Epistola-aldeko Kapilla ederrean, eta bestea —fin askoa— Aldare Nagusiko mai-azpian: sentimen aundia alde batetik, eta historio ondo tratatua bestetik... Negar, bañan alaraurik gabe; lagun asko, bañan naasirik gabe...

Orrenbeste lagunik gabeko Piedadeak, gañerakoan, Eliza askotan ikusten dira; eta, ain xuxen, pentsakizun zerbait eman dutenak, beren neurritasunik -ezagatik; Seme illa Amaren magalean oso txiki agertzen dutelako. Ala, besteak beste, Zumarraga'n "Antigua"ko eredu benetan ikusgarria —Jesus illa aur baten neurrikoa Amaren altzoan— eta Donostia'n Igara'ko Aingeru Guardakoaren Elizatxoan beste bat, oso aipagarria bera ere, Amaren santimenari Semearen neurriari baño garrantzi aundiagoa emanaz...

\* \* \*

Platereskoaren beste gauza bat, beste askoren artean, au da: Aldareetan ez duala ezer leun ta sollik uzten, talla apaingarriz estali gabe: dirala pillareak, dirala ate eta leio-janbak, dirala atalburu ta brinbalak: dana marrazki aberatsez aipaindua... Ikus edozein Katedraletako koruko exer-aulki apain-apaiñak...

Aberastasun-kutizi ori —leen ere esan degu-ta— irugarren garaiko gotiko loratu-loratutik jaso bait zuan Platereskoak, eta jaso ondoren gero Barrokoari pasa. [Bañan beti ere gauza bat gogoan euki: alde izugarria dagola apain-kontu ortan Platereskotik Barrokora. Barrokoa aberatsa, bai, bañan Platereskoaren aldean aberats "bastoa" dala; Platereskoa, berriez, aberats fin-errefiñatua].

\* \* \*

Jarrai dezagun aurrera.

Gure inguruan Arte-egoera ola zegolarik, or nun gertatzen dan gertakari berezi bat, Artearen Historian: Joanes Antxieta azpeitiarraren Erroma'ra joaiera; bidaia artatik gure artista, Migel Angel'en Artez zearo moskortua etorri bait zitzaigun; eta geroztik esan dezakegu, emengo Arte-lan guztiak bide berri bat artu zuteia: "neurriaren eta indarra-

ren eta graziaren" bidea. Iru gauza oiek —neurri, indar, grazi— iruok osotzen bait dute, garai berri orren Arte-kanona; leengoan expresioa ta aberastasuna bezela, orain grazia, indarra eta neurri jatorra : anatoimia ondo neurtua, gorputzaren egoera indartsua, izaera guziaren grazia...

Bañan gai au, urrengo Ikasgairako utziko degu.

\* \* \*

Euskalerrían degun Platereskorik eder eta aberatsena, Oñati'ko Unibertsidadea da. Eskultura-gaietan oso ederrak dira etxearen aurrea, eta barruko Elizatxua bere Aldare aberats-aberatsarekin. Dana Pierres Picart'en lana. Ortaz gañera baita Unibertsidadeak berak erriko Elizan zuan bere Kapilla, Unibertsidadearen fundatzallearen monumentu ta sarkofagoarekin, Aldare bikain batez gañera. Aldare au eskultore euskaldunen lana bait da. (Ikus Ama Arrazola'ren "El Renacimiento en Guipúzcoa").

## VI IltASGAIA

### A N T X I E T A

"Neurritasuna (proportzioa) indarra eta grazia" dirala esan degu V Ikasgian, Antxieta'ren izaera bereizgarriak. Iru izaera oiek bereizten dute, batez ere, gure azpeitiarraren Artea, Platereskoaren Artetik.

NEURRITASUNA  
(Proportzioak)

Platereskoak, sentimen-bearrez-edo, Gurutze Santuak "buru-aundi" egiten dituala esan degu ; neurritasunik gabeak, alegia.

Antxieta'k Erroma'tik ekarri duan apeta ta egarria, Platereskoaren alderantzira, neurritasunaren egarri eta apeta da : gorputzaren neurritasuna —gorputzaren goitik-beerakoa, bederatzi buru izatea, alegia: burua aundi-txikian, gorputzaren bederatziurren bat—. Kontrara egitekotan, azpeitiarrak luzeago egingo du, ñoiz ez laburrago, motzago; luzeago egite orrek gorputzari elegantzia ematen bait dio, eta elegantzia ta

grazia da Antxieta'ren bigarren egarria. (Ikus Zintruenigo'ko Gurutze Santua).

Ikus, Antxieta'ren edo antxietatarren Gurutze Santuak: Bengoetxea'renak, adibidez, edo Jeronimo Larrea'renak; Bengoetxea'rena (Antxieta'rena berarena ez ote?) Ayete'n; eta Larrea'renak Ondarribi Guadalupe'n eta Pasai Bonantzan: dana neurritzasun, dana proportzio, Oyartzun'goaren aldean...

#### GRAZIA

Giza-gorputzak grazi aundia du bere izaeran eta bere ibilleran; bere egoeran eta berdin bere arieran.

Giza-gorputza, feere *izaeran* ederra da, graziduna; ez, ordea, "ezurta azal" bakarrik danean, bere gozotasuna duanean baizik; ezta gizen' motel, ustel danean ere, bizi zaintsu danean baizik: gorputz atletiko danean, alegia. (Ikus Antxieta, Gasteitz'en).

Antxieta'ren gorputzak, ez beren arieran, beren egoeran ere grazidunak dira. Baita Gurutze Santuetako gorputz illak berak ere. Grazidunak; biziak baitlirean; gorputzaren alderdiak "contrapostoa" dituztela; ez zintzil-ziltzil, biurri zerbait baizik, biurri gozo —burua makur ezkerraldera, bularra biur eskui-aldera, belaun biak ezkerrara, eta oiñak eskuitara—. Biurri gozo. Dinamiko. Grazi aundi. (Ikus Ayete'ko bikaña).

Berdin egiten bait du Amabirjiñarekin ere. Ikus Antxieta'ren Zeruetara-Igotze "aundiak", bai Zumaya'koa, bai Briviesca-koa, bai Burgos'ko Katedralekoa...

Ama Birjiña, odei-gañean, aingeruak aundikiro zerura eramana; kontrapostoa, aurpegia alde batera, eskuak bestera...

Gorputzak, ibilleran eta arieran, beti ere grazidun egiten ditu gíre Antxieta'k. Gorputz atletikoak, heroikoak, ez dute galtzen beren berezko graziarik, dabilzan ibilliagatik edo ari duten arieragatik.

Ikus, berriz ere, Gasteiz'ko San Migel Elizako, Jesus'en Zatikada eta Arantzako koroatzea. Borreroak, sendo, bañan egoki, ari dute beren lana. (Gero barrokoan-eta, etorriko da, "Jesus'en Zatikada", "Jesus'en *paliza*" biurtuko dan garaia. Gregorio Hernandez'en, Valladolid'eko zatikadak, norbaitek esan oi zuan bezela, benetako *palizak* bait dira, paliza koleratuak). Antxiera'ren Gasteiz'ko erreliebetan Jesus'ek berak ez

du oiñaze-keñurik egiten —gero, Hernandez'en Gorputz minberak egin-go duan oiñaze-keñurik—. (Ikus Kalahorrako monja karmelitana).

Antxieta'ren irudiak ez dute galtzen beren izaera grazidunik, ezta Nekaldi Pasioaren ordurik garratzenetan ere. Antxieta'ren Kristoak berak, neke bai, naigabe bai, ba dute; bañan beti ere etsi-egoera ederrean...

#### INDARRA

Indarra, bañan graziaren barruan. Gorputz egokiak, gorputz atletikoak Antxieta'renak. Indarra bai, bañan ez indar leertua, indar astindu; indar ezkutu, indar eutsi, "tentsio" duna —zañak tentsioan : lepa-zañak, besazañak, iztarzañak tentsioan—; leertzeko zorian, bañan leertu gabe, eztanda-bearrean, bañan eztanda egin gabe.

Orrela Jesus'en Pasio-Nekaldian borreroak eta gudariak. (Ikus Gasteitz'en).

Jesus'ek berak ere neke bai, naigabe bai, bañan elegante. (Ikus Jesus'en zatikada Gasteitz'en).

Ikus gañera, Oyartzun'go Sagrarioko Isaak'en Oparia: aita Abraham'ek matxete txarraska izugarria aidean, bañan utzitasun elegante batean; seme Isaak'ek, berriz, lepoa tentsio apal batean eskeintzen, matxetearen kolpeari. Orren aldean oso bestelakoa bait da Isaak'en oparia Valladolid'eko Berrugete'renean; ango aitaren garraisi ukigarria, Antxieta'ren min ixillaren aldean: min ixil, min sakatu, min itxaropendun; bañan, batez ere, semearen lepo-makurtze heroiko-heroikoa...

#### JANTZIAK

Gure Antxieta, Migel Angel bezela, giza-gorputzaren, giza-anatomia-ren adoratzalle-adoratzalle da. Eta orregatik, gorputzeko jantziak egin bear dituauean ere, jantziaren azpitik gorputzaren anatomia ausarki markatzen du : belaunak batez ere gorputzaren ibillian.

Bañan ortan ere Platereskotik bereizten da. Platereskoak jantziaren tolesak, ugariak egiten ditu, jantziak, sedazkoak edo zapi mee-meezkoak bait lirean. Antxieta'ren jantziak oialezkoak dira, oial gozo, gorputza gozo markatzen dutenak, ez zapi mee. Ikus Zumaya'ko San Pedro eseria, belaun-aldea gozo markatua, jantzi oparo, egoera 'patxarakoa...

Gurutze Santuaren gerruntzeko zapietan, Antxietaren jarraitzalleak ba dute bereizkuntza bat oso nabarmena: zapiaren edaera, triangulo-eran, alde batetik zabal eta bestetik estu —era berean pintatu bait zuan Ribera'k ere, Gasteiz'ko Santo Domingo'rako egin zuan Gurutze Santu eder bikaña : gaur Araba'ko Aldundi-Jauregian dagona—.

Beste bereizkuntza bat: Antxietararrak soñekoak beti ere oparoak egiten dituztela, ezkerreko eskuz nekez jasoaren keñuak egiñez. Ikus Ernani'ko Errosario'ko Aldarean, Jesus'en Nekaldiko historietan-da...

Antxieta'ren "Erromanismoaren" ondotik —ezarian-ezarian maisuaren maisutasuna galdu alean— "Barrokoa" etortzen zaigu gure Elizetan.

[Bi maisu ditu Barrokoak gure artean : Hernandez Gregorio —gallagoa— eta Bazkardo Joanes —aurrekoz andoaindarra—. Antxieta'ren indar barrukoia falta. Bañan Eskultore onak biok].

#### SENTIMEN

Antxieta'ren sentimenak ez du Platereskoaren "garraisirik"; min ezkutuarena da; aundia bai eta sakona, bañan ixilla...

Jesus'engan, ez alaraurik, garraisirik; borroengan, ez gizatxarke-riarik. Ikus Gasteiz'ko San Mikel'go Arantzazko koroa, eta Ernani'ko Errosario-aldareko historiak.

Platereskoan, "gran pathos"; Antxieta'renean, neurria sentimenean ere ; graziarik autsi gabe dana.

#### VII IKASGAIA

#### B A R R O K O A

Izena ez dakit nundik etorria dan; bañan "barroko" izenak esan nai duana, danontzat ezaguna da: zerbait "geiegi", zerbait "ausarkeria"; guztiok ori aditzen degu, gauza bat "barroko" dala entzuten deguean : geiagia, ausarkeria.

Antxieta erromanistaren apetak, iru oiek zirala esan genduan VI Ikasgain : neurritasuna, grazia eta indarra. Barrokoak iru gauza oiek, areagotu nai izan ditu, areagotu, aundiagotu, geiagotu.

Lege bat ba da beti gizartean : leen izandakoa obetu naia : "Orrek



marka ori egin dik? Nik autsiko diat marka ori". Antxieta'ren ondotik etorri ziranak, Maisuaren markak obetu nai izan zituzten gauza askotan, bañan guretzat iru gauza oietan batez ere : neurritasunean, grazian, eta indarrean. Iru puntu oietara bilduta, errezago ulertuko degu, gaur esan nai deguna.

Nolanai-dala, ordea, beti ere beste gauza au gogoan euki bear da : olako geiegiak, artea ondatzera eramaten gaituala : leen neurritua bazan, orain luzetuaz, makaldu, ankaluzetu, itsusitu; leen graziduna bazan, orain polit —leen "ederra", orain polit"; leen emakume, orain muñeka—; leen indarra bazan, orain indar-imintzio, axaleko "indarka". Itz bitan, leen Artea bazan, orain "virtuosismo", arte geiegi; gauza baño itxura geiago ; patxara gutxi...

Itz bitan, ori da barrokoaren izaera. Jakiña, beti ere, gauza ori mallaka betetzen dala barrokoaren luze ta zabalune guzian; batzuetan geiogo, besteetan gutxiago; batzuek nabarmenago, besteak ezkutuago... Bañan beti ere leengoa obetu-naia, leengoa "pujatu"-naia... "Marka ori nik obetuko diat".

\* \* \*

Beste alde batetik, gauza sendo egitea baño, areago, jendea arritzea; itxurarekin bederenik, jendea arritu. Ortarako gauza ausartak egin; leengo sendo-legeak apurtu. Arkitekturaren batez ere ikusten bait da ori : frontoiak ípuskatu, goiko anguloa eten —an armarrari bat-edo ipintzeko...— Ausarkeria.

Berdin egiten bait du bere izaeran Eskulturak ere. Leen giza-gorputza "bederatzi buru" bazan, orain bederatzi-t'erdi edo amar. Leen "zati-kada" bazan, orain makillazoa, paliza. Leen bildurra bazan, orain ikaralaborria... Arritu...

INDAERA

Antxieta'ren Eskolan gorputzak oso dinamikoak dira; ibilli dabil-tza; soñekoaren azpian dagon gorputza ibilli dabil, bizi da; barrokoan, berriz, gorputza baño areago dabil soñekoa; ez ibilli bakarrik, astindu areago, aize-boladak astintzen duan soñeko jantzi meia bezelaxe...

Gregorio Hernandez eta gure Bazkardo izan dira barroko-bolara or-

tan erori gabe, beren artea zaitu zutenak, malla gore batean zaitu zutenak. Soñekoak astindu ez baño gogortu egin bait zituzten, lisatu, plantxatu, anatomiarik bat ere nabarmendu gabe, ezkutatu-naiean baizik; ori bai, aunditasun eder batean, Santuen jantziak Meza Nagusiko Ornamenduak bait lirean, edo denbora bateko Alkate Jaunen kapa lodiak bezeila...

Gai ontan Hernandez'engan eta Bazkardo'rengan gauza bat ageri da; jantziaren egikera batez ere: jantziaren tolesak, gorputzari itxasiak ez baño, gorputzaren anatomia estaltzeko eran egiñak dítuztela; "estaltzeko eran, eta estali naiez bezela". Erriak berak —garai artako erriak— ori eskatzen nunbait. Faldoi plantxatuak, soñeko.

\* \* \*

Bazkardo'ren lanak Irun'en ditugu batez ere. Eta Usurbil'en. Aldare Nagusiak.

Hernandez'enak Gasteitz'en San MigePen EHzan. Aldare Nagusia. Ikustekoak dira erdi-erdiko Ama Birjiña Sortze Garbia (Erreterian ere bai bait da gai bera, eta San Mikel bat) eta erreliebe, bikain askoak. Erdiko Ama Birjiñak, Jantzia tolesik gabe; soin-gañekoa, "kanpaniforme-kanpaniforme", beeko barrenean toles-tiketatxo bat, ezaugarri.

Ernani'n Aldare Nagusian Amabirjiña Sortze Garbia Gasteizkoaren antzekoa, benetan ederra. Baita Errosarioko Aldarean ere beste bat oso Hernandeztarra, jantzi sendo.

Gañerakoan barroko bion «lanak, anatomi-igesi, jantziak lixu ta gogor-antza; ala berean, Aldare osoak, eder ta guzi, gogor-antza, ertz-bizi, kur.pil gutxi...

\* \* \*

Gipuzkoa'n gogoangarri berezi bat zor diogu, barroko-barruan, Bergara'ko Gurutze Santuari. XVII gizaldiko lana da; egillea iñoiz Sebilla'ko Martinez Montañes zala esan oi zan; gaur ba dakigu Juan de Mesa zala, Sebilla'koa bera ere; Montañes'en ikasle izandakoa, Maisua baño barrokoagoa; Maisua naiko erromanista bait zan; ikaslea, barrokoa Maisua-ren onarkak ondu zituna... Bergara'ko eredu, izan diteken eskultura-lanik ederren eta osotuena da: norbaitek dionez, Kristaudian danik ederrera...

## VIII IKASGAIA

## BARROKOTIK NEO-KLASIKORA

Neo-klasikoa, XVIII gizaldian, barrokoaren kontra sortu zan, erreakzio bezela, barrokoaren geiegiaz aspertuta. Geiegia, lan ausarditsuetan; geiegia, apaingarrietan; itz bitan, Arte naasia billakatzen zan barrokoa.

Arte bat garbiagoa, argiagoa bear zan : Arte xuurragoa apaindurietan, zentzu geiagokoa danean.

An zegon ortarako eredu, Eskorial. Felipe II'ak aginduta, XVI gizaldian Herrera'k-edo asmatutako Eliz eta Monastegi galanta... Apaingarririk bat-ere gabe, dana orma, dana ate ta leio. Dana geometriko : pillare sendo, arku jator, bobeda sapaï biribil arrigarri.

XVIII gizaldian Barrokoaren kontrako asper-aldian, Erregearen aginduz, *Real Academia de San Fernando* sortu zan Madrid'en, Arte-gauzetarako aginte aundiko Eskola; eta Errege beraren aginduz, andik aurrera egin bearreko Eliz eta Aldare eta gañerakoak, Akademiaren baimenez egin bearko ziran. Ola sortu zan Neo-Klasiko deritzan Estiloa : askorentzat estilo otza...

Gure artean Eliza neoklasikorik gutxi degu. Aldareak geiago; Eliz-sarrera bat edo beste...

Elizen artean, Motriku'n Eliz Nagusia —Gurutze greko, bere Sarre-ra klasiko ederrarekin—, eta Loinaz'ko San Martin'en Elizatxoa Beasain'en : Gurutze Greko...

Ortaz gañera, Azpeitia'n Eliz-sarrera.

Aldareak, Tolosa'n Santa Maria'ko danak: —estukozko, marmol-itxurako bi pillare izugarri, eta erdian Santu aundi bakarra, eta goian medalloi bat—; Erreterian, Aldare Nagusia, marrnolezkoa; Donostia'n Santa Maria'n, korupe-aldean marmolezko bi; Alegria'n Aldare Nagusia —bi pillare aundiren erdian San Juan'en erreliebe aundi bat. Antzuola'ko Aldare Nagusia, demanda txiki baten ondoren, Akademia'ren baimenez egiña : bi Pillare aundi...

BIR-BEGIHATZE

"Neo-Klasikoak", "Klasiko berri" esan nai du.

Eskorial ere orixe zan : Arte Klasiko uts eta garbi.

(Eskorial'en, gauza jakiña da, argin euskaldun askok eta askok lan-egin zuala, bai argin ofizial, bai argin maisu ere. Martin de Tolosa, Argin Maisu, bere garaian gorenetakoa, Herrera'ren beraren eta Aita Villacastin'en laguntzalle berezi izan zan Eskorial'eko lanetan. Argin euskaldun aiek huelga sonatu bat egin zutela ere, gauza oso entzuna da, beren lagun bizkaitar bati "tormentua eman ziotelako" egin ere, "tormentua" Bizkai'ko Foruak galerazirik zeukan zigor-kastigua bait zan...).

\* \* \*

Neo-klasikoa, barrokoaren kontrako reakzioz sortu zala esan degu.

Beste reakzio batek —Gotikoaren bitxikerien kontrako reakzioak— ekarri zuan Errenazimentuaren lenengo Eskola Platereskoa ere: Grezia'ko eta Erroma'ko Artearen gusto ta maitez.

Bañan, ortaz gañera eta orren ondoren gure artean olako erreakzioz sortaa, gure Antxieta'ren Eskola izan zan batez ere: Migel Angel'en imitazioz sortua, alegia.

Barrokoarentzat ezin dezakegu esan beste orrenbestetik. Barrokoa etzan sortu erreakzioz "bapatean", beste oiek bezela; ezarian-ezarian, baizik, eta "leen izandakoaren markak ondu maiez", esan degun bezela.

Neo-klasikoa, bai, barrokoaren kontrako asarrez —asarre ofizialez— sortu zan.

LABUKMEN

Aldareetan bi gauza berezi bear ditugu: Eskultura eta Arkitektura. Orain arte Eskultura aipatu degu. Leen-leen aipatu bait genduan Arkitektura. Etxe eta Elizetan. Ikustagun orain Arkitektura Aldareetan.

Eskultura Aldareetako irudietan (imajiñetan) eta erreliebeetan dago. Arkitektura Aldaetako gañerako guztian.

Aldare bakoitza, etxe-aurre baten pareko da. Ate-leio, arku, pi-Uare, pilastra, korniza, arkitrabe: dana. Etxe-aurre faltxadaetan ikusten ditugun gauzak berak ikusten ditugu Aldareetan.

Arkitekturaren estiloak, Aldareetan, etxe-aurreetan bezelaxe azaltzen dira: dala gotikoa, dala platereskoa, dala erromanista, dala barrokoa, dala neo-klasikoa.

Gotikoan, erreliebeak ugari agertzen zaizkigu; leioak (nitxoak) ar-

ku gotikoz, irugarren garaiko konopeoz batez ere, beren dosel mee-fiñekim. (Ikus Zamaya'ko San Anton-aldarea).

Platereskoan, arku jator, txirlaz koroatuak; pillareak, balaustre; pilastrak eta arkhabeak, erreliebe mee-fiñez apain; histori-erreliebeak, ugari. (Ikus Itziar, Bergara San Pedro, Oñati Unibertsidade etab.).

Erromanismoan, irudi eta erreliebeak ugari, arkuak jator, pillareak •pillare jator, beereko laurdena labratu, gañerakoa estriatu; arkitrabeak eta kornizak, lisu. (Ikus Zumaya'ko Aldare Nagusi, Antxieta'rena; Elgeta'ko Azentzio-aldarea; Donostian, San Bizente Elizakoa, Bengoetxea Ambrosio'rena; Oyartzun'en San Juan 'en Elizatxokoa, Larrea Jeronimo'rena; Salbatierra'n Larrea Lope'rena etab.).

Barrokoan, irudi ta erreliebe gutxi, pillare biurri, apainduri asko, basto: maats-ayen, maats-orri, maats-mordo; Churriguera'ren sorkari. (Ikus Oñati'n Aldare Nagusi; Pasai San Juan'en berdin; Irun'en aldametako Aldare, etab. etab. ugari asko baztarretan).

Barrokoaren eta Neoklasikoaren tartean, Rokoko deritzan eskola-orde aberatsa. Pillare aundi (torneatu), estria luze, gerrian apainduri itxasiak (lore-sorta-eta); korniza urratu. Urre asko. (Ikus Donostia'n Santa Maria'n iru olako, eder apain, Azurmendi-Ugartemendia'renak; berdin Andoain'em beste lau; Oyartzun'en beste bat; eta Segura'n, aundi arrigarria; eta ainbeste urre gabe, Bergara'n Santa Marina, eta Oñati'n Bidaurreta...).

Neo-klasikoan, dana serio, urrerik ez; marmol edo marmol itxura (estuko); dana aundi; erreliebefik gutxi edo bat-ere-ez; pillare aundi-aundi; irudi bat erdian. Ikus Tolosa'n Santa Maria'n Aldare guztiak; Errenteria'n Aldare Nagusi, marmolezkoa; Donosti'an Santa Maria'n marmolezko bat...).



# Arte-edergin euskaldunak

(Itzaldi Andoain'en)

## EUSKAL - ARTEAZ

Andoaindar gazteok:

Itzaldi bat eskatu didazute, "Euskal-arteaz"...

Artea, bere izatez, orokarra da, *unibertsala*. Bañan enda bakoitze-ko arte-zaleak lan-egiñez, artezko gauzak berak, bereziak, bakoiztia-rrak gertatzen dira. Eta ola, grekoen eskuetatik "Greko-arte" sortzen da, eta jopardarren eskuetatik "Japon-arte" eta txinatarren eskuetatik "Txina-arte". Bada, orrenbesteko berezitasunik gabe, euskaldunok egindako arte-gauzi ondo esan leikioe "Euskal-arte".

Neurri oietan, "Euskal-arte" esatea, eta "Artezale" "Artista euskaldunak" esatea, gauza beratsua da. Beraz, nere Itzaldi au, Artezale, Artista euskaldunetaz izango da.

Euskaldunok, gure odoleko artista asko izan al degu? nolako kate-goriako? noizko? nungo?...

Ikusten dezutenez, histori-apur bat, eta arte-kritika-apur bat: ori izango da ihere itzalditxo au... ezin izan bait liteke itzaldi aundia; luze ta zabal, laburmen txiki bat baizik.

EzAGTJERAK

Urretxuako "arrote aundi" esaten diogun Jose Maria Iparraguirre'k, bere buruari "artista euskalduna" esaten dio, arako bere koplaren artan:

Kitarra zartxo bat det  
nerotzat laguna;  
orrela bizitzen da  
"artista euskalduna":  
egun batean pobre,

beste batez "jauna";  
kantari pasatzen det  
nik beti eguna.

Iparragirre, kitar-artista zan —gaur ere, gure artean, batzuek ditugun bezela—. Bañan gaur nik emen beste artista batzuek aipatu bear ditut: Plastik-arteazko artistak: Pinturan, eta Eskulturan eta Arkitekturen artista izandakoak: margolari, tallalari eta argin-maisu izandakoak. Musika ta dantza ere Arteak dira, bañan beste arte-mueta bat, Arte Dinamikoak, ez Plastikoak. Emen aipatuko ditugun Artistak, Arkitecto, Eskultore eta Pintoreak izango dira.

\* \* \*

Artearen antzeko beste zerbait ba dala, ezik, munduan, Artesania esaten zaiona. "Artesanoak" gauza praktikoak —gauza egokiak— eg'ten dituzte; Artistak, gauza "edefrak". Zurgin-arotza, berez, artesano izango da; berdin baita burni-arotz bat ere; eta zapatari bat, edo jostun bat...

Guk emen, "Arte Ederretan" lan-egin dutenak aipatuko ditugu; esan degun bezela, Pintore ta Eskultore, eta aiekin bateani baita Etxe-Edergintzan lan egin dutenak. Eta, bear bada, aiekin batean zillargin, *platero* edo *orfebreak* eta burnigintza artezkoan lan-egin dutenak. Ori ere Arte Ederretan sartzen bait da.

Eta beste gabe, asi gaitezem.

PREHISTORIAN ZEAR

Arterako gaitasuna, erriak Prehistoriatik dakarkite askotan.

Euskalduna berez dantzaria da; odolean daramaki bere dantzarako gaitasuna, abillidatea. —Berdin esan bait liteke, pelota-jokurako duan gaitasunaz ere. Euskalduna berez pelotaria da. GaitjEisun ori "amaren sabeletik" duala esan oi degu; amaren sabeletik, aurrekoetatik, prehistoriatik—.

Euskaldunak Pinturarako duan gaitasuna, Prehistoriatik dator. Bizkaian Santimamiñeko "marrazkiak", eta Gipuzkoan Orioko Altxerrikoak eta Zestuako Ekaingoak, euskaldunen marrazkitafako gaitasun berezia agertzen dute. Arrigarriak dira koba oietan agertzen diran basaidiak, basauntzak, artzak; bañan batez ere, Orion eta Zestuan ain ugari ikus-



ten diran zaldi-marrazkiak. Eta ez bait dira ikatz beltzez egindakoak bakarrik, baita okre ta beste kolorez egindakoak ere, eta arkaitzaren beraren bixkarguneak probetxatuaz abereen gorputz-atalak markatzen dituztenak... Markatu-kontu ortan arrigarriak bait dira, mendiez beste aldean Ixturiz'ko kobako abere bizkar-aundiak...

Egiazki esan dezagun, euskaldunok amaren sabeletik —Prehistoriatik— gerala artistak. Beste iñori ez diogu ukatukó beste orrenbestefik -^duana duanari aitortu bear zaio— batez ere Santander-Altamirako basaidiak bait dira gai ontan oso aipagarriak, "Arte Magdalenientseko *Capilla Sixtina*" esaten zaion koba, batez ere. Bañan, an basaidiak bezela, gure Altxerrin eta Ekainen zaldiak bait dira berezigarri: "Zaldizko Capilla Sixtina" esateko ez bada ere, zerbait aundi ta bikain beintzat bai...

\* \* \*

Bañan, Prehistoriako arte-kontuan bai bait degu beste ikusgarri bat ere, benetan aipagarria: Oyartzungo Torres-Aranen, koba txiki batean, oraindik berriro, mutil ikasle donostiar batzuek arkitu duten, egazti anka-luze baten berna-exur luxe bat, benetako miniatuzko abere-illara bizi-bizi grabaturik duana... ezurrá bera ez bait dakigu zertarako zan, bear bada, orain zortzi milla urteko txistulariren batek txistua jotzeko erabiltzen zuana... exur barreh-utsa, kañadatxo mee-meia, orduko artzaireren batek ain apain grabatutákoa... Benetako apain eta eder-asmoz egindakoa. Au ere esatekoa bait da. Bear bada, Santimamiñeko-ta marrazkiak, eder-asmorik gabe egiñak izan bait litezke; eizarako majia bezela, alegia. Bañan Torres-Araneko ankexurra, benetan apain eta eder-asmoz egindakoa da. Eta esku jakintsuz egiña, marrazkilari jakintsuren batek egiña...

Eta, aaztu gabe esan dezagun, marrazki oiek orain sei-zortzi milla urtekoak dirala. Ez bait da atzo goizeko kontua.

ERDIAROAN

Prehistoriari jarraituaz, gauza bera esan dezakegu Erdiaroko euskaldunaz ere: arte-zale jarraitu zuala Erdiaroan ere.

Prehistorian marrazki ta pintura-lanetan azaltzen zaigun bezela,

Erdiaroan Etxegintzan ageri zaigu Arte-zale euskalduna: Etxegintzan, Arkitekturan.

Españiako lurrak argin euskaldunez beterik ageri zaizkigu Erdiaroan. Erdiaroan argintza euskaldunentzat ogibide zan, ofizio, ofizio tipiko.

Gaztelerrian nekazaritza izan zitekean ogibide. Euskalerrian ez. Euskalerrian nekazaritza oso urria zan.

Beste ogibidea Gaztelerrian, gudaritza zan, moroen kontrako gudaritza. Moroak beti ere Gipuzkoa ta Bizkaitik urruti zeuden. Erdalerrian guda etxean edo auzoan ikusirik, erdaldunak guda-zale azi izan ziran, euskaldunak ez bezela. Euskalduna, pake-lanetan oitua bizi izan zan Erdi-Aroko urte aietan. Eta pake-lan aietan bat, auxe zan: Etxegintza, Arkitektura, Argintza.

Euskalduna aspaldidanik, betidanik, argin izan da. Argin Euskalerrian, bañan areago oraindik atzerrian: Gaztelerriko erri aundietan batez ere. Erri aundietan ba zan aberastasun, ba zan diru. Eta diruak etxegintza ekarri oi du; Jauregiak eta Eliz aundi ederrak egiteko aipeta. Eta Gaztelerrietako argin-eskasia, argiñak Euskalerritik joaten ziran. Argintza —Arkitektotza— euskal-opizioa zan benetan Erdiaroan.

H? H\* v

Ain da egia gauza au, Logroño-aldeko mendi-errietan gaur oraindik Argiñari "el Vizeaino" esaten zaio. Argin-lanen bat egin bear danean, itzetik ortzera esan oi dan esaera, au da: "le llamaremos al Vizcaino", "al Cantero" esan bearrean.

Bañan ez bait da gure auzoko Logroñon bakarrik; urrutiago oraindik, Galezian eta Portugalen leen inoiz Argiñari, guk bezelaxe, "el Arguin" esan oi zioten. "Canteiro" itza Galezian eta Portugalen etzan itz eza-guna; opizioa bera ere ezaguna etzan señaile... Ari orri jarraituaz, pentsatzekoa bait da, Galeziako Santiyagoren Eliza Katedral aundian zenbat eta zenbat argin euskaldun ariko zan, gizaldietan zear ango lan ederrak egiten. Eta ala berean, baita, Portugalgo "Batalla" dalako Eliza arrigarri-arrigarrian...

AITORMEN-ESKEAN

Gure artistaen izenak ematen asi baño len, galdera bat ba degu egin

bearrik: Itzaldi onen asiera-asieran egiña dagon galdera bat: •—Nolako kategoriakoak ziran gure artistak? Galdera bat egin eta denbora berean protesta bat. Protesta bat, ez bear bada, beste inõreni kontra, geuroen kontra baizik.

Picasso bat, adibidez, gaur, eta Ribera bat XVII gizaldian, erdalerritik kanpora bizi eta beren lanak an egiñak izan arren, Artista aundi oiek, erdal-kritikoentzat beti ere "Artista Erdaldun" dira, Erdalerrarentzat reklamatzan dituzte; ez esan aieri, Artista Aundi oiek Artista Erdaldun ez diranik...

Orain gure galdera: —Eta Goya bat, euskal-izen garbi-garbi bat daramakian Artista goren-gorengo ori, ez al da Artista Euskaldun, Euskal-Artista?

Berdin galdetu bait liteke Zurbaran batentzat ere. Eta Berrugaterentzat... Erdaldunak erdaldun baño guk euskaldun txepelagoak, koldarragoak izan bear al degu? Ez al genitzake guk Euskalerrarentzat reklamatu iru izen aundi odek? Baza guztia erdaldunai utzi bear al diegu?

Guk ba dakigu, Goya ta Zurbaran eta Berrugete Erdalerrian jaino ziran; bañan baita ba dakigu irurok iru euskal-izen garbi-garbi daramazkveta ere; eusko-odola zañetan, eta eusko-jeneak beren erraietan. Izaera au ez al dezakegu aitortu ta aitorrerazi arte-kritikoen aurrean?

Aita Bitoria, "Derecho Internacionalaren" Sortzallea, eta Simon Bolibar Amerika-lurren Askatzallea, euskal-abizenaren jabe ziralako, naiz-ta emendik kanpora sortuak izan, Euskalerraren "aintza ta gloria" bezela jotzen baditugu, zergatik ez egin beste orrenbeste, Goya batekin eta Zurbaran batekin eta Berrugete batekin?

Orixe zan, aurrera baño len egin bear genduan galdera eta aitorren-eske, reklamazioa. Eta egin degun ezker, jarrai dezagun aurrera.

#### ZURBARAN

Francisco de Zurbaranen abizena euskalduna danik, ez du inõrk gure artean ukatuko. Begoñatik irtenda, Badajozko Fuente de Cantos'en kokatua. Abizen onen odisea, beraz, Bizkaian asten da, eta Badajoz'en artearen alorrerako loratzen.

Gure Francisco de Zurbaran edozeñek daki nolako kategoriako Pintorea zan XVII gizaldian. Aldaluzian egin zuan bere lanik aundiena:

Seviljan, Guadalupen... Andaluzi-Andaluzian. Lan ugaria; bañan, batez ere, lan, ez det esango "erreboluzionarioa", iraultzallea; bañan bai lan señalagarria, Espaiñiako Pinturari realismo-sellu sakona, bere garaian eman ziona.

Ez bait zan, bere kideko Murilloren mistika-kutsukoa; ezta Velazquezen planta sendokoa ere; realista-realista, Santuak berak ere, zeruko bañ, mundu ontako itxuradunago pintatzen zituana. Beti ere deseñu-dibujo segurua, eta kolore argia —zuriani bait zan, batez ere, maisu berezi—.

Eskola espaiñolari euskal-garraztasun berezi bat eman ziona... iraultzallea ez, bañan "genial" ao betez esan litekeana... bere egunetan ere bai, bañan gaur batez ere kategori aundi aitortzen zaion "firma"... Ertz bizi; ez, Murillok bezela, ertz lañotsu... dana egiazko, dana benetako danakonkreto...

\* \* \*

Zurbaran abizenari dagokionez, gure Franciscoren aitonen bat izan zan Bilbao'tik Badajoz'era joan zana. Eta an ezkondu, Fuente de Cantos erri koxkorrean; eta Fuentes de Cantos artan jaio bait zan gure mutilla, 1598'an.

Aiton arren Badajoz'erako joaiera, zertara izan zan? —Uste danez— eta ba du egi-antza —artille-tratura—.

Bilbao'n, itxas-portu aundi zanez, kontratazio aundi zan orduan, Europarako kontratazio aundi; eta, besteak beste, artille-kontrata. Artille asko erosten zuten bilbaotarrak, Bilbao'tik Flandresera eta Ingalaterrara bidaltzeko. Ortarako artillea, zan lekuan erosi bear. Ez, ordea, edozein artille, ardi merinoena baizik. Euskalerrian, berriz, ez bait zani —eta ez da— ardi merinorik, ardi pirenearra baizik. Ardi merinoa, Andaluzian eta Extremaduran zan —eta da— ugari. Extremadurako merkatuetan artille merinoa erosteko, jarririk zeuzkaten bilbaoterrak lur aietan erostun norbaitzuek, eta erostun aietako bat zan, dirudianez, gure Pintorearen aiton ura. Ortara joan, eta an bertan ezkondua.

\* \* \*

Espaiñiako kritikoak askotxo luzatu zuten, Zurbaran abizena euskalduna dala aitortzen.

Zurbaran. etxea, Begoñako Torre-etxe bat da; Aaide Nagusietakoa gañera; naiko izen aundikoa. Araban ere bai bait da erri koxkor bat, Jauregi ederduna izan ere, Zurbano deritzana.

Gauza gutxi dakigu gure mutillaren bizitzaz: Fuente de Cantos'en jaio zala, esandako urtean (1598), XVI gizaldiaren azkenetan; Llerena deritzan beste inguruko errian ezkondu zala; eta 1666'ganean il zala Sebillan. Aitaren izen-abizenak, Luis de Zurbar-an eta Salazar ziran —bi abizen oiek askotan erabiltzen bait zituani semeak, biok batean, eta beti ere izenaren eta abizenaren artean "de" bat ipiñirik, Francisco de Zurbaran euskaldunok oitura degun bezela. Sebillan pintura-ikasketan zegoala, "Delgueta" abizeneko euskal-antzeko familia batekin artu-eman aundiak izam zituan.

\* \* \*

Gure Zurbaran'en lanak, geienak Sevilla'ko ta Cadiz'ko Museoetan eta Guadalupe'ko Konbentuaren Sakristian daude; bañan baita mundu guztiko Museorik ederrenetan ere: Madrid, Chicago, Berlin, Paris, Cleveland (Ohio), Moscou, Stockholmo, Barcelona, Florencia, Lisboa, Grenobie, New York, Orleans, Bilbao, Budapest...

Guk ere Gipuzcoan ba degu bat —eder askoa— Jesus Gurutziltzatu, Motriku'n. Apaiz motrikuar batek Sevillan erosi, eta Motrikura ekarria...

BERRUGUETE

Olako beste odisea baten fruitu izandako beste artista euskalduna —artista, benetan, ez "jenial" bakarrik baita "erreboluzionario" "iraultzalle" izandakoa ere— Alonso de Berruguete da.

Esan dezagun lenengo, *Berruguete* abizen ori, jatorriz ez dala *Berruguete* "Berroeta" baizik. Beste euskal-abizen askok bezela, onek ere bere aldakuntzak, bere mudantzak izaiitu ditu: aldakuntza aundiak; ez itzaren forman bakarrik, baita itzaren esan-naian ere. "Berroa" euskera zaarrean "sasia-edo" da; *berruga*, berriz, "karetxa" edo "karatxo" da. Itzaren formaz, berriz, erdaldunen forma *Berruguete'ri* alderentxuen dagon euskerazkoa, Nafarroako *Beruhete* da, "r" goxoa "rr" gogor egiñaz, eta itzaren barruan "g" bat ipiñiaz. Bizkai'ko ta Gipuzkoako forma —forma jatorra— Berroeta, Berrueta da. Olako aldakuntzak ez bait

gaituzte arritzen, ezik, "Olabarrieta" batetik "Las Barrietas" ateratzen ikusi degunok; eta "Errekakoetxe" batetik, *Carricoche*...

Dana-dala, bego sendo, gure Berruguete, jatorriz euskerazko *Berroeta* edo *Beruhete* dala.

Bañan Berruguetarren euskal-izaera, euskal-odola, guk ez bait degu ateratzen itzaren etimologiatik bakarrik; ba da or tartean historia bat ere. Gure Berrugueteren aitona, Bizkaiko Enkartazioetatik Valladolideko Paredes de Nava'ra joandako Ixkribau Notario bat izan bait zan.

Bizkaitar bat Valladolideko Paredes de Nava'ra joatea, etzan noiz-pait ain gauza arrigarria —etzan-ez ain gauza arrigarria, XV gizaldian batez ere.

Valladolideko Chancilleria famatuai erabakitzen bait ziran, azken-instantzian, Gipuzkoa'ko eta Bizkaia'ko auzi-pleitorik garratzenak, eta Erregeren Chancillería artan lege-gizon euskaldun askok izaten zuten beren ogibide ta ofizio. Gure Alonso de Berruguete'ren aitona ere, Lege-gizon Abp'gadu zanez, an numbait Chancilleria-gauzetan sartu zan, eta... leenagoko Zurbaran ura bezela, bera ere an ezkondu eta bertako Ixkribau egin... Eta an biurtu bait zioten bere "Berroeta" abizen jatorra, "Berruguete" xeblebre...

\* \* \*

Aiton ark seme bat izan zuan, bere garaian —XV gizaldian— Pintore on askoa izan zana: Pedro de Berruguete.

Orduan, Aldareko Erretabloetan, gero tallazko erreliebeak bezela, artean oraindik pinturazko historiak ipintzeko oitura aundia bait zan, pintura on askoak; gaur, orduko "tabla" diralakoak, errekesta ta ixtimazio aundia dute antikuarioren artean... Pedro de Berruguete, pintore oietako bat zan, eta aren "tablak" gaur eunka-millaka pezetam preziazten dira.

Bañan Berruguete izenak duan itzalik aundiena, Pedoren seme Alonso de Berruguete'rengandik dator —Alonso "de" Berruguete; berak beti ere, izenaren eta abizenaren artean— Zurbaranek bezelaxe berak ere —"de" bat ipintzem bait zuan, euskaldunen artean oitura izan dan bezela—.

Alonso onek asieran etzien aitaren pausuai jarraitu. Etzan izan, ez pintore, ez eskultore, Lege-gizon baizik, aitonaren pausuai jarraituaz.

Bañan, gauzak nola gertatzen diran! Ixkribau bezela, Elizetako Erretabloak-eta egiteko, Elizaren eta Eskultorearen artean eskriturak egiten zitularik, etorri zitzaion, dirudianez, berak ere eskultura-lan aiek egiteko gogoa... Eta, esanda-egin, buruz-beera sartu zan Eskultoretzan... Eta ez nolanaiko probetxuz sartu ere: bere denboran emen oietan izan dan Eskultorerik jatorrena, bereziena, "orijkialena" izatera iritxi bait zan. Euskal-abizen jator bat, gogor kamuflatua ezik, arte-kritikan gain-giroki astindu zuana.

\* \* \*

Bere artearen bikintasunez, ezin esan dezakegu emen, esan diteken gutzia. Ainbeste goralmen egin izan zaio eta egiten zaio gure Berrueta onen lanari.

Gure artean, Andres de Araoz, aurrekoz oñatiarra, jaiotzez gazteiztarra, izan zuan bere eskolako, bere ari bereko arte-zale. Bañan euskaldunen artean, gero etorritako —eta benetan fama aundiko Maisu, Anxietia, eta Bengoetxea, eta Larrea etab.— beste eskola bateko izan ziram.

Berrugueteren Eskultura, eskultura bizkorra, biurri-antza da; gerotxuago Antxietak-eta ekarritako "sosegudun" eta ondo neurtu takoa-rengandik oso bestelakoa.

"Biurri-antza" esan det; eta ala da izan ere; bañan ori bai, biurri sakona, ez axalekoa, ez itxura bakarrik, biurri barrukoia.

Biurri-antza orrek irudiaren esan-naiari, expresioari asko laguntzen bait dio; orregatik "biurri" baño areago esan bait genezaioke "expresivo", esan-nai aundiko Eskultura.

Bañan, axaletik begiraturik, beste gauza bat ere duana: gorputzaren atalak luze nai dituan Eskultura, luze ta mee... gero Grekok egin zuana: gora-bearra adierazten duan Artea: gora-gora; eta ortarako luzatu meetu... Olako asko bait du gure Berrugetek ere, Grekoren antzera.

Beste gure Araoz, ez da orren biurri-zoratua; goxoagoa baizik. Bañan ori ere, bai, gorputzaren atalen proportzioari ainbeste begiratu ga-be...

\* \* \*

Gure Berrugetek bere lanik ederrena, dudarik gabe, Toledo'ko Katedralean utzi zuan, Katedraleko Kanonigoen Koruan, Koruko exer-aulkietan, exer-aulkien bizkar-aldean... mundu berri bat utzi bait zigun gure Berrugetek, Koru arrigarri artan...

Eta, arritzekoa! mundu guztia arriturik daukan aulkidi arrigarri ura, etzaiola iñori gogoratzen euskal-odoleko artista bati zor zaionik. Iñori etzαιο gogoratzeit!, an, "berruga-karatxu" izenpean, euskerazko abizen jator bat ezkututzen danik: Berroeta bat, Berrueta bat, Beruhete bat...

G o T A

Itzaldi au prestatzen ari naizela gertatu zaidana esango dizuet orain: "Goya" abizenarekin gertatu zaidana; Berrugete'rekin gertatu zaidana bera.

Berrugete *berrugatik* datorren abizena, abizen erdalduna dala askok uste duan bezela, beste asko da, Goya ere abizen erdalduna dala uste duanik. Oraintxe ikusi det, Goyari buruzko estudio batean, Arte-kritiko batek diona, Goya *apellido aragonés* dala, alegia... Gezurra dirudi; bañan olakoxe gauzak irakurtzen ditugu aldian bein. Zer *apellido aragonés* uste dezute egiten dutela Kritiko oiek "Goya"? Ba dakizute nola, zenbait lekutan "Gregorio" esan bearrean "Goyo" esaten dan; emakumea danean, berriz, "Goya".

"Gregoria" egiten dute Kritiko oiek gure abizen euskaldun jatorra. *Goya = Gregoria*. Eta ain fresko gelditzen dira. (Pantorba).

Kritiko aundiak dira Kritiko oiek —aitortu bear zaie—; bañan aitortu bear, baita, abizenen jatorriai buruz ez daudela ain jakintsu, lastima dan bezela... Bañan, dana-dala, "gauzak, diran bezela" eta duana duanari aitortuaz.

jj: og: sf:

Goya, Europako Kritiko guztiak, XIX gizaldian munduan izan dan Pintorerik, romantiko-giróz eta realismoz aundiena aitortzen dutena ere —Zurbaran eta Berrugete bezelaxe— bera ere euskal-odolekoa zan. Eta ori ere ez diogu, etimologiaz bakarrik gidaturik; abizen orren odisea ere ezaguna degu, beste biona bezelaxe. Goya abizena, Goyerriko Zerain'dik



XVI gizaldian Aragon'go Fuentes de Jiloca'ra txango-egindako abizen bat da.

Zerain'en ba da Goia ta Goietxe izeneko auzo bat, izenak dion bezela oso goian dagona. Bada, XVI gizaldian, auzo artako mutil gazte bat, Domingo de Goya bat, orduan asko bezela, argintzako erremientak eta erropa-pardela bizkarrean zeramazkiala irten zan etxetik, eta Aragon'go Fuentes de Jiloca'ra joan, ango elizagiñan ari ziran argin-kuadrillarekim lan-egitera. Etzan argin-maisu, bañan ezta apendiz ere, ofizial baizik.

Fuentes de Jiloca ortan elizagiñan ari ziran. Eta ango argin-maisu zegon Garikano baten alaba Maria Garikamo'rekin ezkondu zan. Eta, berriz ere, arritzeko gauza bat geiago gure abizenai buruz: Ezkontzako paperetan Domingoren bigarren abizena, Etxeandia izan arren, papera aietan nola uste dezute azaltzen dala? "Villamayor"... Etxeandia = Villamayor, itzaren itzulketa bat egiñaz, "traduccio" bat; ez, ordea, Berrugueténean bezela, interpretazio farragarri bat... Zenbat gure abizen ez ote dabil, ortik zear, olako itxuraz "kamufaturik"!

\* \* \*

Andikan gerora, gure Domingo de Goya bere familiarekin, Jilocako Eliza bukatu zanean, beste Elizaren bat egitera beste erriren batera joan bide zan; eta ola, emendik atera ta an sartu, kontua da, XVIII gizaldian, Fuendetodos deritzan, Zaragoza-Probintziako errixka batean Goiatar bat igeltsero zala, antxe ja<sup>o</sup> zitzaigula Francisco de Goya Cifuentes, XIX gizaldiko Pintorerik famatuena... Olaxe, "Francisco de Goya".

Eta berriz ere, gure gauzaen arrigarria. Urte batzuek ba dira (Goyaren urteurren batzuetan) Madrideko Periodiko batean, Kritiko batek idazten zuana: etzekiala berak, zergatik Goyak beti ta beti, bere abizenaren aurretik DE bat ipintzen zuan,.. Ark etzuan jakingo, bañan guretzat gauza jakiña da gauza orren zergatia: Goyak bere gurasoengandik ikasia zeukala, bere abizenaren aurretik DE ori ipintzeko oitura, Zerain'go bere Birr-aitonak —Domingo DE Goyak— ipintzen zuan bezelaxe.

\* \* \*

Ez noa gañerakoan goraiatzera itzaldi ontan, Goya'ren lan aipagarria; ain da guztiontzat goi-goian aipatua...

Pintore erromantikoa, bañan denbora berean izugarri realista; XIX gizaldian munduan izan zan onena; mundu guztiko Museoak Goya'ren pinturak beren edergarririk ederrentzat gordetzen bait dituzte; eta iñoiz iñun Arte-subastarik egiten bada, Goya'ren lanak d'ra "kotizaziorik" goienekoak egiten dituztenak.

Eta ez noa geiago esatera.

\* \* \*

Bañan bai, nere itzaldi onen lenengo zatia bukatzerakoan gogorazi, diasporako iru euskaldun oieri zor zaiela, Españaiko Artearen aurrerapen aundia, Zurbarani realismo jator batean, Berrugueteri bizitasun biurri batean, eta Goyari koloretasun erromantiko berezi-berezian.

ARGIN-LANEAN

Eta jarrai dezagun, asitako lanean.

Erdi-Arako, Galezi eta Portugalgo "arguines" ziralakoen ariari jarraituaz, garbi-garbi esan dezakegu, ez dala España guztian izango Katedralik, argin euskaldunak an lan-egín gabekorik. Argin ofizialak, nun-nai; eta Argin Maisu eta baita Arkitekto jator ere, askotan. XVI gizaldian, batez ere.

Gizaldi aberats artan, emem auetan egindako Katedralik aundi ta ederrenak, dudarik gabe iru oek dira, XVI gizaldian: Salamanca, Sevilla eta Segobia: "zein baño zein" irurak, aundi ta ederrez. Bada irurotan, iru Argin-Maisu euskaldunek izan zuten parte, eta ez txiki-txikia: Juan de Alaba, Martin de Gaintza, eta Juan de Mugaguren.

Juan de Alaba, jayotzaz bitoriarra, 1550 in.guruan izan zan, Salamancako Katedral berri aundiaren Arkitekto plano-egille. Juan de Alaba berau izan zan, Sevillako bost "nabeko" Katedral ikaragarriaren erdiko "nabea" egin zuana —nabe gore-gorea, esan oi danez, Pariseko Notre Dame oso-osorik, batere bururik makurtu gabe pasea liteken nabe gore-gorea, gure bitoriarrak egiña—.

Eta irugarreni Katedral, bikain, Segobiakoan ere izan bait zuan bere parte garrantzi aundikoa. Egiten ari zirala, zerbait problema gaitz sortu zan tarte artan; eta, bearrik bazuten, gure Alabari dei-egin bear izan zioten, bere iritzia problema gaitz artan eman zezan; eta ordutik da-

tor, Arkitekturako Bibliografian liburu interesagarri bat geiago izatea: gure Alabaren "*Parecer apologético dé la Catedral de Segovia*".

Alaba onek beronek egin zuani baita, Plasenciako Katedralaren erdiko Kapilla Nagusia. Baita Salamancako San Esteban Konbentuko Eliz-aurre bikaiña ere. Eta Salamancan bertan baita San Agustinen Eliza ere.

\* \* \*

Sevillan, gizaldi artan bertan, ots aundiko beste izen, euskaldun bat ere izan zan : Martin de Gaintza. Martin de Gaintzak egiña da, Sevillako Katedral aundi artan "Erregeen Kapilla" esaten zaiona : —an bait dago obiraturik San Fernando Erregearen gorputza—. Gañtza onena berone-na da baita Katedralean bertan "Sala Kapitularrak" esaten zaion Areto apain ikusgarria. Eta Sovillan bertan "Hospital de las cinco Llagas" esaten zaion gaxoetxe elegante patxarakoa.

\* \* \*

Segobiako Katedralez, auxe degu esan bearrik, lenaz gain : XVII gizaldiko lenenigo urteetan Juan de Mugaguren bat izan zala, Elizako Kruzeroaren Kupula ausart-ausarta ipiñi zuana.

Ez goaz ezer esatera, beste zenbait Katedral, ez ain aundi ta ederrretaz, oietako asko ta asko Argin-Maisu euskaldunek egiñak diran arren : aietan bat Kalahorrrakoa, Juan Perez de Solarte markihar batek urte askotan egindako lana. Olako asko ta asko bait dago ortik zear baztarrretan.

\* \* \*

Bañan ba degu oraindik beste zerbait aipagarri, ez Katedraletaz, bear bada, bestelako Etxe-Monastegietaz baizik. Oietan bat, Leongo San Markosen Konbentu-Etxe aundi ederra. Erregezkoak Santiagotar Zaldunentzat egiñerazitako etxe aundi arrigarria. Obra orren Arkitektu, Erregeren enkarguz, Pedro de Larrea bat izan bait zan; eta lantegi aundi artako Argin-Maisuetan bat —eta denbora berean eskultore bikain—, Juan de Horozko bat. Biok garbi-garbi, euskaldunak.

\* \* \*

Beste bat geiago, eta au ere Konbentu-Etxe galant batean Eskoria-  
len ari izana: Pedro de Tolosa. Obra aundi aren lenengo Arkitekto  
Juan de Toledo'rekin lan-egiña, eta gero aren ondorengo Herrera'rekin  
laguntzalle burutsu izana, urte luzetan alako' obra galanta bukatu zan  
arte.

Bañan Eskorialeko lantegi ontaz, bai bait degu beste zerbait ere  
aipatu bearr'k, langille euskaldunai dagokien zerbait... Zer uste dezute?  
*plante, huelga* bat, argin euskaldunak Eskorial'en egiña.

Ara, zer gertatu zan.

Langilleren batek gaiztakeriren bat egin, eta Eskorialeko Alkateak,  
gaizkillea makillaz zigortzeko erabaki-sententzia eman. Eta baita ango  
Alguazillek zigortu ere. Berrogei, berrogeitamar makillazo? Ez dak^gu.  
Bañan langillea bizkaitarra izan nunbait, eta orra zer sorkari sortzen  
duten aren lagunak: Bizkaiko' Lege Zaarrak ez duala agintzen iñor biz-  
kaitarrrik jotzerik, eta Eskorialeko Alkateak *kontrafuero* egin zuala Biz-  
kaiko Fueroa'ren kontra, eta etzala ortan utzi bear gauza... Eta bigara-  
monean *plante* egin zuten...

Ez dakit egia dan, bañan esan oi da, uraxe izan zala Espaiñian le-  
nengo aldiz egin izan dan *huelga*. Ala bazan-ezpazan, euskaldunak izan  
ziran *huelga*-zale : Euskal-Fueroen *habeas corpus'en* alde...

Eta igaro gaHezen orain beste zerbaitetara.

JOANES DE ALABA

Argin-Maisuen izendegi au bukatu baño leen, berriz ere Juanes de  
Alaba aundiaren izena aipatu bear degu: Konpostela'ko Santiyago'n  
egin zituan lanak gogoratzeko lenengo, eta bigarren, bere jaioterrian,  
Gasteitz'en egin zuan beste lan berezi bat goratzeko.

• & &

Santiyago'n lan asko egin zuan gure Alabak; aien artean, batez ere  
bi: lenengo, Katedraleko Klaustro aundi izugarria, inguruan dauzkan  
zenbait Kapillakin; eta bigarren, "Colegio de Fonseca" dalakoa, bere  
Klaustro-Patio' alai panpiñarekin.

% \$ ^

Gasteitz'en aipatu nai deguna, Jauregi-Palazio bat da: *Campillo* deritzan bizkargunean dagon "Araba-Eskibeldarren Jauregia". XVI gizaldiko Jauregi jatorra, kanpotik armarridun sarrera ederrarekin, eta barrutik arkudun Patio ikusgarriarekin, eta Tellatu-egatzean, gutxitan ikusten dan bezelako apaingarri berezi batekiini: kate-itxurako, arri landuzko greka luze bat, tellatu guztiaren ingurumarian, bururen-buru... Apaingarri au oso gutxitan ikusten dan gauza bait da! guk dakigunez, Santiyagoko "Hospital del Rey" esaten zitzaion etxe aundi apaiñean bakarrik; eta, bear bada Gasteiz'ko gure katea baño xingleagoa, gure au benetan kate sendo' indartsua bait da.

Ortaz gañera beste detalle bat, jakingarria : Patioko beeko arkupea eta goiko galeria, oitu ez bezela eratuak daudela. Arkitektoen artean axioma bezela da, goiko pillareak beekoen parean bear dutela egon; bañan Gasteiz'ko gure Jauregi ontan, goiko pillareak ez beekoen parean, beekoen arku-gañean apiatzen dira baizik... ez beeko pillareen gañean, beeko arkuaren uztai-gañean baizik.

Gauza au bera egin ba't zuan beste norbaitek ere, Abila'ko Santo Tomas'en Konbentuko Klaustroan... gure Alaba'ri, berriz, egiera ori gauza atsegina izan munbait.

Barruko Patioaz gañera, bai bait du Gasteiz'ko Jauregiak beste Galereri polit bat ere kanpo-aldetik.

Ikusten danez, dana eder, dana apain, Joanes de Alaba aundiak bere Errian, bere izeneko Etxeari, poz batean, eskeiñitako opari ikusgarria: "Alaba-Eskibeltarren Jauregia".

## O Ñ A T E

Bukatu baño leen, berriz ere, egoki izango da, gure Argin-Maisuak Gipuzkoan utzi ziguten, beren maisu-muestra bat ikustea. Oñati'ko Unibertsidadea eta Oñati'ko Elizako<sup>1</sup> Klaustroa.

\* \* \*

Gipuzkoa'ko edozein Eliza naikoa litzake ortarako; bañan Eliza baikoitzarekin egin nai bagendu, amabi bat au bezelako itzaldi ez bait lirateke naikoak zertxobait esateko, aipa dezagun, esan dedan bezela, Oña-

ti erri ederreko Unibertsidadea eta Elizako Klaustroa. Aipatu beste-rik ez.

\* \* \*

Biok, XVI gizaldiko lanak dira; oñatiar ospetsu batek bere Erriari opa izandakoak: Rodrigo Marcado de Zuazola, Abila'ko Gotzai eta Nafarroa'ko Virrey-Erregeordekoa izan zan oñatiar ospetsu eta eskuza-balak opa izandakoak.

Unibertsidadea, beste Unibertsidadeak bezela agiña dago: erdian Patio zabala duan etxe laukotea. Patio eder, arku ta galeri-duna. Laukotearen zatietan eratuak, bai Eliza, bai Akademi-Sala, bai Liburutegia, bai zortzi edo amar Katedra-Erakusgela... Eta dana, edergarriz oparo apaindua, bai barru ta bai kanpo...

Olako etxe apañn bikaiña egin zuan Argin-Maisua ba dakigu zein izan zan : Domingo de Guerra, iñolaz ere Oñati-ingurukoa.

Eta ontan utziko degu, gure Argin-Maisuai dagokien zatia.

MARGOLARI-PINTOREAK

Garai artako —XV gizaldiko— Piiiitoretaz gauza gutxi esango degu. Bi izen bakarrik.

Bata, leengo ariari jarraituaz, izen kamuflatua.

Nafarroako Zintruenigo'n, Nafarroan beste leku askotan bezela, "tabla" ;pintatuzko Aldare bat dago Kapilla batean. Pintura ederrak benetan. Egillea nor dan, galdetu, eta, Arthistorizaleak Eschepertz bat omen zala diote : Flandres-aldeko Artista bat, alegia.

Nere lantxo artan nik, Astigarribia'ko arkikizun ura pixka bat geiago jazteko ta babesteko, egitura bereko beste zenbait arte-gai, gure ingurumari ontakoak, aipatu nituan: aietan bat, Bizkaian, Mañaria'n, koba batean arkitutako ontzi berarizko bat, —kopa aundi bat— VIII gizaldia baño' leenago Bataio Santua ospatzeko erabilli oi ziranetakoa. Eta aipatu nuan, baita, Bataio-kontu bereko beste zerbait ere; eta bera Gipuzkoa'n: Ormaiztegi'ko Bataio-Pontea.

Ponte onek dituan edergarriak, benetan romaniko-garaia baño leenagoko edergarri berezi-bereziak bait dira: sinboloz betetako edergarri geometrikoak —kurpil eta uztai— alegia; ots, Kristautasunaren Mistoriorik aundienak adierazteko sinboloz beteak: Jaungoikoaren Batasun ta Irutasuna, eta gure Birrerostea, Jesus'en eta Ama Birjiñaren bitartez... Eta Guzti ori, ain egoki, marrazki "geometrikoz"... Ots: gaurko artista abstrakto-zaleak egingo luketen bezela-beezlaxe, bat ere "figurarikan" gabe, marrazki geometrikoz uts-utsik: kurpil eta uztai-erdi...

Geroztik, azkeneko urte otan, beti ere olako zerbaiten billa ibilli izan naiz, visigotiko-arrasto oni gure artean jarraikiaz. Eta, or nun, leen-

go batean ark'tu dedan beste Bataio-Ponte bat, edergarri visigotikoz apaindua: Astigarribia'ko leioa bezela, berriz ere zaldi-perra-itxurako arkuz apaindua, alegia. Nun? Idiazabal'en : Idiazabal'go Bataio-Pontea.

§ fjs ^s

Idiazabal'go EHzak —arritzekoa— bi Ponte ditu; biok korupean; bata Epistola-aldetik, eta bestea Ebanjelio-aldetik. Ponte visigotikoa, Ejjistola-aldetikan dago.

Pontea apaintzen duten arku visigotiko oiek, bata bestearen ondoan illaran-illaran, greka bat, jjuñtillatxo bat bezela osatzen dute, pontearen goienean (ikus); beeratxo, berr'z, zerra-ortz-illarak beste puntillatxo bat egiten du.

Ponte visigotiko bat Idiazabal'en... Ez bait da utsaren urrengo gauza bat. Batez ere gure antziña-antziñako kristautasunaren iritzia oiñarri sendoan apiatzeko : gure, orain milla, milla-ta-bosteun urteko kristautasunaren testigantzatarako...

\* \* \*

Ponte au —olako Ponte zaar-zaarra— Idiazabal batean arkitzeak ere, ba du bere isturi ta bere explikameii.

Idiazabal'en ba da esaera bat, gauza au ederkitxo explika lezakeana. Esaera da, Idiazabal'go leengo Eliza zaarra, ez orain dagon lekuan —erreak-aldean— goragoko' kasko batean zaizik zegola: Gurutzeta'n. Eta ez dirudi bat-ere gezurra dauik. Antziñako gure Elizak —Gipuzkoa'ko ta Bizkai'ko El'zak— goietan ziran. Orain Ermita biurturik dauden Elizatxoak ziran gure leenagoko Elizak. Eta oietako bat da Idiazabal'go Gurutzeta'ko Ermita. Artzai-garaiko Eliza. Nekazar'tza erriberatan sortu zanean, etorri ziran Elizak beeretara. Léen, artzai-garaian, Elizak goietan izan oi ziran.

Goietan, aldé bateúk; eta leku erosoetan bestetik; jendea errez biltzeko leku erosoetan; ots, bide-gurutzetan-da. Idiazabal'go Gurutzeta ere alaxe bait dago. "Gurutzeta" izen ori ortatitxik datorkio : bidagurutzete batean dagolako. Olaberria'tik datorren bidea —antziñako galtzada zaarra— eta Ataun-aldetik datorrena, biok ortxe alkartzen bait dira, ortik Idiazabal'era jeisteko eta gero Segura'ra jarraitzeko: Gurutzetan.

"Gurutzeta" izena, ez da —beste gabe pentsa litekean bezela— Ermitan Gurutze Santureni bat dagolako; Gurutzetan agurtzen dana, Gurutze Santua ez baño, "Andra Mari" da —polit askoa gaiñera, gotikoa, eseritakoa, oraín seireun urtekoa.

sjf ^a %

Orra orain, bukatzeko. Ponteari buruz nere iritzia. Nik uste, gaur Idiazabal'go San Migel Elizan dagon korupeko —Epistola-aldeko— Ponte zaarra Gurutzeta'ko Ermitatikan jetxia dala, jetxia edo obeto "eraxia".

—Noiz? Ez dakigu; Artxiboetan ikusi bearako. Bañan, nola-nai ere, ez aspaldi-aspaldi. Korupe berean, Ebanjelio-aldetik baztarturik dagon bestea beintzat ez da oso zaarra.

\* \* \*

Orra, itz gutxitan esan, nik idiazabaldarrentzako neukan esatekoa: beren Elizako Bataio-Ponte ori, orain milla bat urtekoa, Ponte visigotikoa dutela. Ala sinisterazten bait digu bete-betean, Ponteak bere azalean ageri duan zaldiperra-antzekodun apaingarri berezi orrek.

## II

Ormaiztegi'ko Ponteak, visigotikotzat jotzen det nik. Ez, ordea, Idiazabal'goaren bide beretik; beste bide batetik baizik. Idiazabal'goak, bere gerri-gerriko grekaren marrazki dibujoa du visigotikoa —zaldi-peirazko uztai txikiz osotutakoa, alegia.

Ormaiztegi'ko Ponteak, ordea, beste gauza bat du, neretzat, oso visigotikoa: bere gerri-aldeko sinboloera.

Ponteak, beren gerri-aldean, marrazki edo figura batzuek izan oi-dituzte edergarri: dirala edergarri utsak, dirala sinboloak. Askotan edergarri utsak oi-dira: errosetak, adibidez, edo heraldika-gaiak (Asteasu'koak heraldika-gaiak ditu, bikain askoak). Besteetan, sinboloak oi-dira; Zerain'goak, adibidez, eguzkia ta illargia, eta leoia ta aritzadarrak, reliebe nabarmen-nabarmenean.

Ormaiztegi'koa ere, sinbolo-kontuan da berezi-berezia. Ez, ordea, sinboloen ugariz bakarrik —gero ikusiko degu zenbaterano—; sinboloen egikera alakoa dualako baizik; egikera estilizatu-estilizatua, egikera abstraktua, alegia.

\* \* \*

Artea, aurrera-alean, realista biurtu izan da gure artean. (Ez natxio orain, mundu guztiko ta betiko arteari, gure arteko eta milla pare bat urtez onuztikoari baizik; leenagokoak eta urrutietakoak beste gorabeera batzuek izan dituztena, ba dakigu).

Romaniko-garaia oso sinbolo-zalea izan zan; gotikoa, berriz, realista goa; eta Renazimentua, zer esanik ez.

Orretaz gaiñera, zenbat-eta sinbolo-zaleago, orduan-ta estilizatuago izan dala gure artea. Legea da. Romanikoa, gotikoa baño estilizatuago.

Beste au gaiñera: romanikoak bere estilizazio ta sinbolismoa, besteak beste, marrazkien txiki-aundiaren bidez osatzen dituala. Santuak, adibidez, bestelako' norkiak baño aundiagoak egiten ditu, Santuen malla goreaa adierazteko; eta Jaungoikozko Norkiak, edozein Santu baño aundiagoak. Burua, gorputz guztia bezain aundi edo-ta aundiago, norkiaren nortasuna adierazteko; Aita Jaungoikoaren eskua, burua baño aundiago, Aitaren guztialtasuna adierazteko. Ola estilizatzen ditu Romanikoak bere lanak. "Arte abstraktua" esan oi-zaio orain guzti orri. Eta, dala "abstrakzio", dala "estilizazio", Romanikoak guzti ori sínbolismoaren laungutzalle ta morroi bezela erabilli izan du. Legea da.

Orain bada, lege orren barruan, Romanikoa abstrakto-zale izan bada, pre-Romanikoa —Romaniko-aurrekoa— Romanikoa bera baño abstrakto-zaleago izan bear.

Orixe da, ain zuzen, Ormaiztegi'ko Pontean guk ikusten deguna. Izan liteken abstrakziorik aundiena erabiltzen du, kristau-sinboloak eratzeko: ots! geometri-figurak. Marrazki geometrikoz adierazten dizkigu Kristautasunaren Misterio-ak. Ez eguzki edo illargi-figuraz —Zerain'goak bezela—; marrazki, dibujo geometrikoz baizik. Marrazki geometrikoak: ots! uztaiak eta uztaiak; uzta aundiak eta uzta txikiak; uzta bereziak eta uzta alkartuak; uzta osoak eta uzta-erdiak. Batzuek besteen ondoren ipiñiak, batzuek besteekin alkartuak, beren esankizuna ola esan naiez. Orixe da Armaiztegi'ko Pontean ikusten degun artemueta.

Begira banan-banan.



\* \* \*

Pontearen gerriko edergarri estilizatu, abstraktu oiek, Kredoaren zenbait siniskai adierazten digute : Bataioan ain zuzen aitortzen degun Kredoaren siniskaiak.

Bururen-buru, uztai kurpil aundi bat daukagu, radio-makoduna. Kurpil aundi bakar onek, Jaungoiko Bakarra adierazten digu.

Ondoren datozen iru uztai txikiagoak, Jaungoikoaren Irutasuna esan nai dute. Detalle bat gañera : Iru uztaiak elkarrekin katiatuak agiri dira; ez, ordea, ikutuz bakarrik, uztaien alkar-ebakiz baizik, iru Pertsonak izate-bereko dirala adierazi bearrez... Ez bait diteke bide egokiagorik aukeratu iruron izate-berekotasun ori adierazteko.

Or dauzkagu, beraz, gure Sinismenaren iru siniskai : Jaungoikoaren Batasuna, eta Irutasuna, eta Iruron Izateberekotasuna.

Bañan ez bait da ori bakarrik. Gure Salbamina ere adierazten da er, egoki asko, bide berari jarraituaz: ots! uztai-bideari jarraituaz. Azkeneko bi uztaien artean, goi-aldetik, uztai-zati bat —arkutxo bat— agiri da; eta azpi-aldetik beste uztai-zati bat. Ez Misterio gabe.

Azkeneko bi uztai oiek, Semea ta Espiritu Santua dira. Eta goi-aldeko uztai-zatia, neretzat Ama Birpiña da, Espiritu Santuaren egitez gure Salbatzaille Jesus eman ziguna. Eta azpi-aldeko uztai-zatia, ain xuxen, gure Salbatzaille Jesus bera da. Orra or, Jaungoikoaren Semearen Gizon-Egitea, eta Gizon-Egite orren frutu eder, Jesus gure Salbatzaillea. Itz bitan : gure Salbamenaren Misterioa.

Olakoxe sinbolismoz eta estilizazioz beterik, anpaturik, ikusten degu Ormaiztegi'ko Ponte ori. Benetan Romaniko-aurreko giroan leporaño sartua ; pre-Romaniko-giroan ; dala visigotiko, dala mozarabe ; bañan Romanikoa baño ondotox garai zaarragokoan... gure kristautasun zaar-zaarraren ezaugarri ta ageri argi. Sevilla'ko San Isidoro'ren eta Toledo'-ko San Eugenio'ren garaiko giroan sartu-sarturik.

^! 5!t ^S

Ba dakit zer galdera etorriko zaien burura nere irakurtzailleen batzuei une ontan: ea visigotiko-garaian' olako ponteetan bataiatzen ziran? ea bataiatzen etziran uretan sartuta *per immersionem*?

Izan ere, esan oi da, bai, Elizaren asieran, lenengo urteetan, iturrle-tan-da, uretan sartuta bataiatzen zirana. Ala bataiatu bait zuan Felipe'k, Etiopia'ko' Kandaze'ko Erregiñaren diruzai aundiki ura: bide-ondoko "ur" batean. Bañan gauza guztiak izan oi dituzte beren bereizkuntzak. San Pedro'k, bere itzaldi sonatu artan, zipriztinduaz bataiatu bide zituan arako 3.000 entzule aiek. Gauza guztiak izan oi dute beren bereizkuntza. Elizaren lenengo urteez gero, ordea, *per infusionem*, ura burutik beera ixuriaz bataiatzeko oitura ere oso garaiz sortu zan.

Guk, gai ontan gure inguru oietaz dakiguna, auxe da: Araba'ko Eliza visigotikoetan —oietaz ere noizpait mintzatu bear bait degu— Araba'ko Eliza visigotiko batean, Faido'ko Andra Maria'ren Ermita visigotikoan, ba dala Ponte bat; eta, ain zuzen, gure bi oien antzantzekoa dala, Ormaiztegi'ko ta Idiazabal'goaren antzantzekoa, alegia; aundiz, ez aundia-go; eta egituraz berdin. Ori bai; ez duala gure bi oiek duten oiñarri luze pillare-antzekorik, baizik-eta ontzia bera lurrari ia erantsia daukala. (Ikus). Baiñan, Ormaiztegi'ko ta Idiazabal'goaren egoera ori, izan bait liteke, pillare-antzeko oin ori gerozt k erantsi zaielako. Beren izae-ra jatorrez, oiek ere —Faido'koa bezela— bajotxoak eta lurrari ia erantsiak bide ziran, ots! bataiatzekoa ontzi-barruan zutik errez jartzeko eran...

Kontua da —eta ontaz bukatzera noa— kontua da, Ormaiztegi'ko ta Idiazabal'go Ponteen berdin-berdin bat Eliza visigotiko batean arkitzen degula; eta, ain zuzen, ur-ixurtzez bataiatzekoa.

### III

#### SINIBOLOAK

Azkeneko, gure Arte-lanai buruzko artikuluan, Ormaiztegi'ko Ba-taio-Ponte, sinboloz bete-betea ikusi genduan.

Ez gaitzala arri gauza orrek. Orlako sinboloz anpatutako' beste arte-lan bat ikusiko degu gaur, artikulu ontan. Nañarroa'n, Ag'naga erri txikian agurtzen dan irudi bat, Irutasunaren irudi bikain bat: "Irurtzun'go *Trintate*" esaten zaion Ermita goi-gorean. Irutasun-irudi gotiko marmolezkoa. Bera ere sinboloz bete-betea.

Bañan digresio bat leenago.

\  
l:S )  
L V .  
•X \*  
• % .

'••HBMíí

-L&&/&&'&:•

.....



*ldiazabal'go batayo Pontea*



\* \* \*

Artzai euskaldunen artean ba da esaunda jator ta bitxi-bitxi bat: Irutasun Ermita batetik, beti ere, beste bi Irutasun-Ermita ikusten dirala. Sonatua da Nafarroa'n Sunbilla-gañeko Mendaur mendi auñdia, "Trinidademendi" esaten zaiona. Ermita gore-gore artatik, bera bezeláko, beste bi ikusten dirala esan oi da: bata, "Irurtzun'go (Aginaga'ko obeto) *Trintate* (olaxe, latin zaarretik zuzenean artua izena), eta bestea, Aizkorri'ko "San Adriam" esan oi dana; artzai-jendearentzat, San Adrian ez baño "*Santatri*" "Sancta Trinitas" bait da.

Eta goazen orain gure leengo arira.

\* \* \*

Irurtzun'go Tr'ntateko Irudia, artez oso' ederraz gañera, sinboloz bete-betea da.

Ikustagun.

Marmol zurizko órudi bitxi au, gotikoa da. Aita Betikoa eserita, Errege edo Enperadore bizardun; tolestura jator-jatordun jantzia soñean, eta lili-loredun kproe apaña buruan... Eta Aitaren altzoan, Seme gurutziltzatua... eta Aitak gurutzearen eskuiko besoraño luzatua bere eskuiko eskua, gurutzeari eusten... Eta Semearen buru-gañean kokatua Espiritu Santua, Uso Zuri ederra... Eta, emen sinbolo bitxi bat: Usoaren bi egoak, biurri-biurri, ezkerrekoaren muturra Semearen aotik irteten, eta eskuikoarena, Aitarenetik... Sinbolo onek, Espiritu Santuaren "sorre-ra"—prozesioa— Aitarengandik eta Semearengandik, esan nai ba't du.

\* # \* •

Gauza jakiña da Elizaren Historian, nolako' ezta-baidak izan ziran aspaldi-aspaldidanik, Sortaldeko ta Sartaldeko bi El'zen artean gai ontaz: "Espiritu Santua nund'k datorren", Aitagandik, Semea bezela, ala Aita ta Semeagandik, biokandik? Sartaldekoak biokandik —*ex Paitre Fi-Hoque*— esaten bait degu Kredoa; bañan Sortaldekoak Fii?fo</ue'rikan gabe nai dute. Eta XIII gizaldian bertan asko ast'ndu zan ezta-baita be-  
rau.

Gure Trintateko marmolezko irudi ederrak, XIII gizaldiaren oiar-tzun bat dirudi Espiritu Santuarekiko gai ontan.

\* \* \*

Bañan ba dirudi irudi bikain onek bere baitan beste sinbolo' eder bat ere, ba duala oso XIII gizaldikoa: Eukaristiaren sinbolo bitxi bat. Be-giira.

Espiritu Santuaren uso txuri ederrak, bere mokotxo luzatuan, Euka-ristiaren Ostia daramaki; eta, lepoa alde batera luzatuaz, Ostiarekin Aitaren eta Semearen eskuak ikutzen ditu (Ikus edergarria); Eukarstia Irutasunaren erregali, "esku-ageri" bat degula adierazi bearrez nunbait: Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren erregali, doaia, alegia...

Itz bitan: orra or beraz sinboloz bete-beterik dagon Irudi aberatsa : bost misteriozko bilduma :

- 1) Jaungoikoaren Batasun ta Irutasuna.
- 2) Espiritu Santuaren Aita ta Semeagandiko etortzea.
- 3) Seme Jesus'en Gurutzeko Eriotz eta gure Salbamena.
- 4) Eukaristiaren doai bikaña.
- 5) Eta oraindik beste misteriozko detalletxo bat: Aitak bere ezke-rreko eskuan daukan gordairu, joyel edo kutxatilla (ikus edergarria). Zer ad'erazi nai ote digu kutxatitil orrek? Ez bait dakigu. Beste Misterio ezkuturen bat nunbait. Nork daki?

\* \* \*

Ez degu esangO', Irurtzun'go Trintate'ko Irudi eder au visigotikoa danik. Esan degu, gotikoa, XIII gizaldikoa dana. Bañan orrenbeste sin-boloz betea izate orrek, irudi au visigotikoaren "arian" ipintzen duala diogu, nola-nai ere; antziña-antziñako garai aietako neurri bat agertzen digula: dana sinbolo, alegia. Ormaiztegi'ko Bataio-Pontea bezela. Ori bai, Ormaiztegi'ko sinboloak geometriko abstraktoak dirala; eta Trinta-tekoak, berriz, oso bestera, figuratiboak. Bañan nola-nai ere biok antzi-ñako giro artako sinbolo-zale aundi baten neurri-neurrian : dala sinbolo abstrakto, dala sinbolo figurativo.

Antziñako usai berauxe dario gure Irudiaren izenak berak ere; ez bait da *Trinidad*e, *Trintate* baizik latinezko "Trinitate'ren" bi *t* oiek

osorik berekin gorderik dituala; erderazko t/'tara iritxi gabe, alegia: *Trintate.*, Antziñ-usai: visigotiko-usai...

\* \* \*

Azken-oarpen bat orain, Irudi oni buruz.

Nere bizi guztian ez dedala arkitu, iñun ere, beste orenbeste sinboloz anpatutako irudirik: bost Misterio, sintesis arrigarri batean. Eta sinbolo bitxi-bitxia, batez ere, Espiritu Santuari dagokion egoera berezi-berezia: Uso txuri ederrak bere bi egoak, bata Aitaren aotik, eta bestea Semearenetik sortzea... olako egoera biurrituan.

Beste kasu bakar bat dakit, Usoaren bi egoak bi aotatik sortze-kontu ortakorik: Aviñon'go triptiko bat, Irutasun-Triptikoa: Aita eta Semea, bata bestearen ondoan eserita, bion artean Andre Maria koroatzen, eta, erdi-erdian, Andre Maria'ren burugañean kokaturik, Espiritu Santua, berriz ere "Uso txuri eder", bi egoak zabal-zabalik (ez, ordea, biurriturrik, berdiñean baizik) ego-mutur bata Aitaren aotik, eta bestea Semearenetik ateratzen...

Irurtzun'go ta Aviñon'goak, asmo ber-bera ageri dute; bi egoeratan ezik: Irurtzun'goan Aita eta Semea ez bait daude ezker-eskubi, bata goian eta beste beian baizik; eta ola, Usoaren egoak ez daude, Aviñon'goan bezela, biok berdiñean, goibe makurrean baizik, egoera benetan biurrian (Ikus edergarria).

\* \* \*

Bukatzeko: olakoxe Misterioz eta sinboloz anpatu-anpatutako arte-ga^ak eskeintzen dizkigutela, bai visigotikoak, bai romanikoak, bai gotikoak ere; izaera ta egoera ez-berdiñean ezik: Ormaiztegi'ko Pontean, abstrakto-eran; Irurtzun'go Trintaten, irudi-eran : batean ezur-uts; bestean aragiz jantzi. Bañan beti ere, bata besteari laguntzen, batak besteari argi-egiten.

## IV

## BATAIO-ONTZI BISIGOTIKO BAI

Gaur beste gauzatxo bisigotiko bat ikusi bear degu. Ez, ordea, Gipuzkoa'n, Bizkaia'n baizik; bañan ori bai, Gipuzkoa'ko bisigotiko auziarantzako argigarri izan liteken gauzatxo bat.

Gure lenengo bi artikuloetan, Gipuzkoa'ko bi gauza bisigotiko ikusiak ditugu; biok Bataio-gaietakoak : bi Batalo-ponte : Ormaiztegi'koa eta Idiazabal'goa. Irugarren artikuloan, Naparroa'ko, sinboloz beterik dagon irudi bikain baten bitartez, Ormaiztegi'ko Pontearen sinbolodia argitu degu. Gaur ere bide berari jarraituaz, Bizkai'ko beste bisigotiko-gai bat aipatu bear degu, leengo Bataio-gai ura bera —bisigotiko Bataio-gaia— argituaz.

Gaurko ikusgarria ez da Ponte bat; Bataio-ontzi bat izango degu. Ontzi bisigot'koa, Bizkaia'n arkitua : Mañaria'n, koba-zulo batean. Gauza guzti oiek zerbait argi ekarri bait lezateke gure arira.

Ontzia —ikus edergarria— j>itxertxo bat da, ontzi luzexka, poliki talletua, naiko artez egindakoa; brontzezkoa; beste lekuetan Bataiorako erabilli izan diran zenbait ontziren berdiña.

Bizkaia'n arkitua, esan degu, Mañaria'n, koba-zulo batean...

\* \* \*

Ba dakigu, Araba'n, Trebiño-aldeanda, bisigotiko-aztarrenak naiko ugari arkitzen dirana. Gure Bataio-ontzi ori inguru aietan arkitu izan bal'tz, etzan arritzeko gauza izango. Bañan Mañaria ez bait dago, ez Trebiño'n ez inguru aietan ere; Bizkaia'ren biotz-biotzen baizik. Orixe da ontzi onen interes berezietan bat. Bizkaia'ren biotzean arkitua izatea; Ormaiztegi ta Idiazabal Gipuzkoa'ren biotzean dauden bezela. Gai ontan irurok berdin, irurok alkarri argi-egiten diotela.

Koba-zuloan arkitu izanak ere ba du bere interes berezia. Interes ez txikia, Euskalerraren kristautzearen asierari buruz.

Ikustagun.



. Arestian aipatu ditugun Trebiño-inguruko bisigotiko-aztarrenak, koba batzuek dira, ain zuzen. "Trebiño" diogu; bañan obeto esateko, Araba'k Errioxa'rekin eta Burgos'ekin duan mugaren ingurua da koba oien lekua : Markiniz'tik asi, eta Laño ta Faido'n barrena, Pinedo ta Korro'raño... Azkeneko bi oiek Baldegobia'n bait daude.

Alde bat dagola, ezik, koba aien eta Mañaria'koaren artean; Mañaria'koa, berezko troska da, berezko koba; Araba-inguruko aiek, berriz, gizonak eskuz egindakoak. Bañan, nola-nai dala, danak, kobak; eta, nola-nai dala, batzuek eta besteak, gure antziña-antziñako kristautasunaren aztarren argi-argiak.

Araba'koak, antziña-antziñako ermitaño bakartiak —ala nola Kogolla'ko San Millan bat, eta Armentia'ko San Prudentzio bat— bizi izandako leku bisigotikoak dira. Bisigotiko-garaian gure Santuak kobaetan bizi izaten, alegia... Eta ikusten danez, antziñate artan Bizkaia'n Batáio<sup>1</sup> Santua ere kobaetan eman o<sup>^</sup>. Ala dira itxurak.

Antziñate aundi artan gure kristautasunak, oraindik, kobaetarako go. go eta iritzi, kobaetarako joera zeukan.

Gure txarrotxoaren historiari dagokionez, Mañaria'n, Iturrietako koban arkitu zan, orain 50 urte. Koba ori Mañaria'ko marmol-arrobietan dago, Kamiruagatarren etxe aurre-aurrean. Arkitze orren zenbait zertzelada, Anai Berriotxoaren lahtxo batetik jasoko degu guk (1).

Onela dio Anai Berriotxoak: "Madariaga'tar Andre Nikasia, Kamiruaga'ren alargunak erregali-egiñik, orain sartu da, betiereko, Bilbao'ko "Museo Arqueológico-Etnográfico"an, brontzezko txarrotxo hispano-bisigotikoa; bataio-ontzia; gizaldi onen bigarren amarreunean, edo irugarrenaren asieran arkitua, Iturrietako marmol-arrobietako koba batean, Kamiruagatarren etxeurrean, Mañaria'n.

"Olako gauza bat Euskalerrian arkitzeak, garrantzi aundia du benetan, gure Kristautasunaren asiera zaarra argitzeko. Garrantzi aundia gure Kristautasunaren histori-kontuan, arte-kontuan ain aundirik ez izan arren".

"16,60 zentimetro ditu luzean; gaur ez du esku-lekurik; uztai batzuek bai, ontziaren erdi-aldean, aietako bat txarroaren lodi-unean".

(1) H. BERRIOCHOA, *El jairito de ritual visigodo de la cueva de Iturrieta de Mañaria*. "Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País". XIV (1986) 454-455.

"Euskalerrria'n oraindaño ez da au besterik arkitu era ontako bataio-ontzirik. Espaiñi-lur zabalean, bai, arkitu izan dira; eta gordetzen ere dira, dala Bartzelona'ko "Museo Arqueológico"an; dala Sarria'ko' Jesu-lagunen Museoan; dala Madrid'eko "Museo Arqueológico Nacional"-ean; dala Leon'go "Museo Arqueológico" eta "Comisión de Monumentos"en; dala Madrid'en, "Valencia de Don Juan"ena deritzan Institutoan; dala Londres'ko "British Museum"en; dala Kolonia'ko "Kunstgewerbes Museum"en".

"Gago Rabanal'ek ere ezagutuerazi zuan beste bat; bañan gaur galduzatz jotzen da".

"Espaiña'ko arkeologi-zale zenbaitzuek ikusi eta aztertu dituzte ontzi interesgarri auk: ikus olakoen lerro au: Pedro Palol Salellas: "Bronces hispano-visigodos de origen mediterráneo"; I. "Jarritas y patenas litúrgicas"; Madrid 1952, Edit. "Consejo Superior de Investigaciones Científicas"; Martin Almagro Bach. *Nota*: "Ampurias" IV, (1942, 227-228); Mario Grande Ramos: "La gran aventura del hombre sobre la tierra de Vizcaya", "El Correo Español - El Pueblo Vasco" de Bilbao, 1957-VII-27; 1957-VHI-2; Antonio Aguirre Andrés: "Materiales arqueológicos de Vizcaya", Bilbao 1955, 205-207".

"Oietaz gañera, orain amar-amabi urte, Bilbao'ko "El Correo Español - El Pueblo Vasco"n agertutako beste lan laburtxo' bat".

\* # \*

Gauza guzti auk garrantzi aund'a ematen diote gure Mañaria'ko bataio-öntziari. Orrenbeste Museotan gorde izanak, orrenbeste ta orrenbeste lari idatzierazi izanak. Eta batez ere, batzuek eta besteak, guztiok, ontzi oien bisigotiko-izaera aitortu izanak.

Bisigotiko-izaera au, guretzat, koba batean arkitu izanak ere asko argitzen eta indartzen du. Kobak, gure kristautasunaren asierarekin zer ikusi ta zer-esan aundia bait du, ondo aztertzea merezi duana benetan.

## V

## KRISTAUTASUN TROGLODITIKOA

Bat geiago, eta au boskarrena. Boskarren artikulua.

Eta ez, ain zuzen, orain arteko laurak bezela, Bataio-gai-ingurukoa, Au, gure antziñako kristautasunaren beraren ingurukoa izango da; Santuen agurtzaren ingurukoa.

Gure, antziña-antziñako Elizak, kobak ziran. Esan bait liteke, gure lenengo kristautasuna "trogloditiko" zala: koba-zalea. Leengo artikuluan esan genduana, alegia: gure asierako kristautasunak, kobaetarako "joera" zuala. Beragatikan, gaur, gauza onen argigarri, Euskalerrian ditugun, Santuen izeneko kobak ikus<sup>^</sup>ko ditugu. Ez, ordea, Araba'ko muturreko koba-zulo eskuz-egiñak bakarrik; baita Bizkai ta Gipuzkoa'ren blotzean ditugun koba jatorrak ere. Olako Santu-kobak naiko ugari bait ditugu Eusalerrri-barru-barruan ere.

Ikustagun.

\* \* \*

Araba'n, Trebiño-inguruan ditugun, eskuz-egindako koba asko garbi-garbi, Elizak dira. Elizaren egitura jator-jatorra dute: luzeskak; Sortaldetikan Sartaldera; Sortaldean, abside bisigotikoa bere Aldarearekin, eta, Aldarean, Santuen exurrak gordetzeko txulotxoa... Ikusi dituzten jak'ntsuak, ikusi bezain laister, zalantzarik-gabe, "Eliza bisigotikotzat" aitortu bait dituzte.

Ortaz gañera, an Ermitaño Bakartia bizi izandako ezaugarri bezela, Elizatxoan ezker-aldera, gela txiki bat agiri da. Ermitañoak bere Garizuma garratza itxian egiteko gelatxoa alegia (Kogolla'ko San Millan'en bezela-bezelaxe; Jaka'ko San Juan de la Peñan bezela-bezelaxe).

Laño'n, Eliza oietako batzuek gaur oraindik Santuen izenekoak dira. Eta Faido'n, batzuek santu-izenekoaz gañera, bat —ederrena— gaur oraindik Ama Birjiñaren Elizatxo (an bertakoak "Nuestra Sra. de la Peña" esaten bait diote, Jaka'n "San Juan de la Peña" esan oi dan bezelaxe). Atzo go<sup>^</sup>zeco izenak, eta atzo goizeko "izanak" danak, gu geurok ere, gauza askotan atzo goizekoak geran bezelaxe...

Olako kobak, leengoan esan genduan, Araba'ko mutur artan, Markíñez'tik asi-ta, Korro'raña, irurogei bat erreskadan daude, Laño'n zear, Faido'n zear, Pinedo'n zear. (Egia da Korrotarrak "Cuevas de los moros" esaten dietela... beti ere antziña-antziñako olako gauza arrigarriai esan oi zaien bezela; antziñako ta arrigarri diralako, "mairuen kobak").

\* \* \*

Guzti ori, an aietan, eta eskuz-egindako koba-zuloetan. Bañan gauza berdiña gertatzen bait da onuntzagoko koba jatorretan ere. Gure kristautasuna, garai batean, kobaetan bizi izana, ez da, eskuz-egindako kobaetako gauza bakarrik.

Trebiño-inguruko lurretan, mendiak ondar-arrizkoak dira, eta an ez dago koba jatorrik; eskuz-egindakoak, berriz, ermitañoak berak atxur. axkora batekin errex egin zitazteken; bañan andik urrut'-gabe, "Sierra de Cantabria" deritzan mendi-katean, mendi guztia karaitza da, eta alde batetik an ez'n egin zitekean eskuz kobarik, eta, beste aldetik, ba dira an bertan berezko koba jatorrak. Eada koba oiek, gaur oraindik, asko Santu-izeneko kobak dira... eta nolako Santu ganera !

An dago, Kanpezo aldera begira, "San Roman" izeneko\* Koba-Eliza; eta andikan Trebiño-aldera, Villafria-gañean "San Tirso" izenekoa; eta andik Miranda-alderago, Lagran-gañean, "San Kiliz" (San Kirlko ta Santa Julita diralakoena). Laurak ICoba-Elizak... aiek ere, noizpait, Ermitaño Bakartiak bizi izandakoak.

Araba'ko muturrean ori. Bañan Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n ere berd'n bait dauzkagu olako Santu izeneko Koba-Elizak. Or Aizkorri'n "San Adrian", eta Urrexola-atxean "Sandailli", eta Mondragoe'n "San Balerio"; eta Bizkaia'n "Santimamiñe"; gaur oraindik EHzatxo irauten dutenak, Santimamiñe ezik; bañan au ere noizpait Koba-Eliza izandakoa.

Eta, San Adrian eta Sandailli bai arren, San Balerio ta Santimamiñe ez bait daude ain Araba-aldean...

Bañan ba degu besterik ere gai onixe jarraituaz. Tolosa-iguruan—Tolosa-lurrean— Urkizu'n or daukagu "Zipirio" izeneko San Zipriano'ren Koba-EHzatxoa (gaur eroria, bañan bere izen jator ta guzi, jendearen gogoanean oraindik irauten duana). Bost Elizatxo, kristautasun bisigotiko bizi baten ezaugarri ta agiri argi-argi.

\* # \*

Izaera onen argigarri bezela, aipa bait liteke baita nabarmen beste zerbait ere; ez "kobatasmia" bakarrik; baita Santuen jatorri nabarmena ere; adibidez, San Zipriano, Santu afrikatarra zala; arenganako jaiera Euskalerrira ez bait zitzaigun Toledo-aldetik etorri, beste bideren batetik ba<sup>1</sup>zik. Eta berdintsu esan liteke Santimamin'entzat eta Sandailli'rentzat. Gaur "Martyrologium Romanum'en" sarrera eman bearrez, Sandailli "San Elias" dala eta Santimamiñe "San Mames" dala esan oi dan arren, nork daki, bi izen oiek zer izen diran? Lagran-gañeko San Kiliz bezela... Euskalerrian bertako Santu zaar batzuen izen jatorrak zergatik izan ez?

Tolosa'ko "Zipirioz" guk au esan dezakegu: Santu onen izena, "Sanik" gabe esan oi dala inguru aietan; ez "San", ez "Santi", ez "Done"; "Zipirio" so'I-soillik, antziñatasun aundi baten agiri nunbait.

Guk beste bi Santu dakizkigu Euskalerrian, *Sanik* eta *Donerik* gabe esaten diranak: biok antziña-antziñaakoak: Zaldibia'n bat, "Saturdi"; eta Lezo'n bestea (eta Endaia-inguruan) "Bix'ntxo"; Saturdi, San Saturnino bait da, eta Bixintxo, San Bizente. Santu bi, Santuen izenak oraindikan "Sanik" gabe, soil-soillik esaten ziran garaian euskaldunen jaiera b'dean sartuak: *San* baño leenago, *Santi* baño leenago, *Done* baño ere leenagO' gure debozioetan sartuak alegia.

Eta ez goaz geiago esatera.



## El Románico en Guipúzcoa

Sin apenas salir del tema de las rutas jacobeanas, tan de actualidad en este año jubilar, y que el pasado año tocamos nosotros de intento en esta misma revista "Oarso", vamos a tocar hoy el tema —también apasionante— de k\* románico en Guipúzcoa.

Las peregrinaciones, tanto las santiaguistas como las romanas y las herosolimitanas, contribuyeron, sin duda, a la difusión del cristianismo en el riñón del país vasco, que es nuestra Guipúzcoa; y los "testigos" en que quedó cristalizada la constancia sucesiva de aquella cristianización fueron, entre nosotros, principalmente, los monumentos de la época románica. Los monumentos románicos de Guipúzcoa son un índice histórico de nuestra cristianización.

Si se quiere estudiar el fenómeno de la cristianización de Guipúzcoa es necesario de toda necesidad investigar los restos románicos, constataando su calidad y su difusión en el ámbito geográfico del país. Nunca se podrá dar un paso seguro en este terreno sin aquella investigación. Es inútil esperar nada serio de la documentación escrita. Nuestro pueblo se movió por largos años al margen de la constancia escrita de los episodios de su vida. Y la documentación indirecta, de otros países que se rozaron con el nuestro, inevitablemente tiene que ser incompleta, si no ya falseada por la pasión de la rivalidad. El único testimonio verdaderamente solvente en esta materia es el monumento, el monumento románico, el monumento de la Edad Media, más o menos alta, más o menos remota.

Ahora bien, ¿cómo estamos en Guipúzcoa en esta materia?

Ha habido una postura un tanto inconsciente de negar alegremente la existencia de lo románico en nuestro pueblo. Alegremente, sin hacer una investigación un tanto paciente.

La verdad, sin embargo, es otra, completamente otra. En Guipúzcoa hay román'co. Las iglesias guipuzcoanas no son solamente góticas o del renacimiento, sino que hay también iglesias que ostentan muestras muy

elocuentes de la época y arte románicos. Y hasta hay alguna que ostenta una singularísima muestra de algo visigótico o, por lo menos, mozárabe, paralelamente a algunas reminiscencias más del mismo' estilo V-sigót'co en menaje del culto cristiano, como una copa de administrar el sacramento del Bautismo colectivo, hallada en el riñón del país, y pilas propias del mismo sacramento radicantes también en él. Detalles que no se deben 'gnorar cuando se trata de establecer la cronología de la cristianización del país.

\* \* \*

Una advertencia se impone antes de pasar adelante. Y es que en Guipúzcoa no podemos mostrar hoy ningún monumento románico de grandes proporciones, sino solamente ejemplares de "arte menor", y, aun en lo que nos queda de esto último, no contamos con un edificio completo —ábside, muros, bóvedas, j>ortada—; sólo tenemos restos, portadas principalmente, y alguno que otro caso de ventanales. Pero para nuestro caso de constatar la existencia de un arte auténticamente románico es lo mismo que se trate de algo monumental, como<sup>1</sup> que se trate de ejemplares más modestos. Lo importante es que se trate de arte auténticamente románicj. Y una vez establecido este hecho, cabrá investigar las causas de la ausencia de lo monumental. Quizás es que lo modesto lo hallamos en poblaciones de menor importancia, y ello por imposibilidad que hubo de suplantar lo románico por lo gót'co' posterior y por lo que se refiere a lo mási monumental —que hubo de haber en poblaciones más importantes , «llo fue suplantado por lo gótico posterior, por aspiraciones muy naturales de los pueblos, aspiraciones de superación constante, sobre todo en épocas de mayor riqueza. Lo importante para el caso, repetimos, es la existencia en el país de arte auténticamente románico, monumental o modesto.

La no existenci'a de un edificio románico completo —como los que hay, v. gr., en Alava y en Navarra—, sino sólo restos —portadas y ventanales— se debe a la reconstrucción y ampliación habida de las iglesias guipuzcoanas, incluso en los medios rurales; pues, en efecto, también a poblaciones rurales y de menor importancia alcanzó en nuestra provincia, desde hace muchos años, el afán de ampliación de sus templos prim'tivos por necesidades de crecimiento o, sencillamente, por afanes de



emulación de los pueblos entre sí. Lo interesante en esta materia es que en medio de tales afanes no se haya destruido totalmente lo anterior, sino que se haya conservado siquiera alguna bonita portada o algún curioso ventanal.

Una observación, también muy pertinente a nuestro caso, es que el área de dispersión de los restos románicos en la provincia viene a ser toda su geografía, de tal manera que no cabe decir que sea sólo el Sur o sólo el Norte, o el Este o el Oeste, o la periferia o el centro; todo el territorio se halla penetrado de tales muestras y restos.

%/ ||| %

Y, pasando ya a registrar los casos concretos, señalemos primero en las cercanías de San Sebastián, tres: la portada de la antigua iglesia parroquial de Hernan', hoy monasterio de MM. Agustinas; más un doble ventanal en la parroquia de Igueldo, así como una puerta en San Pedro, de Pasajes. No mucho más al Sur, la puerta principal de la parroquia de Urnieta. En la misma línea y lindando con Navarra, la puerta de la de Berástegui, así como la de la vecina Elduayen. Y, viniendo ya un tanto más hacia el centro de la provincia, la portada —bien rica, por cierto— de la antigua ermita de San Esteban, extramuros de Tolosa, hoy arco del baptisterio de la parroqu'a; siguiendo la raya de Navarra, la por muchos conceptos interesante portada (arco de medio punto) de la iglesia rural de Huarte de Amézqueta; y por la misma zona, la muy decorada de la iglesia parroquial de Abalcisqueta; penetrando más al interior de la provincia, la sencilla pero interesante también (arco de medio punto) de la igles'a rural de Santa Marina, de Albístur, y del mismo carácter, y caminando más al centro de la provincia, portada también de medio punto, de la antigua parroquia de Azcoitia, hoy capilla del cementerio. Subiendo más hacia el Goyeri guipuzcoano, la puerta principal de la parroqu'a de Ichaso, a la cual responde, con algunas reminiscencias algo más gotizantes, la de la iglesia de la Antigua, de Zumárraga, interesante iglesia por otros muchos conceptos relacionables también con lo románico. Y, saliendo ya hacia Vizcaya y Alava, el ejemplar muy elegante del actual cementerio de Arechavaleta, al cual hace coro el ejemplar de medio' punto, y con bon'ta decoración en los capiteles, de la parroquia de Garagarza, cerca de Mondragón, más en la

iglesia de Bolibar, de Escoriaza, el antiguo ábside con ventana románica, envuelto y oculto dentro de la torre campanario de la actual iglesia, así como en la misma zona mondragonesa, en la casa cural de Bedoña, un curioso ventanal aprovechado para la chimenea de la calefacción de la sala-comedor, así como otro par más de ellos en lo' alto del imafrente de la igles<sup>a</sup> actual, arrancados los tres de la iglesia primitiva, que en tiempos, como otras muchas, sería totalmente románica, si bien de modestas dimensiones.

En el cementerio de Cegama —antigua primitiva parroquia de San Bartolomé de Andueza— se conserva también un capitel románico de complicada factura, que ahora sirve de pila de agua bendita.

Nada decimos aquí de la iglesia de Astigarribia, jurisdicción de Motrico, que plantea un problema arqueológ:co muy curioso, con su ventanal de arco de herradura, en el ábside de la primitiva iglesia, envuelta ésta dentro de otra iglesia mayor y más alta que la protege totalmente; arco de herradura que nos aboca a los años anteriores a la invasión mora, años de la iglesia visigótica de los Isidoros de Sevilla y Eugenio de Toledo, o, por lo menos, a los años de la iglesia mozárabe, de los siglos inmediatos a la invasión.

\* \* \*

Unas observaciones finales serán oportunas antes de dar término a este rápido recuento.

La primera de todas, acerca de la calidad artística de estas portadas. Las hay de verdadera categoría en cuestión de ornato: tales la del cementerio de Arechavaleta y la del baptisterio de Tolosa y la de la parroquia de Abalcisqueta. La mayoría de las restantes son sencillas, de capitel liso y de arcos en arqu'volta, igualmente sencillos, de baquetón o de arista viva, como' las, por lo demás, muy elegantes de trazado de Berástegui, Elduayen, Urnieta, etc. Portadas todas ellas de arco apuntado, detalle por el cual algunos las juzgaron góticas; pero no cabe dudar del carácter románico de las mismas por varios detalles, como el de la arista viva de los arcos concéntricos de la arquivolta, y por el capitel de tipo cúbico, lo mismo que los detalles de ornamentación del conjunto, de ajedrezados, dientes de s'erra, punta de diamante, etc. Aparte de que, como lo hemos indicado, tenemos cuatro ejemplares situados en

|\$4:>:•i>

•••\ ••• •. >••.55••



# 4Ufet# -,' N^#í

'SSTjrAiiifÇjr?S-> SiZkvá? Ett rifbf-'i í~\*' '•>' '•'""•• .1.. ' ff.; j^f' ..•"jíirt.S

*Santa María de Zumárraga (Antigua). Vista exterior*



\*fy



*Santa María de Zumárraga (Antigua). Abshle*



«Pr

«-●

...

PiZer *bautismal deAzcoitia*

V: "4á?1?JiHG




• If.A' I f i

Ylir

•\*MB  
•f.:w?S59L^ -v  
.:...:;ÍM.\*.ift\*f i

.... :?\*

*Pórtico de la Capilla del Cementerio de Azcoitia*



í  
i S

**fc'**

.íííTStífo»-'':

**'Stí**

Á^ÍSSfii':..

'STII



*Baptisterio de Santa María de Tolosa*

punto'g muy distantes entre sí, como Huarte, Sáfatá Mariha, Azcoitia y Garagarza, que son de arco de medio punto, arco perfecto, sin apuntamiento, y con la adición de que el caso de Garagarza reúne detalles de muy interesante ornamentación románica en los capiteles.

. . . . . - - \* \* \*

Nada decimos aquí de las imágenes románicas, de las cuales, y en los dos extremos de la costa marítima guipuzcoana, tenemos dos ejemplares que, igualmente, resultan extremos—de seriedad la una y de sonrisa la otra—, de Santa María, de Irúri (hoy conocida por el "Juncal"), y de Santa María, de Iciar.

La abundancia de ejemplares góticos—virgeries sentadas— en nuestras ermitas, y la enorme profusión de las fénacientistas de nuestras parroquia8, nos autorizan a creer que en lo románico, rimando con los edificios del estilo, cuyo índice damos, habría también abundantes ejemplares acreditativos entonces de la devoción mariana tan tradicional" en la provincia.

Por lo demás, en la parroquia de San Andrés, de Eibaí, y cofonando su puerta principal, se admira un San Pedro de pliegues simétricos y de gran estilización, de air« eminentementé forriánico.

Como también son eminentemente románicos el Cristo que se venera en la cresta del Aizkorri y el recientemente devuelto al culto en la parroquia de Ceráin, ambos ejemplares, de Cristos procesionales, de bronce, Cristos "Majestad", con corona real en lugar de la de espinas, y con restos de esmaltes el ejemplar de Ceráin.

Y ya, para terminar, como hemos comenzado, con una referencia a las rutas jacobeanas, diremos que una manifestación muy importante del arte románico en Guipúzcoa en materia de imágenes la tenemos precisamente en una imágea de Santiago que se venera en la ermita de *Santiago-mendi*, de Astigarraga; imagen, por cierto, de alabastro, y del santo apóstol en traje de peregrino.

La estatua, desde luego, no es de un románico puro o primitivo, sino más bien de transición, no de otro modo que las estatuas del Pórtico de la Gloria de Santiago de Compostela. Ni su romanic'smo es completo, puesto que no se manifiesta en la totalidad de la imagen, sino en la técnica y expresión del rostro, sin nada de carácter románico en el ple-

gado de la ropa; pero en cuanto al rostro, con una semejanza impresionante en la técnica, concretamente en las barbas del santo, cuya distribución en bucles y el remate de cada bucle en espiral es del m'smo sabor y estilo de las barbas de todos los personajes del referido famoso pórtico compostelano.

La expresión del rostro, por su parte, es de una piedad verdaderamente románica, con una diferencia con respecto a los personajes compostelanos —de los cuales se pondera su típica actitud de diálogo mutuo— y es que la expresión de nuestro caso es de mirada piadosa en solitario. Pero mirada piadosa de veras.

En el plegado del ropaje no cabe hablar de roman-'cismo, quizá por lo rústico de la talla en este extremo. Su plegado no tiene ningún estilo.

Esta falta de unidad de estilo en el conjunto de una imagen no es rara, sino que tiene lugar también en otras imágenes, mitad románicas, mitad góticas. Nosotros recordamos el caso de la notabilísima Trinidad, de la ermita de la misma advocación, en la aldea navarra de Aguinaga, en el valle de Gulina. Los pliegues de la túnica del Padre en este curiosísimo y preciosísimo grupo trinitario son pliegues típicamente románicos, mientras que la cabeza del personaje, con su corona de flores de lis, es francamente gótica. Al revés de nuestro caso, en el que la cabeza es románica y el cuerpo no tiene estilo.



# Altzo Azpi'n Arte Romanikoa

(Diario Vasco'ren orria —1975.—)

Altzo Azpi, aspaldidanik historiko leku izan da Gipuzkoa'n. Eta gaur iñoiz baño areago.

ORAIN BEDERATZIREUN URTE

Orain bederatzireun urte, San Juan de la Peña'ko Monastegian pergamino bat idatzi zan Altzoazpi'ri buruz.

Don Garcia Aznarez eta aren emazte Doña Gaila edo Galga, aurkeztu ziran Monastegi artan, ango monjeai erregali bat egitera: Olazabal'go San Salvador'en Eliza; Olazabal bait zeritzan, izan ere, orduan Altzoazpi'ko Ballada.

Anartean Altzoazpi'ko Eliza, ango Olazabaldarren familiaren "patronatokoa" zan. Bañan andik aurrera Patronato ura San Juan de la Peña'ko Monastegira pasako zan. Andik aurrera San Juan de la Peña'k bidaliko zuan Altzoazpi'ra bear zan Apaiza, Monastegi arren kutsutik, am xuxen, "Abade" esango zitzaion Apaiza.

Artean, Olazabaldarrak berak izan zuten beren gain, beren patronatoko Elizarako Apaiza billatu-bearra eta Iruñe'ko Gotzaiari eurkeztu Gotzaiak izenda zezan Altzoazpi'ko apaizgorako, eta, ortaz gañera Balladako amarrenak eta "prmiziak" bildu etab. Andik aurrera San Juan de la Peña'ko Monastegiak egingo zuan lan ori.

Ori esan nai zuan, egun artan San Juan de la Peña'ko Monastegian egin zan eskritura-idazkun ark. Patronato bat esku batzutatik beste batzutara pasatzea.

PATRONATOZKO ELIZAK

Patronatozko Elizak leen asko izan bide ziran emen auetan, zala Patronoak berak Eliza egin zuteláko, zala Eliza Patronoaren lurean egin zalako... Zana zala, Patronatoko Elizak asko ziran.

Patronoak geienez Aaide Nagusiak (Parientes Mayores) izan oi ziran. Eta jende aiek Patronatoaz baliatzen ziran, errietan beren agintaritzaz ezartzeko, Elizarako Apaiza berak izendatu, gero, poliki-poliki, Erriko Agintariak ere, Alkateak-eta, berak izendatzeko... Eskerrak, Aundikien politika orren aurka Erriak gogor jokatu izan zutela!... Berastegi batean irurogeita geiago urteko auzia izan zuan Erriak, "Berastegiko Jaun" izan nai zukean Jauntxoaren kontra, Patronato-kontu ortan; eta aizkeenez Erriak irabazi...

Ez dakigu zergatik, orain bederatzireun urte, 1025gn urtean Olazabaldar familiak San Juan de la Peña'ko Monastegiari erregali-egin zion "San Salvador de Olazabal" zeritzan Elizaren Patronatoa. Pergaminoak dionez, Patronoen "animen erremediorako"; "*pro remedio animae nostrae*". Kontua da, gero pergamino ori izango zala, Gipuzkoaz mintzatu zan dokumenturik zaarretako bat. Pixka bat leenagokoa izan bait zan, 1015' ean, Donostia'ko Eliza Leire'ko Monastegiari Nafarroa'ko Errege batek erregali egin ziona. Eta puska bat gerotxuagokoa, berriz, 1081'eanean, Kastilla'ko Errege batek San Millan de la Cogolla'ko Monastegiari Astigarrib'a'ko Eliza erregali egin zionekoa. Iru dokumentu, Gipuzkoa'ko Historiari dagozkion zaarrenak.

#### PERGAMINO BAT SOSPETXAGARRI

Bañan, askotan oi dan bezela, San Juan de la Peña'ko pergaminoa urteen buruan zenbait historizalek arbuaturik zeukaten. Alde batetik olako antziñatasunezko pergaminoak, askotan, gezurrezkoak izaten diralako; eta, beste aldetik, dokumentu orren idazkera ala-olako xamarra zalako (latin izugarri arlotea, eta errien eta auzoen izenak nolabait idatziak etab.) bañan batzuentzat batez ere pergaminoak "Olazabal'go *monasterioa*" aipatzen dualako; eta Altzoazpi'n ez arkitzen, iñoiz iñolako monasteriorik izandako aztarrenik...

Ori ziotenak uste zuten, nunbait, pergaminoak zion monasterioak frailetegiaren bat izan bear zuala, eta ez (zan bezela) "patronatozko Eliza" xume bat, ori bai, "abadea" zeritzan Apaiz batekin...

Ortaz gañera, nolanaiz zala, Altzoazji'n etzegon, XI gizaldiko itxura zuanik ezertxo ere... agirian beintzat. Bañan, gauzak nola diran! agirian ez arren, or egon lurpean, gaurko Elizaren barruan, leengo Elizaren oiñarri-illara ederra... oraintsu azaldu bait da, ain xuxen ta ain eroso,

orain bederatzireun urteko estilo jatorrean : estilo erromaníko jator-jatorrean: Araba'n Estibaliz'koaren eta Armentia'koaren egitura berean.

Arkiuntza onek baztarrazten bait ditu, leen alde orstatik (Histori eta Arkeologi-aldetik) ziran zalantzak, eta bete-beteen sendotzen historitako pergaminoaren jatortasuna...

DON GARCIA AZNAREZ, DOÑA GAILA OLAZABAL

Zeintzuk ziran, erregali ura San Juan de la Peña'ri egin ziotenak?

Dom García Aznarez, nafarra bide zan, nafar-erriberatarra, eta... gure Altzoazpi'ko Elizaren "patronatoa" zuana. Patronatoa, ez ordea, berak berez, bere emazte Doña Gaila'ren bidez baizik.

Doña Gaila ura, abizenez, Olazabaldarra zan; Altzoazpi'ko Olazabal-Torre, Olazabal-Etxaldeko alaba, "etxeoandre zabala".

Don Garcia'ren abizena, nafarerriberatarra zan : Aznarez; Aznar baten semea, alegia.

Aznartarrak nafar erriberatarrak zirala esan degu. Orrela gertatzen da, gero, a'n zuzen, beren erregalia San Juan de la Peña'ri egitea. San Juan de la Peña Aragon-mendietan dagon antziña-antziñako Monastegi otsaundikoa bait zan. Nafar-erriberatik naiko eroso. Orla, berriz, ez bait da arritzeko gauza erriberatar batengan, Monastegi arenganako joaiera eta debozioa, Nafarroan bertako Monastegi batenganako baño' geiago ere, gure senar-emazteengan izan zan bezela.

URRUTITIK URRUTIRAKO EZKONTZA BAT

Nundik nora egin zan, ordea, Don Garcia'ren eta Doña Gailaren ezkontza? Nafar Erribera urrutiko zaldun baten ezkontza Gipuzkoa barru-barruko etxeoandre batekin?

Nola gertatu zan, ez dakigu. Bañan bai nola gerta zitekean; ez bait zan eziñezko gauza bat.

Don Garcia, itxura danez, Nafarroa'ko Erregearen adiskidea zan (Aznartarrak beti ere ala izan ziran); Erregeak, bere Erreinuan, an-da-emen izan oi zituzten adiskideetako bat.

Santxo "Aundi" zan, garai artan, Nafarroa'ko Errege. Urte aietan Gi-

puzkoa Nafarroa'ko Erregeren babesean bizi zan: Nafarroa'ko Erregek zeukan Gipuzkoa'ren militar-babesa.

Gipuzkoa'k bere defentsarako ba zeukan zortzi-amar bat gaztelu, Probintzia guztian banaturik: zala Leinz'ko Atxorrotx'en, zala Oyarzun'go Feloaga'n, zala Ondarribia'n, zala Tolosa'tik Azpeiti-bidean Mendikute, zala Zaldibi-Ataun'en Ausa-Gaztelu. Gaztelu aiek beti ere Erregeren esku egoten ziran, eta Erregek izendatzen zituan aietarako bear ziran Zaindarlak... bere adiskiderik miñenak beti ere... "Tenente" esaten bait zitzairen Zaindari aiei ("Tenente" a nombre del Rey Don en el Castillo de...).

Olako "tenenteren" bat izan zitekean gure Don Garcia Aznarez, naiz Ausa-Gaztelu'n, naiz Mendikute'n. Eta Nafar-Erriberatik, Aralar'en zear, bere gaztelura zetorreanean, bidezkoa zan bein baño geiagotan Altzoazpi'kp Olazabaldarren Torrean, ostatuz, gaba pasatzen arkitzea. Mendikute'ra bidean, adibidez, nai-ta-ez Altzoazpi'ko zubian igaro bearko bait zuan Oria-Ibaia.

Ori ola izanik, ez bait da arritzeko gauza, Don Garcia Aznarez'ek eta Doña Gaila Olazabal'ek elkar ezagutzea, eta, aizkenik elkarrekin ezkontzea Erregeren "tenente" gazte apaña eta Olazabal-Torreko alaba eder aberatsa... Orra gauza nola gerta zitekean...

#### GAI URRI, GARRANTZI AUNDI

Orain pergaminoari gagozkiolarik, ikusten danez, dokumentuaren gaia, etzan garrantzi aundi-aundikoa: Eliza baten (Eliza txiki baten) Patronatoa, Olazabaldarrak utzi, eta San Juan de la Peña'ko monjeak artea.

Guretzat, ordea, garrantzi aundia du, Gipuzkoa'ren Historiarako. Gipuzkoa'ko gertakari bat (naiz-ta txikia) aipatzen duan bigarren dokumenturik zaarrena bait da (lenengoa, Donostia'ko Antiguakoa dalarik). Eta ortaz gañera, Gipuzkoaren izena lenengo aldiz aipatzen dana (ez bait du, ezik, "Gipuzkoa" esaten, "Ipuzkoa" baizik). Dana-dala, Probintziaren izenaren forma zaar bat.

Eta guzti ori, besteak-beste. Pergaminoak Gipuzkoa'ko beste zenbait puntu ere (erri ta baserri eta mendi) aipatzen bait ditu: geienak Altzo-ingurukoak, bañan baita kostaldekoak ere. Aya eta Elkano, adibi-

dez... Orregatik, besterik ez balitz ere, pergaminoak merezi bait du azterketa on bat, gure Agud Querol'ek bein egin zigunaren antzekoa...

#### ORAIN BEDERATZIREUN URTEKO ERROMANIKOA

Gure gazte-denboran —orain urte asko— pintore famaturen baten paisajeren bat alabatu nai zenian, beti ere berdin esaten zitzaigun : *como juega la luz* —beti ere, argi ori-oriya— *\como juega la luz entre las hojas del bosque\* beti ere argi oriya osto-artian kiriketan... Gure goguanian, Kabanas-Oteiza astiasuarra izan zen, gure paisajiaren illun-une ta sakonetarako kolore morexka bere kuadruetan sartu zuena —Paris'eko inpresionismuaren lekzio ederra—. Artian itzalak eta sakonak egiteko, beltza erabiltzen zuten orduko pintoriak, alik-eta 1902-aldian, Regoyos inpresionista bortitzak, Paris'etik emen oyetara bueltan, itzalak egiteko moria ausarki bere kuadruetan sartzan asi zen arte —Regoyos, pintore asturiano ori, neronek ikusiya goguan daukat, gure Goiko' Kalia pinta-tzen, artian Legarre, Konbentu ez biño, baserri zela, eta oraindikan Legarre txiki eg'n gabe zegola, Pottettania bait zen aren lekuan... txikita-ko oroitzapenak...—. Guk geok ezagutu genuen, *contra-luz*'eko itzalak beltzez pintatzen, gero Regoyos'ek morez batez ere, pintatu zizkigun arte.

Gure Ayalde'k, leentxiago Kabanas-Oteiza'k bezela, beti Regoyos'en bidiri jarraitu ziyon —itzalak berak ere beti koloredun pintatuaz.

#### AYALDE'K OTARTZUN'I ORDAÑAK

Eta bukatzera nua.

Kabanas-Oteiza'k, Andoa-n'en bizi zelarik, bere pinta-gai kuttun, Erniyo-mendi izan zuen; Ayalde'k, berriz, bere pinta-gai kuttun, Ayako Arriya. Dozenaka aldiz eraman zuen bere gai kuttun ori bere telaetara; beti ere argi diferentetan; biñon beti ere moreantxa. Lekziyo ori Oyartzun'en ikasi bait zuen.

—Eta orain, orren ordez, zer opa ziyon Ayalde'k Oyartzun'i?

—Bere Artia, bere arte oso-osua... eta bere izena: "AYALDE".

Gure Antxon Valverde'k, "Ayalde" biyurtu zen ezkerre, esan diteke, etzuela pintatu ezer, Oyartzun besterik: Oyartzun'go gizafisonomiyak eta, batez ere, Oyartzun'go paisajia. Oyartzun'go udazken-giro more-antxa.

Beste zenbait artistentzat esan izan bait da, euskaldun izan arren,

euskal-gairik bat-ere ez, edo oso gutxi pintatu izan duela. Ayalde'rentzat ez da esango beste orrenbesterik inoiz-ere. Ayalde'k ez du pintatu bein ere euskal-gaia besterik; eta euskal-gayetan, gai oyartzuarra, batez ere.

Eta gure Oyartzun arro dago gaur Ayalde'ren egite eder orrengatik: egite eder orrengatik Oyartzun eta Valverde, bi izen oik, beste izen batian —AYALDE izenian, alegiya— betiko bildurik eta bat-egiñik gelditu bait dira.

Esan det nere esatekoa.



## Zuloaga

Zuloaga es una figura eminente de la Pintura del siglo XX.

De la Pintura peninsular, desde luego, y aún pasando muy firme en el ámbito de la Pintura europea y universal. La presencia tan importante de sus obras en las Pinacotecas más representativas, lo atestiguan elocuentemente.

En el Arte peninsular irrumpe antes, y con ventaja, por lo mismo, que Picasso y Solana. La abstracción es posterior.

En el terreno de la Pintura vasca, se le ha comparado incoerciblemente con Arteta —el pintor sustancial y formalmente vasco— subestimando al eibarrés por su absentismo del tema vasco, sin tener en cuenta debidamente, que el estilo vasco puede estar, tanto en el tema casero, como en el modo vasco de enfrentarse el pintor con el tema castellano o parisién. Los cuadros de tema foráneo de Zuloaga —y lo son casi todos— envuelven sin duda una latente crítica del asunto pintado, con un espíritu crítico muy propio de la tierra de Zuloaga. Espíritu consciente o inconsciente. Pero real. Zuloaga ahonda siempre en los temas que toca.

¡Qué escuela? Por los años en que el eibarrés irrumpe en el terreno del Arte —principios del siglo, en París— se practican dos escuelas nuevas: el impresionismo y el cubismo. Zuloaga "pica" en el impresionismo imperante y dominante; pero por poco tiempo. Del cubismo toma la adoración por el volumen y el relieve escuetos, pero sin geometrismos. Con respecto al posterior arte abstracto, Zuloaga nunca abstrae, ni contrae; él "extrae".

Zuloaga en alas de su genio, se encamina inexorable por la senda de un sano realismo, sintetizando en su arte, con mesurado criterio, los rasgos fundamentales del modo de hacer de los tres grandes genios de la Pintura: Velázquez, Goya y no poco de la tensión del Greco. Todo ello sazonado, como decimos, con un fondo de crítica, que le hace simpático en el ambiente europeo de su tiempo.

Su fuerte son el retrato —el tipo— y el paisaje —paisaje rasgado, rasgadamente interpretado—. Arte de no difícil captación. Y Zuloaga

triumfa rotundamente. Las pequeñas críticas que se le opusieron, se han quedado al fin en "pequeñas críticas".

Su gran fecundidad nunca la arrastró a la superficialidad. El arte del eibarrés es hondo y elegante al propio tiempo.

Las muestras que vamos a presentar en las siguientes diapositivas, lo acreditan bastante.

#### LA CONDESA DE NOAILLES

Diríase que se trata de una réplica de la Maja de Goya —la Maja vestida— por su postura recostada y su actitud expresiva, entre grave e ingenua. Las distingue la amplitud del ropaje y la calidad de la tela. La tela de la Condesa es de las típicas telas de Zuloaga, tan bien observadas siempre. La calidad de la tela y su múltiple plegado sobre el cuerpo de la mujer recostada, son características del arte y la paleta del eibarrés, amén de la tinción rosa —iluminación se diría más bien— del conjunto, sobre un blanco impecable. Las sedas de la Maja de Goya son más bien vaporosas y sin el elegante desarrollo de las telas de nuestra Condesa... Duquesa, la Maja de Goya; Condesa, la Maja de Zuloaga. Verdaderas réplicas la una de la otra.

#### EL CARDENAL (Museo de Bilbao)

Otro Cardenal hay también en la Historia del Arte universal, que bien puede recordarnos a este estupendo Cardenal de Zuloaga: el Cardenal Niño de Guevara, del Greco. Nuestro Zuloaga se mueve indudablemente dentro del ambiente artístico del genial Theotokópulos. El color granate— no escarlata— de los hábitos cardenalicios de ambos personajes eclesiásticos, es el mismo. Con todo, no cabe pensar en ningún plagio ni imitación servil. El Cardenal del Greco, es un retrato-retrato; el Cardenal de Zuloaga, en cambio, constituye un tema literario —es un símbolo, un Cardenal simbólico—. Un personaje de genio autoritario, áspero; aspereza, cuyo reflejo, tanto o más que en su rostro, está en el personaje, secundario en apariencia, del paje, ese joven clérigo triste, que completa la composición, y cuya expresión de tristeza refleja las impertinencias del genio amargo de su Señor. El color de la tela del nuestro, remeda el de las telas del Cardenal hispalense; pero su calidad

no es la misma. Zuloaga, en su caso, pliega las púrpuras cardenalias con una elegancia, que no tiene el tieso ropón del Arzobispo de Sevilla. Zuloaga es el mago de las telas de seda, seda de moaré de gran calidad en nuestro caso.

#### LA MARQUESA DE CASATI

El fuerte de Zuloaga, es el retrato. Nunca pinta una escena. En este punto es el polo opuesto de su amigo Uranga. Uranga tiene una preferencia marcada por las escenas. Zuloaga pinta personajes; pero diríase que cada personaje de Zuloaga lleva dentro de sí una escena: la escena de su vida y su carácter. Zuloaga retrata el alma de sus personajes: alma en acción. Así es toda la serie de sus retratos. De los cuales uno es éste, de la Marquesa de Casati. Retrato expresivo de un momento típico de la vida del personaje, visto por el pintor. Zuloaga, antes de pintar, "ve" su personaje, y lo retrata después de bien visto, tal como él lo ha visto. Zuloaga interpreta, nunca copia del natural; interpreta más bien "del natural". Así es cómo su pincel mágico logra en el contemplador de su obra, la impresión de hallarse ante una figura, que, sin serle conocida de antes, le resulta casi familiar. La enorme carga de tela que abruma al menguado personaje de la Marquesa, quiere decirnos mucho de ciertas vanidades de ropas.

#### Mlle. Valentine Dethomas

1!J^

Es la contrapartida de la Marquesa de Casati. La sobriedad y la elegancia andando, de una dama de la buena sociedad parisién de principios de siglo. Elegante en el modo de lucir su atuendo mujeril —sin el acorsetado empaque de las figuras de la "Promenade", ni el continente de reto de la "Señora de Moreno"—. Expresión de rostro juvenil —cuasi infantil— de un óvalo impecable —sin la disimulada coquetería de "La del guante amarillo". El pintor vió así un día a la que luego había de ser su mujer. Así la vió, y así quiso perpetuar la evocadora figura en un soberbio lienzo' que en adelante se llamaría "Mlle. Valentine Dethomas".

## LA MERIENDA

La merienda. Asunto que trataron conjuntamente el pintor y su amigo Uranga, cada uno en su lienzo. Tiene algo de escena, pero, en definitiva, se queda en composición: sus figuras están en *pose*. Se trata de un lienzo que se distingue por la perfección de su dibujo. Hay casos en que el dibujo, en la apreciación del pintor, supera al color. En esos casos el color haría perder carácter, mordiente, garra, a los personajes. Entonces Zuloaga prefiere dejar el cuadro en sólo los trazos de carboncillo. Es el caso de nuestro cuadro. Tres, magistralmente observados tipos vascos —un *itzai* boyero, más dos oficiales de taller mecánico, ningún labriego— se agrupan alrededor de una caxuela al pil-pil. "La Merienda". Asunto pintado por los dos amigos, una tarde de verano, en el campo, cada uno en su lienzo.

## FALLA

Manuel de Falla, autor del "Amor brujo", del "Sombrero de tres picos", de la "Atlántida" y, para nuestro caso, del "Retablo del Maese Pedro", gran amigo del pintor. Su retrato es uno de los casos en que el pintor cede ante el dibujante, el color cede ante el dibujo. El retrato de Falla, impresionante por su verismo, es casi un dibujo, dibujo muy sobriamente coloreado por el genial amigo del personaje retratado. El pintor, ante la perfección de su dibujo, relegó o lo usó con una sobriedad extraordinaria, el colorido. Impresiona de modo extraordinario aquella cabeza pelaba, apenas coloreada, por temor a desvirtuar la fuerza expresiva del carboncillo, con que el amigo maestro contorneara la figura del Maestro amigo : Zuloaga a Falla.

## AUTORRETRATO

Es un caso similar al del retrato de Falla. El pintor cede en buena parte, ante el dibujante. El último autorretrato de Zuloaga, es muy sobrio de color; no tanto como en el caso de Falla, pero sí muy sobrio para lo habitual de Zuloaga. Más color hubiera quitado fuerza. Los tonos grises son los únicos de nuestro caso. Un parecido impresionante del



personaje en sus años de completa madurez. Otros autorretratos hay, en los que el pincel cargado de pasta, reflejaba mejor la exuberancia de vida del apuesto mozo eibarrés: fuerte bigote y pañuelo anudado al cuello. Pero ya en la edad madura le va mejor —bigote resurado y cuello despechugado— el detalle del dibujo, selecto y enérgico, donde cada accidente del rostro maduro tiene lugar acusado y adecuado. Tal es el autorretrato de nuestra diapositiva de turno.

## BEOBIDE

Junto con el de Falla, otro retrato de la serie de los amigos del pintor, es este de Julio de Beobide, el escultor zumayarra, autor del impresionante Cristo de la Ermita de Santiago, en la finca de Zuloaga. El pintor lo retrató, tanto por amistad, cuanto por lo interesante de su figura en su innata sencillez. Beobide está representado como quien era: un profesional de la más noble Escultura con una dedicación incansable a su Arte. En sus manos los instrumentos del oficio. Nada más. Ninguna indicación de paisaje al fondo, como en los casos de Falla y Ortega y Gasset, y Mauriee Barres. A Beobide no le acompaña nada más que los instrumentos de su Arte: la gubia en la izquierda y el mazo en la derecha. Entrañable amigo de D. Ignacio, el Cristo de la Ermita y el del Valle de los Caídos de Madrid —que también es obra del zumayarra— ambos Cristos fueron policromados por nuestro pintor.

## BELMONTE

Juan Belmonte es el torero preferido por el pintor. Zuloaga tiene sus contactos con el arte del toreo. Durante sus meses de permanencia en Andalucía, en cierta época de su vida, a caza de temas acuciantes para su propio Arte de la Pintura, el pintor frecuenta no sólo el trato personal, sino también la práctica —una práctica diletante— del arte de Cúchares. Y a consecuencia de ello, y no poco por su temperamento eibarrés, el pintor llega a contagiarse de algo de torero. Y dentro de sus aficiones personales, tiene una predilección por el arte y el garbo del personaje de esta diapositiva: Juan Belmonte. Aparte de ello, a Zuloaga pintor le atrae incoerciblemente un traje de luces. Sus sedas, sus eolores brillantes, sus bordados... eran una tentación para ensayarse

—y con éxito— en este género de Pintura. He ahí la razón de ser —razón suficiente— de este retrato. Retrato, además, del diestro que sufrió una doble cogida en otras tantas corridas —novilladas— de Beneficencia, organizadas por D. Ignacio en Zumaya durante las estancias veraniegas. Gratitud obliga.

## EL PALCO

El palco es un balcón de una casa de vecindad que da a la Plaza de un pueblo castellano, plaza donde se van a "correr los toros". Un día de fiestas. En el balcón, tres señoritas, ataviadas con lo más lujoso de los roperos domésticos, dispuestas a ver y admirar las suertes del toreo y, a su vez, ser vistas y admiradas también ellas por los concurrentes a la fiesta. Hay en las tres una actitud de *pose*. Lo que hay que admirar en este cuadro, aparte la belleza de las personas, es, desde luego, la calidad de las telas de las tres señoritas, y luego la típica psicología de estas muchachas de la Aristocracia castellana, psicología que tan bien conoce Zuloaga. Ellas permanecen graves dentro de su innata belleza; no coquetean; parece notarse hasta cierta congénita austeridad en su continente. Todo ello captado y expresado con verdadera maestría por el gran pintor y no menos sicólogo, que es Zuloaga.

## SEGOVIA

El otro de los fuertes de Zuloaga, es el paisaje. El paisaje castellano preferentemente. No le va tan bien el húmedo paisaje vasco. A su temperamento artístico le va mejor la sequedad de las tierras y las calvas de Castilla, más escuetas, más definidas. El cuadro "Segovia" nos da un paisaje; más no precisamente "naturaleza", sino, más bien, mezcla de naturaleza —primer término— y construcción, la vista —una vista— de la Catedral de Segovia, interpretada de una manera muy personal por el artista —contraste entre el imponente edificio catedralicio y la mezquina construcción circundante—. Se ha dicho, que Zuloaga en sus paisajes —igual que en las personas— hace una disección psicológica de la tierra. En nuestro caso el cuadro nos quiere poner al descubierto el alma del asunto "retratado": la sobria y austera personalidad de la ciudad castellana, que él tanto amó.

## CALLE DE GEKONA

En cuestión de paisaje —paisaje ruano, en nuestro caso— a Zuloaga le habla y le inspira cualquier accidente de color o de perspectiva de un punto cualquiera. Tal ocurre con diversos paisajes ruanos que pintó en muy diversos puntos: Haro, Nájera, Segovia... Es el caso de esta Calle de Gerona. De esta calle, desde luego, interesa al pintor el colorido desvaído y desigual del edificio frontal; pero tanto o más quizás, la perspectiva —adivinada más que vista— de la calle que viene de nuestra izquierda; y el detalle de la fuente manante al pie de un nicho votivo de una Santa en el murallón de nuestra derecha. Todo esto, sin duda, le hablaba al genio pintor del Maestro un lenguaje que a nosotros no nos hubiera dicho nada; pero que, sin embargo, hoy ya, a través del lienzo nos dice muchas cosas... La calle es solitaria. Nad'e va "por agua a la fuente". La fachada del edificio frontal tiene un color muy interesante.



## Zuloaga margolari

Ignazio Zuloaga, XX gizaldiko margolaririk aundienetan bat da. Espaini-aldean bereziki aurrenetakoa; eta Europa ta mundu guztian ere, ez atzenetakoa. Ikusi besterik ez dago, zenbat eta zenbat aren pkitura-lan arkitzen dan gaur mundu guziko Museorik famatuenetan.

Espaini-aldean, Picaso eta Solana baño leenago azaldu zan, eta beragatik zenbait bentajadun azaldu ere. Arte "abstraktoa" ere geroztikakoa da.

Eusko-Pinturadian, nai-ezta-ere, danok Arteta'rekin alderatzen, konparatzen degu. Arteta, ezurretaraño euskal-p<sup>^</sup>ntore jator izana degu. Arteta'ren aldean Zuloaga "guretzat arrotz" egin degu. Zuloaga'ri zaputz —*arrotz->egin diogu*— euskal-gai gutxi —oso gutxi— pintatu zualako. Bañan beti ere kontuan euki bearra dago, "euskal-pintore" izan ditekeala, bai, Arteta'k bezela euskal-gaiak pintatuaz, bai erdal-gaiak euskaldun ki pintatuaz ere. Zuloaga'ren pintura-lan erdal-gaietazkoak —eta ala dira, ale-ale batzuek ez beste, danak— erdal-gaiaren kritika bat daramate beren baitan; eta kritika ori, bear bada, oso gure artekoa degu emen oietan. Naiz konturatuta, naiz konturatzeke; bañan beti ere olako kritika zerbait. Eta bide ortan Zuloaga'k asko sakontzen ditu, ikutzen dituan gaiak.

—Zein eskolatakoa degu? Bere garaiam bi eskola arkitzen ditu Paris'en: inpresionismoa ta kubismoa. Zuloagak ukitzen du —txastatzen du— impresionismoa, garai artan Paris'en nagusi zan inpresionismoa; bañan bereala uzteko. Kubismotik, gauza bat artzen du: bere paisaje atarako zerbait reliebe soildu, bañan geiegizko jeometriarikan gabe. Geroko abstrakzionismotik ez du artzen ezer. Zuloaga'k ez du maite, arte abstratorik, arte ezur-utsik.

Zuloaga, bere barruan daraman arte-garraren indarrez, bere bide jatorrean asi da berealakoan. Zuloaga'ren artea, "egi-arte" da. Iru eredu ditu bere bide zentzu-zentzudunean: Velazquez eta Goya, eta espirituz ez gutxi bere Greko kuttuna. Aukeratzen dituan gaiak, askotan, bere irizpide, bere kritika zerbait daramate barruan; orregatik dira orren

atsegin, bear bada, Europa'ko zenbait girotan; gaiak, eta gaiaren kritikak.

Bere soro ta alorrik maiteenak, erretratua ta paisajea ditu. Ortan da "mutilla" gure gizona. Erretratua, tipoak; paisajea, paisaje garratza. Arte, ez konpreni-gaitza. Orrela irabazi zuan gure artistak, irabazi zuan bezelako izen aundia baztarretan.

Zenbait kritika txiki egin zaio; bañan, aizkenean, dana orixe: kritika txiki.

Bere arterako errextasunak etzion bein ere bultzarik egin, gauzak arinki egitera. Gure eibartarraren artea, beti ere, arte sakona da; sakona ta elegantea.

Emen ikusiko dituzun diapositibak, irakurle, egiztatuko dizute guzti ori.

#### NOAILLES'KO KONDE-EMAZTEA

Emakume erdi-etzana. Goya'k ere olaxe pintatu zuan bere Maja: "Maja jantzia": berdin, erdi-etzana, eta aurpegi-siñu berdiñak: emakume gazte, amets-antxa. Jazkera dute elkarrengandik bestelako: Goya'k jazkera arro-antxa egiten dio bere Majari; Zuloaga'k toles luze, bere Kondesari; toles luze, eta arroxakolore —arroxakargi, obeto—. Jazkera luze, lurreraño luze... Goya'k Dukesa du bere Maja; Zuloaga'k, Kondesaberea.

#### KAKDINALA

"Grekok" ere pintatu zuan Kardinal bat: Niño de Gebara Kardinala —Sebillako Artxi-Gotzaia—. Zuloaga'k ere bai, beste bat; izenik gabea: "Bilbaoko Museoko Kardinala" deritza. Gure Zuloaga, Grekoren jarraitzalle degu. Bi Kardinalok, kolore granate argia dute berdin-bendin beren jazkeran. Plegadizu ta toles-jokua dute alkarrengandik bestelako; jazkera ta aurpegiareni jitea. Grekoren Kardinala, erretratu-erretratua da; Zuloaga'rena, sinbolikoa: Kardinal-sinboloa: gizon garratz, erretxin-antxa. Aurpegian ageri bait du jenio garratz ori. Bere aurpegian baño areago, arako txoko artan ageri dan apaiz-gai triste arrenean. Olako morroi-mutillak irintxi bear izaten dituzte Nagusiaren jenio garratz erretxiñak. Jazkerak ere ez dira berdiñak Kardinal biotan, koloreaz bes-

te. Sebilla'koak jazkera toles-laburra du; Zuloaga'renak, toles luzea, lurreraño. Zuloaga'ren oialak, beti toles luze, elegante.

## KASATI'KO MARKESA

Zuloaga, erretratu-zale degu batez ere. Ez du iñoiz ere ekin-ibillirik eszenarik pintatzen. Ontan ez du, bere adiskide Uranga'ren antzik. Uranga'k asko maite du ekin-ibillia. Zuloaga'k "pertsonak" pintatzen ditu: pertsonak egonean. Bañan, ori bai, Zuloaga'ren "nor" bakoitzak ekin-ibilli zerbait daramaki bere baitan, bere barruan. Bakoitzak bere izae-raren, bere biziaren drama bat. Olakoxeak ditugu Zuloaga'ren erretratoak. Eta oietan bat da, gure Kasati-Markes-Emakumearen "portrait" au. Zuloaga'k pertsona bat pintatu baño leen, "ikusi" egiten du, barru-barruraño ikusi. Zuloaga'k ez du, ikusten duan ura kopiatzen; ikusiarren gañean asmatu eta usmatu egiten du. Zuk egundaño ikusi ez dezun pertsona, Zuloaga'k pintatzen duanean, ba dirudi, pertsona ura betiko zure ezagun bat dezula. Orixe gertatzen zaizu Markes-Emakume onen portraitarekin. Soñean, itotzen bezela daramakian traperia, zuk leen, nunbait ikusi dezu.

## ANDEREÑO VALENTINE DETHOMAS

Kasati Markes-emakumearen oso bestelakoa da Andereño Valentine Dethomas au. Bat-ere elegantzi gabe, soñeko jantzitan erdi-itoa ura; elegantzi-eredu garbi-garbia, au. Paris'eko Gizaldi-asierako Andereño panpiña. Panpiña, bere jazkera soñean eramateko eran: "Promenadeko" andereño zut-antzekoen kortse esturikan gabe; "Moreno'ren emaztearen" keñu ausartarikan gabe Aurpegi gazte •—oraindikan ia ume—; okotz-alde biribil-leun; "La del guante amarillo" deritzanaren kokeri maltxur gabe. Olakoxea ikusiko zuan nunbait Eibar'ko morroskoak, Paris'eko neskatiilla, gero batean bere emazte egingo zuan neskatiilla panpiña. Olaxe ikusiko zuan; eta olaxe nai izan zuan "betikotu" aren iduri xarmanta, andik aurrera beti izen ori izango zuan margozki bikañean: "Andereño' Valentine Dethomas".

## ATSALDEKOA

Atsaldekoa. Zuloaga'k eta Uranga'k biok batean pintatutako gaia.

Bakoitzak bere laukian; bañan biok gai bera. Konposizio bat da; ez da ekin-ibilliraño irixten; gizonok egonean daude —pintatzalleak pinta ditzaten, egonean—. Laukiak ez du kolorerik; dana zuri-ta-beltz. Dibujba du bikaña. Ain zuzen orretxegatik utzi zuan gure Zuloaga'k koloretu gabe bere dibujo-lana. Koloratuzkero, ondatu-edo egingo zan: epeldu, emetu. Orregatik utzi zuan gure pintoreak koloratu gabe. Gizonok, iru gizon euskaldun jator dira; baserritarrik ez; itzai bat eta bi langille —biok eibartar izan ditezkeanak—. Lantegian lanean jardunda-gero, arratsaldean, txoko goxo batean káxuela goxo baten inguruan indar-berritzen ari ziran... "Atsaldekoa". Bi adiskideak, udarako arratsalde batean, ortik zear zebiltzala arkitu zuten pinta gai polita.

## F A L L A

Manuel de Falla, musikalaria, "Amor brujo" ta "Sombrero de tres picos" ta "Atlántida" eta, gure arirako, batez ere "Retablo de Maese Pedro", lau musika-lan bikain oiek egin zituan Maisua, Zuloaga'ren adiskide-adiskidea. Erretratu ontan "Atsaldekooan" gertatu zitzaion gauza bera gertatu-bide zitzaion pintatzalleari: dibujoaren gañean kolorea eman izan balu, dibujoak "galdu-edo egingo zuala". Orregatik utzi zuan Zuloaga'k kolore gabe edo kolore gutxi-gutxirekin. Irudi au ikusten duanari zarradako aundia egiten dio, pelota-itxurako buru soil orrek ia kolore gabe Andakuzia'ko' zeru urdin-urdiñaren gañean. Olaxe pintatu zuan, adiskideak adiskidea: Zuloaga Maisuak Falla Maisua.

## AUTOEURETRATUA

Falla'ren erretratuarekin gertatu zitzaion gauza bera gertatu zitzaion gure pintoreari bere burua azken-aldiz erretratatu zuanean. Kolorea bañon dibujoa bikañagoa gertatuko zala, eta obeko zuala bere lana kolorez urri-antxa utzi. Zuloaga'ren azken-erretratu au oso kolore-urria da; ez Falla'renaren neurrian; bañan urria, bai, berak erabilli oi duan kolore-paletaren aldean. Gris-antxa askotaz obeto "dijoakio" pintorearen azken-erretratu oni. Gazte zanean, pasta ta kolore geiago sar zezakean, bere bigote ugari ta lepoko pañelo korapillatuan. Bañan orain, urteetan aurrera dijoala, egokiagoak ditu grisak bere bigote motxean eta papar zabalean. Kolore grisak, bañan dibujo seguru ta ondo aukeratua, aurpe-



giko zirkillu guztiak egoki markatuaz. Olakoxea degu diapositiba ontako auto-erreturatu.

BEOBIDE

Falla'rena bezela, Beobide'ren erretratu au, Zuloaga'ren adiskide-erretratu bat da. Julio Beobide, eskultore zumayarrak egin bait zion gure Zuloaga'ri, bere Santiago'ren Elizatxoan daukan Gurutze Santu bikain-bikaña. Adiskide bezela pintatu zuan Pintoreak Eskultorearen erretratu bizi-bizi au. Bañan bestela ere oso interesgarria zan Zuloaga'rentzat Beobide'ren aurpegi ta jite guztia, erretratu bat egiteko. Izan liteken, bere ofizioaren —bere eskultoretzaren— maitalerik aundiena zan gure Beobide; eta alaxe pintatu zuan Zuloaga'k: eskuetan bere eskultoretzaren lan-abetesak: gubia esku batean, eta mazoa bestean. Ezer geia-gorik ez gizonaren inguruam. Falla'ren erretratuan, gizonaren atze-aldean paisaje bat ageri da; berdin, Ortega y Gasset'enean; berdin, baita, Maurice Barres'enean ere. Beobide'renean, ofizioko erremientak soil-soi-lik : gubia ezkerrean eta mazoa eskuian. Ortaz landa gure Beobide'ren eta Zuloaga'ren artean ba zan beste zerba't ere aipagarririk: bi Gurutze Santu íainatutan biok batean lan-egin zutela: Zumaya'ko Elizatxokoa, eta Madrid'eko "Valle de los Caídos"koan; Beobidek tallatu eta Zuloaga'k polikromatu.

BELMONTE

Juan Belmonte zan, Zuloaga'k maiteena zuan zezen-toreatzallea. Zuloaga'k, an, bere asieratan, pintura-arterako gai billa Andaluzian zear ibilli zanean, ez toreadore-artein ibilli bakarrik, baita toreo-saioak berak egin ere, egin bide-zituan. Eta, ori zala-ta, eta, eibartarrak berenez duten zezen-zale beroak emanik nunbait, gure pintoreak beti izan zuan zezen-gauzetarako' zenbait makurreria. Eta giro ortan, berak toreatzalle bat izan zuan bere kutun: Juan Belmonte. Ortaz gañera, toreadore-jazkera bera, gure pintorearentzako gai gustagarria zan: berak ain ederki pintatzen zekizkian jantzien kolore biziak, alegia, eta sedaen dizdiz fiñak, eta urrezko bordatuen bixkargunetxoak... Bañan beste zerbait ere ba zan bitarte ortan: Zuloaga'k udara batean xexen-jai bat prestatu zuala Zumaya'n Hospitaleko gaxoai laguntzeko; eta Belmonte izan zala toreatzalle... Bañan, zoritxarrez, xexenak arrapatu... Eta urrengo urtean

ere prestatu, eta orduan ere berdin... Guzti orren gogoangarri, ondo me-rezia bait zuan Belmonte'k Zuloaga'ren eskutiko erretratu eder bat.

#### XEKENAK IKUSTEN

Xexenak ikusten, erriko Plazara begira dagon etxe bateko balkoitik. Kastilla'ko erri batean, erriko jaietan "xexenak dira". Gure balkoiean, iru andereño panpoxa, beren etxeko armariotan arkitu dituzten jantzirik apañenak soñean jantzirik, xexenak ikusten, eta, areago oraindik, beren buruak erakusten erriko festetan. Irurak ikusgarri daude, ikusgarri soil-soillik. Lauki ontan, benetan arrigarria, zera da, andereñoak soñean daramazkiten jantzien kalidade bikaña. Eta, orren pare, baita, andereñoen jite guztia —Zuloaga'k ain ondo ezagutzen duan Kastilla'ko andereñoen jite serio-antxa: iñori irrik ez, iñorekin jardunik ere ez; bakoitza bere baitan seriotxo... Zuloaga'k ondo ezagutzen bait du Kastilla'ko sikoloji ori, eta obeto jakin oraindik, sikoloji ori bere pintura-kietara eramaten.

#### SEGOBIA'KO PLAZA

Zuloaga'k, asieran, "inpresionismo-apur bat" txastatu zuan; bañan etzion bide orri jarraitu. Ala ere bere geroko bidean, aldi-an-bein, erabiltzen du inpresionismoaren zenbait pinta-era bere paisaje-lanetan. Kolore grix, goxoak, arkitzen ditu berak, nun? eta Kastillerriko zenbait kale zaarretako etxe-aurretan. Orixe gertatu bide-zitzaion, gure diapositibetan ikusten degun "Segobia'ko Plaza" pintatu zuanean. Kaleko> etxe zaar oien kolore ill eta grixak eman zioten oñarri, bere lauki inpresionista au pintatzeko. Etxe-aurre kolore-zaartu oiek, eta ortaz gañera, kale-arteko egurats-giro eta argi-itzalune gardenak, berak dakian bezela banatu eta eratuaz... Itzal bat du batez ere Plaza onek oso ondo lortua : ageri ez dan "Acueducto" famatuaren itzala, Plazako lur desberdiñean desberdin edatua... Zerua, berriz, ez da, Zuloaga'k ain maiz pintatu oi zuan zeru asarre, ekaitz-zerua; ezta urdin-urdin garbi aietakoa ere. Dana, inpresionista, grix, goxo... Zumaya'ko "Santiago-etxean" diran lauki-artean, edozeñek joko du lauki au, ango bitxi kutunetan bat. Ain dago goxo ta xaloki ikusi ta sentitua.

## JERONA'ICO KALEA

Paisaje-kontuan —kale-paisaje, oraingo ontan ere— edozer uskerik ukitzen. du gure Zuloaga'ren begi-ninia: dala kolore, dala edozein kale-  
•biurgune, perspektiba. Ori aitortzen digu, pintatu zuan ainbeste kale-  
-paisajek: Haro, Najera, Segobia... Berdin gertatzen da, diapositiba on-  
tan ikusten degun, Jerona'ko kalearekin ere. Kale ontan Zuloaga'ren  
begi-ninia, iñolaz ere, etheen koloreak ukitu bide-zuten: aurrez-aurre  
dagon etxearen kolore zaar, erdi-urratuak. Bañan baita —eta areago,  
bear bada— ikusi ez, bañan, gure ezkeraldetik datorrela asmatzen de-  
gun kalearen sarrerak. Ala berean, baita, gure eskuitara darion iturri-  
txoak ere —Santu-nitxo baten oñean bait dago, erriko murallaren kan-  
toi batean—. Guzti onek guri, bear bada, ez liguke ezer esango; bañan  
bai, eta asko, Zuloaga'ri. Eta orregatik pintatu zuan berak; eta, orain,  
guri ere zerbait esaten digu... Kalea iñor gabe dago. Ez dator iñor itu-  
rrira, ur-billa. Aurrez-aurreko etxe zaarrak oso kolore pintagarria du.

Ya no va la niña  
por agua a la fuente;  
ya no va la niña,  
ya no quiere a nadie.



# Zuloaga

(Andoain'en itzaldi)

Zuloaga Pintorea, Euskalerrriak izan duan "Pintorerik" *famatuena* izan da... "Onena?". Ortan bakoitzak izan dezake bere iritzi. Bañan "famatuena", bai.

Munduko Museorik ederrenetan arkitzen dira gaur Zuloaga'ren lanak. E'bar'ko "morroskoak" euskal-izen bat ederki aizatu du munduan zear: bere izen euskaldun-euskalduna: "Zuloaga".

Zuloagatarrak ba geriituan Oyartzun'en; bañan gure Zuloagatarrak etziran oyartzuarrak; zegamarrak ziran. Zegama'n ere ba da ballada bat "Zuloaga" izenekoa. Andik atera zan, XVIII gizldian Zuloaga bat, Ermua'ra joateko. Aren ondorengoak Eibar'era joan ziran; eta ondorengo aien ondorengoak izan ziran gure Ignazio'ren gurasoak. Orain 100 urte jaio zan bera Eibar'en.

Gurasoak, armeri-lanetan lan-egiten zuten: armak damaskinatzeke artean jarduten zuten. Orregatik eman zizkioten Ignazio'ri txikitan dibujoko ikasbideak. Bañan asiera orrekin eta bere etorkiz "dekoraziora" jo bear zuan mutillak, arian-arian aizkenean "arte purura" jo zuan: Pinturara.

Zuloaga, dibujante aundia izan zan; dibujante ona eta elegantea. Elegantea batez ere. Karbontzilloa bere eskuetan segurantzi ikaragarriarekin erabiltzen zuan. Eta aren diseñoak beti ere eleganteak izan ziran. (Baita "Gregorio el botero" bera ere, bere itsusian, elegante egiña dago).

Dibujante bikaña bezela, kolorista ere bikaña izan izan. Fantasikeriarikan gabea; baña kolorista bikaña ta fiña. (Esan oi dan bezela, "Kolorre-paletak arentzat etzuan sekretorik").

Eta bi egal oien gañean —dibujo ta kolorearen egal-gañean, Zuloagak bere plntzelarekin nai zuana egin zuan.

Erretratua izan zuan bere "fuertea". Erretratua bakarka eta erretratua konposizioan, sallean, lagunartean. Eszenarik etzuan maite. Ontan bere adiskide Uranga'ren beste aldekoa zan. Uranga'k eszena maite du.

Uranga'k figurak ibillian ipintzen ditu. Zuloaga'k, ez; "posean" baizik.

Oiek dira gure pintorearen ezagungarririk ezagunenak, nabarmenenak. Dibujante ta, kolorista oso ona zan; eta betiere "figurativo-figurativoa". Eta erretratua maite zuala batez ere.

Erretratuan, ordea, Zuloaga ez dijoa "fotografiara"; ez digu pertsonajearen azala bakarrik ematen; mamia, biotza, anima ematen digu. Pertsonajearen animaren analisisa, animaren kritika —kritika sakona, zorrotza— egiten du bere erretratuetan. Ona bada, ona; txarra bada, txarra. Dana dan bezela. Berak ikusten duan bezela.

#### PINTORE EUSKALDUNA?

Zuloaga etzala "pintore euskalduna" esan oi da askotan.

Euskaldun-euskalduna zanik, ez degu esango. Pintore euskaldun-euskalduna izateko, bi gauza bear ditu: a) euskal-gaiak pintatu; eta b) euskal-kritika egin, pintatzen duan gaiari.

Zuloaga'k oso euskal-gai gutxi pintatu zuan: euskal aitou ta amonik, euskal-eszenarik, euskal-joku ta oiturarik (Uranga'k eta Artetak, eta Salaberria'k bezela); bañan Zuloaga'k pintatzen dituan erdal-gaiak euskal-kritikarekin pintatzen dituala benetan esan diteke. "Euskal-mentsaje bat dakartela", gaur esan oi dan bezela. Kritikazko mentsaje.

Guk gauza bat dakigu; torero ta mamolak pintatzen asi zanean, sariketa batean baño geiagotan, Madrid'en Zuloaga'ren kuadroak Espaiña'rentzako<sup>1</sup> "intsulto" bezela artu izan zirala, eta etziotela saririk eman nai izaten... Espaiña'ko oituraen "kritika" zorrotza egiten nunbait. Ori esan nai det, "Zuloaga'k, erdal-gaiak euskal-kritikarekin pintatzen zituala" esaten dedanean.

Alfontso XIII'ak berak ere iritzi ori zuan. Zuloaga'ren pinturak etzuala Espaiña'rik "ondratzen"... Eta Zuloaga'k ondo zekian Alfontso'ren iritzi ori; eta gerora, gure eibartarrak Europa guztian fama aundia artu zuanean, norbaitek Erregeren erretratu bat egite-kontua aipatu zionean, Zuloaga'ren erantzuna, kritika gogorra izan zan Erregearentzat: "Nik ez diot gizon orri ezer pintagarririk arkitzen". Euskaldum "arro" baten kritika egin zuan Zuloagak bere itz oietan ere .

Toreroak eta pikadoreak eta manolak, Zuloaga'k benetan esan kiteke, euskal kriterioz, euskal-irizpidez kritikatzan zituala bere pinturaetan. Gertakari batzuek esango dizkitzet gai ontaz.

Goya'ren jaiot-etxea, Fuendetodos'en dagon bezela —etxe txiki, xix-trin, tella-falta— pintatu izan zualako, eundalako asarrea, kritiko baten aotik entzuna nago neroni. Berdin baita Markes de Aintzina'ren erretratuagatik ere : "jNo bay derecho! ; eso no es um hombre; eso es una chaqueta colgada de un sable". Eta Fuendetodos'ko, Goya'ren jaiot-etxea-rengatik: "jEso es una burla a la Nación! ; juna choza, con un alero que parece la boca de una vieja desdentada! jNo hay derecho!".

"Gregorio el botero"-ri, berriz, ba dakizute zer izen ipiñi zion berak: "Castilla la Nueva"; eta Kijote dirudian gizon luze argal-ax-gal bati, "Castilla la Vieja". (Gregorio el botero" ba dakizute: Norteamerika'-ko Museo sonatu batean dago...).

"La víctima de la fiesta" deritzan pikadorea ere, Alfontso XIII-aren urteen kritika garratza da: bai pikadorea, bai pikadorearen azpiko zal-di arlote-arlotea...

Azpiyan dijoana mandoa da, baña  
gañekoa ere ba dek azpikoa aña...

Toledo'ko erretratuan ere ba du olako kritika zerbait: Erria, berak dakian bezela pintatu ondoren, *en primer término*, esan oi dan bezela, asto bat pintatu zuan, belarriak makur, pentsamentuan balego bezela... ez bait dakigu asto' orrek Zuloaga'ren baitan zer esan nai duan: norbaiten kritika, seguru asko.

Olakoetan arkitu bait liteke euskal-kutsu, benetan ez txikia Zuloaga'ren lanetan.





# Beobide

(Zumaya'n egindako itzaldia)

Jaun, andreok:

Itz bi zor dizkitzuet, gaur Zumaya'n egtien dezuten omen-aldi onen betegarri. Omen-aldi, merezi-merezi bat, Zumaya'ko seme argi dan don Julio Beobide'ri.

Ni ez naiz zumayarra; bañan bai Beobide Eskultorearen aspaldiko adiskide zaarra, zaar bezain adiskide miña, biotz-biotzekoa.

Ia irurogei urte dira, nik ezagutu nuala: Gasteitz'en, Bitoria'n ezagutu ere. Gu Seminarioan bizi, eta bera an inguruko Santa Maria kalean, orain Gotzai dan don Mateo Mujika'ren etxe berean: don Mateo goian, eta gure Julio bean, apupilo Seminarioko sukalde-zaiaren, kozi-neroaren etxean. Ez genduan askotan alkar ikusiko; Seminariora joatekoan, eta andik etxera etortzekoan.

Beobide, Gasteiz'ko Katedral berriko Eskultoreak Gasteitz'en ipiñi zuten Eskultura-Ikastolan zebillen... Mutil gaztea, mutil apaña, illegorri-antza, abarketa txuriak oñetan, pelotaria zirudian... Alakoxea daukat nik gogoan, orduko gure Julio'ren iduri bipil, urduria... Ez bait-zait bein ere geroztik aaztu... Seminariora joatekoan eta etortzekoan, guk apaiz-gaiok bazkaltzen genduan otordu-gelan, an ageri izaten ziran, Beobide'k Eskultura-Ikastolarako saio bezela egiten zítuan buztinzurizko busto-eta-abar... Geroztik egin al-du makiña bat alakorik eta ederragorik!...

Orixe da, nik gaur gogo-gogoan daukadan gogoangarria, Beobide'ren pertsonari buruz.

Eta ez noa, bere pertsonaz ezer geiago esatera. Nik bezain ondo' ezagutzen dezute zuek. Izan ere, zumayarrok ba'dezute bentaja ori: Beobide beti zuen artean, beste edozein bat bezelaxe, ikusi dezute. Orren tallako zenbait artista, erritik kanpora joan oi-da; eta errian, "ba'dalako" besterik ez da jakúen : ba'dalako, bañan errian oso gutxitan ikusia. Beobide, ez. Beobide beti zumayar, zumayar jator izan dezute... Zuek,

ezik, bospeLxarik asko' egin gabe, nolako arlista zendukalen, ixillik asko, Kresala-lantegian, eten-gabe lanean ari zan zumayar apal-apal ura.

Pertsonaz guztiok ezagutzen zenduten; bear bada, artistaz oso gutxi, merezi baño askoz gutxiagok. Orregatik nik gaur artista-alderdi oni elduko diot, itz bi zuei, zumayar jator oiei, omenaldi ontan esateko. Eta artistaz ere, ez pentsa, esan liteken dana esango dedanik. Ordu asko bearko lirake ortarako'. Nik, neronek gai ontaz dauzkadan gogoan-garri batzuek besterik ez dizkitzuet aipatuko. Gutxi, bañan neretzat oso go-goangarri ta jakingarri diranak.

IK . . .

—Zer-nolako artista da zuen Beobide au?

(Egia esan, une ontan naiago nuke, bera emen ez balego. Bai bait-dakit, nolako lotsa ta sufrimena ematen dioten, berareii goragarri esan bear izaten diran goratarreak. Orregatikan, berriz ere, ez det esango, esan litekean guztirik, ezta laurdenik ere; berari lotsarik eman gabe, esan nezakeana bakarrik baizik. Gutxi nola-nai ere).

Astista, bere arte-obraen "aita" dala esan oi-da. Beobide ez da bere obraen "aita" izan; Beobide, bere obraen "ama" izan da beti. Benetako artistak oi-diran bezela; areago oraindik. Benetako artistaren lanak, beren "aita" espiritua izan oi-dute. Eta Beobide'ren espii-itu ori, benetako espiritu santua izan da beti. Espiritu santuaren arnasa sentitu, eta bere lanak Beobide'k bere biotzean oretu, gozatu, eta berotu izan ditu beti: amak bere aurra bezela: bere biotzean, bere barrunbean, bere erraietan bizia emanaz. Benetako artista, benetan bere arte-obraen "ama" da.

Bañan amak era askotakoak oi-dira.

Lenengo: ba'dago baztarretan nolabaiteko emakumerik, ama izateagatik bere maitasuna edozein gizoni eskeintzen dionik. Beobide'ren amatasuna ez da izan, iñoiz ere, olakoa. Berak ez dio, bein bakarrik ere bere arterik eskeiñi, jaungoikozko espirituari baizik, espiritu garbiari, espiritu zerutarrari: Beobide'ren artea, ezer-bada-ta, Santuen Idurientzako izan da, Santuen eta Jaunaren idurientzako, edo-ta Jaungoikoaren irudirik ederrena dan giza-aurpegiarentzako; oietxek baitdira gure Eskultore zumayarrak beti jorratu izan dituan gaiak: Jauna bera, Jaunaren Santuak eta giza-aurpegia, giza-bustoa, Jaungoikoaren irudirik ederrera...

Ama izan diteke, bigarren, bere aurra iñudeari uzten diona; berak sortu, bañan iñudeari azitzeko ematen diona. Beobide ez da izan bere lanentzat olako ama; berak ez dio eman bere lanik iñungo iñuderi aziketarako.

Beste era batekoa izan da Beobide'ren amatasuna bere lanentzat, bere sorkarientzat, bere obraentzat. Berak pentsatu, berak sortu, berak azi, berak musukatu, berak laztandu, berak eman azkeneko ikutueta-ñoko guztia. Ori izan da gure Beobide'ren bere lanentzako amatasunaren izaera.

Bear bada, lan geiegi egin bear izan du, bere obrai olako tratua emateko : denbora-galtze aundia, indar-gastu aundia...

Neroni ikusirikan nago gure artista negu gogorrean, lau aldetara zabalik zegon aldamiu batean, arrizko bloke ikaragarri batean Dom Bosko-ren imagiña ateratzen, burnizko mallua eskubian, burnizko zintzela ezkerrean, arri gogorrari jo-ta-jo, lenengo golpetik azkenekoraño, edozein argiñek egin zezakean desbaste-lana berak bere eskuz egiten, otzaren otzez sudurra gorri, eta bujanda txiki bat lepoan biratua... Karaitz gogor artan mallu-golpe bakoitzak, Beobide'ren esku-muturretako nerbio-tan zenbateko ostikada egiten ote-zuan, Jaungoikoak bestek iñork ez daki... Jaungoikoak eta zerutikan begira zeukan San Juan Bosko'k berak... berak ordainduko bait-dizu, Beobide, egunen batean, Usurbil'go Inge-mar'en lantegi idekian egin zenion eskulturazko grupo bikain ura...

Olakoxea izan da, bada, beti Beobide'ren arte-era: berak egin bozetuak, berak egin gaiaren desbastea... egurra bada, arria bada, dana berak. Ori da egia. Eta ori da, ain xuxen, Beobide'ren lanak ain osoki bukatuak aterazi dituana.

\* \* \*

Bañan beste gauza bat orain. Berak esan nai baliguke, jakingo genduke, Beobide'ren artearen beste izkutuko' aurpegi ta detalle bat: zenbat maite izan dituan beti, bere eskuetatik ateratako lanak, lan bukatuak; nolako penaz ikusi izan dituan, bere lantegitik ateratzen, beren enkargatzalteen eskuetara joateko... Berak esan nai baliguke...

Bañan errespeta ditzagun olako sekretuak. Nik dakidana auxe da: nolako penaz utzi zigun, bere Kresala'tik eramaten, Añorga'ko Elizak

duan Ama Birjiñaren busto bikain bat (emen bait-daukazute, ain xuxen, ikusgarri ekarria).

Ama Birjiñaren irudirik, nik ezagutzen ditudanetan ederrenetakoa alde batetik, eta artistaren familiko orogarriz kutsatua bestetik... nolako penaz ikusi zuan bere tallerretik ateratzen alako egun batean...

Amak besoetan daukan aurra, bere seme baten txikitako iduria da! eta Ama Birjiñaren irudia, berriz, histori polit batez kutsatua... Esango al-degu?... Ara, nik berari entzuna, eta aztutzen etzaidana:

Beobide Iruña'tikan zetorren; Plazaola'ko trenean etorri ere. Plazaola'ko trenea geienean uts-samar ibiltzen zan; eta arratsalde artan ere ala gertatu zan. Eta Julio ta neskatxa gazte bat bakarrik suertatu ziran kotxean —bañan etzaitzeltela ikaratu!—. Neskatxa Iruñe'ko *Coral de Pamplona'h.o* kantora zan —soprano? kontralto?—; ala aitortu zion gure Julio'ri; eta Erasun'go festetara zijoan —nunbait erasundarra izan gurasoz—. Neskatxa egokia; aurpegi ederra benetan; eta Julio'ren tentazioa —bañan etzaitzeltela ikaratu!—: bere Amabirjiñak egiteko "zer modelu, eredu bikaña uraxe!". Pozik artuko zuan arentxen apunte bat, bere lanetan gogoan eukitzeko... "Esango ote-diot?...". Aizkenik, "tira, ba!". •—Utziko al-zenidake zure apuntetxo bat egiten neretzako?... Etzaitzela ikaratu. Zure aurpegiaren apuntetxo bat egin nai nuke... Ama Birjiñaren imajiña bat egiteko... Ba'dakizu: eskultorea naiz, eta Ama Birjiñak egin bear izaten ditut... orixe da guztia...

Ez dakigu, neskatxari nolako zarradakoa egingo zion barruan Beobide'ren eskabideak... Bañan gizonaren aurpegi formal-formalak bigundu zuan nunbait, eta berealako batean an egin zuan Beobide'k, geroztik egin dituan Ama Birjiñentzako izan duan eredurik ederrena: ederra alde batetik, eta garbia bestetik; aren irudira egiñak bait-ditu geroztik zuen Eskultoreak, dozenerdi bat pasatu Ama Birjiñaren irudi bikain... gogo-gogoz "Salbe" bat esateko moduko imajin bikaingarbiak...

Ez dakigu, Erasun'go neskatxak jakingo duan, nolako imajin ederretarako eman zuan arratsalde artan bere eredia... Ori zala urte asko samar ere ba'dira-ta, onezkero bera ere zaartuxea egongo da gaxoa... zeruan ez badago, irudi bikain batzuek egiteko bere eredia eman zion Zeruko Amaren ondoan...

Bañan, jarrai dezagun aurrera, eta ikusi orain, nolako kategoria duten gure artistaren lanak.

Eskultura batek, beti ere, bi gauza ditu bear-bearrekoak: bata antza, eta bestea, bizitasuna. Eskultura bat izan diteke, ereduaren antz-antzekos, bañan antz illa. Antzaren bizitasunak osatzen du lan baten edertasuna ta kategoria.

Bizitasunak, berriz, bi gauza bear ditu: begiratu bizia, eta gorputzaren keñu bizia. Begitura izan bait-liteke era askotakoa : tristea edo alaia, asarrea edo' goxoa, bizia edo illa, distraitua edo zorrotza... Ala berean, baita gorputzareu igitura, izan liteke keñuduna, edo keñuga-bea, motela —askotan oi-dan bezela—.

Bi gauza oiek —ezer ba-da-ta— begitura ta gorputzaren keñua, alegia —dira Beobide'ren lanetan nabarmen-nabarmen ageri diranak—.

Ikustagun, adibidez, Añorga'ko Ama Birjiña, Ama Birjiñaren bustoa.

Beobide'ren imajin bikain au ikustean, askotan etortzen zaizkit neri gogora, Florentzia'ko *quatrochentoko* Maisu imajin-egilleak: Donatello, Luka Della Robia, Mino da Fiesole... Beobide'k, izan ere, oso ondo ikasi ditu Maisu aundi oien pausuak eskultura-artean.

—Zertan? —esango didazute—.

—Ikustagun.

Lkustagun lenengo Amaren begitura. Beobide'ren grupo-busto onek, bati baño geiagori, Rafael'en *Madona della Sedia* ("Nuestra Señora de la Silla") ekarriko dio gogora; eta antza ere ba'dute, biok, Ama bere Aurrarekin egote ortan. Bañan begira dezagun dana dan bezela, eta ikusiko dezute, nolako aldeak eta diferentziak dauden bion artean.

Rafael'en *Madonak*, lenengo-lenengo, Aurra estu-estu dauka beso-artean; Beobide'renak ez; eltzen dio —ta nerbioso eldu ere— bañan estutu gabe. Bigarren, Rafael'en Amak begitura "draitua" du, bere baitan bildua, alegia, edo-ta barrura begira, pentsakor-pentsakor; Beobide'renak, ez : zorrotz-antzean, eskui-antzeara begira dago, zorrotz begira gañera, alde artatik norbait Aurrari zerbait egitera baletorkio bezela... Besoz eta begiratzuz, Amak Aurra anparatzera egiten du. Ez didazute esango, gauza ondo pentsatua ez dagonik, eta pentsatu bezain ondo antz-eman, logratua, iritxia...

Olakoxeak dira, gure Beobide'ren eskultura-lanak. Olakoxe kategoria-rikoak...

\* \* \*

Ez nijoakizute, gai oni buruz ezer geiago esatera.

Esan nentzakean, Añorga'ko prozesiotako Jesus Obiratuari buruz zerbait geiago, gorputz il arren "bizitasuna" aipatuaz, alegia. Ezin bait-liteke izan, gurutzean ildako gorputz bat, uraxe baño sakonago, indartuago egiñik. Eriotz gogorra, eriotz tragikoa. Orixe erakusten bait-dute, Jesus illaren begi-zulo ikaragarri aiek... Bañan uztagun gai au, beste azkeneko zerbait ukitzeko : Beobide'ren Gurutze Santuak.

# « \*

Jesus'en eriotza, bi lapurren erdian izan zan.

Beobide'ren bizitza, esan diteke, Jesus'en bi Gurutze Santuren erdian arkitzen dala: Zuloaga'ren Gurutze Samtua, eta —gaur arte beintzat— Errenteria'ko AA. Kaputxinuen Gurutze Santua...

Bañan bi oien bitartean, beste bat dagola: "Valle de los Caídos"ko Gurutze Santua. Azken au batez ere eta Zuloaga'rena. Bi lan, bi obra "zein-baño zein" biok. Bañan, igituraz ta begituraz, biok ain elkarren-gandikan bestelakoak! Biok ederrak: "zein-baño-zein-" bañan biok oso bestelako expresiodunak...

Bata zintzillik —nola zintzillik ezik!—: bi besoak goitikan beera, zuzen-zuzen, gorputz unatuaren kargaz etenik; aoa benetan egarri... Betea, besoak, zabal; gorputza astintze estu batean; azkenetako indarketan, bere Zeruko Aitarekin izketan... Bi lam, "zein-baño-zein!", gure Beobide'ri mundu zabalean izen aundia ematen diotenak, eta emango ere diotenak...

\*1 \* \*

"Ematen diotenak" esan det; bañan ori ez bait-da biziro-biziro egia. Urte askotan euki dute *Valle de los Caídos*en, Gurutze ura zeinena zan ezjakiñik. "Santo Cristo, policromado por Zuloaga" besterik ez bait-zieten esateat' ango *cicerone* diralakoak, ango bisitariai: "Santo Cristo, po-

licromado por Zuloaga", arik-eta alako batean Beobide'ren familiko' batek esan zien arte :

—Policrornado por Zuloaga, pero, ¿y el escultor?

—Aquí no lo sabemos.

—Pues yo se lo diré a usted : el escultor autor de la obra policromada por Zuloaga, es familiar mío: Julio Beobide, de Zumaya, gran amigo de Zuloaga...

—;Ah!, pues me faltará t'empo para decirlo en adelante.

Eta geroztik esaten omen-dute txintxo-txintxo: "Escultura de Beobide, policromada por Zuloaga".

\* \* \*

Eta ez noa, bat-ere geiago luzatzera.

